

**Augustin Anabitarte**

**USAURI**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,  
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria: *Augustin Anabitarteren idaz lanak*, Juan San  
Martinen edizioa. Gipuzkoako Aurrezki Kutxa, 1986

<http://klasikoak.armiarma.com/>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/egileak/00194.htm>

Augustin Anabitarte  
Schucardt-Saria, 1929

Usauri

Erri kozkor baten izaera eta oriturak  
(Irakurgaia)

—Bigarren ageraldia. Ikutua—

## IGANDE GOIZ BATEAN

Egun artan Usarin igandea zan, eta beste tokietan ere bai. Edanontzi batean itxekita dau-den bunbulloak uraren bidez azalera igo ta azka-tzen diran bezala, alatsu, meza nagusiaren garaian, etxe-zulo bakoitzetik, edo beltzez jantzi-tako andrea pildumen oria eskuan, ala mototxa mantillaren azpitik agiri duan neska tuntuxa —errosarioa beatzetatik zintzilik— kale ta bidez-kaetatik, batean bat, bestean beste, guztiek batera jotzen zuten; eta bein eliza-ateetan, len aipatutako bunbulloak bezela, ezkutatu egiten ziran. Oraindik ere nere begiek ikusten dituztela esango nuke, egun guztian mar-mar ari dan enparantzako iturriaren ondotik, oñak arritik arrira —errekatxoari akika— azkenik eliza-aurre-ko bidea artu ta illunpean sartzen dirala. Gurutze arria dagoan tokitik, berriz, bidea bee-aldera dijoa elizarako, jostundegia ta «Asentxi-n maa-tsa»ren ondotik pasata.

Gauean bere erlojuaren joalearekin kanpotar-  
rrak etorriberrian tristetzen dituan elizan, orain,  
eguzkiak gain xamarretik artzen duala, ba dirudi  
egoak zabaldu ta, olloaren gisan, Usauri ta ingu-  
ruko jendea gorde nai dituala.

Bukatu dira pelota-plazako lei izarditsuak.  
Lerra-azpiko txokotik txamarrak jasota urrena  
ukaiarekin legortu dituzte kopetak. Galtzaleak  
aurretik abiatu dira; gero irabazleak, lasaiki.  
Pelotaka polita izan da. Gazteak gizonki airtu.  
Arrietatik kanpora bazegoan zenbait ikusle.

Ardotegietan guztiontzat tokirik ez eta ata-  
rian bildutako baserritar mordoskak oraintxen  
sartu-ateratzeko asmotan dabiltz. Ederki alkartu  
dira meza-aurreko solasaldian: iganderoko eza-  
gun eta adiskideak ikusi ta bideko nekeak nola-  
bait arindu.

Usaurin, arrotza baziña, onetxek joko zinduz-  
ke lenengoz: astegunetan, goizeko neska-muti-  
llen dei ta ojuak, gurdien karrankak, zakurren  
zaunkak, astoen arrantzak eta, euria egin  
bazuan, eskalaproin-dantzak; igandetan, ingu-  
ruetako mendietatik etorritako baserritar tx-  
mar-beltzdunak, ibillera oargarria ta izketa asko.

Mezetan, guztiak giñan. Gure atzetik emakumeen arpegi gorrituak baizik ez genuan ikusten, pildumenak lurrean, gañerakoa illunpe beltzak arrapatzen zuan. Aurre-aulkiak, beteak; batez ere adiñeko gizonak, zenbait mutil kozkor ere bai. Aldare nagusian abade jauna bakarrik. Apaiz gutxitxo, esan zitekean, ain jende askorentzat. Alkatea ere an zan, bere lagunek buru zutela.

Gu, bestetarrak, guztia oartu naiean jarri giñan; noski, Jainko-etxeari zor zaion lotsarekin. Opillak biltzen saskia eramaten duteneko artan arritu giñan, gure erri aundietan ez da orrelakorik ikasten. Inguruko aldare ezagungabeak zer ikusi bazeukaten. Bere garaian apaiz jaunak aurreko aldare aundia utzi ta sermoi-tokira igo zan berea egiteko. A zer itz ezti ta biotzekoak! Astiro-astiro, barrengo poza zeriola, asi zan. Aste artako egun batean obispo jauna izan zan Usauriko neska-mutileri bataio-baiespena ematen. Ta mutilak ezik, eta emakumeak ezik, gizon asko izan zan jaunartzen elizan. Berez biotzbera apai-za, negar eragiteko alaitasuna zerabilkian ezpañetan. Obispo jaunak, noski, urrengo bi errietan aipatu egin omen zuan Usauriko jendetza. «—

Yarrai ezazute, ene kristau maiteak —zion gogoki— yarrai bide onetik atzera begiratu gabe». Ta elizako illunpean argi-argi ikusten genuan gure buru barrengo begiekin Usauriko artalde zuria ta artzai beltza atzetik...

Meza bukatu zan. Berriro eguzkia ta zeru-zola urdiña agertu ziran begiak itxutzen zizkigutela. Len toki askotatik banaka etorritako jendea, orain pillaka, alkarrekin estututa, kanpora biurtu babarrunak urratutako zorro lodiaren zulotik atera oi diran antzera. Beraz, zabaldu jendea. Onela ustu zan Usauriko elizaren sabela; txitoak joan zitzaizkion egapetik olloari.

Utzi ditzagun emakumeak beren zeregiñetara joaten. Baserritarrak astean errira beñere jeisten ez dirala-ta, beren artu-emanak igandeko meza nagusiaren ondorenerako uzten dituzte: bata, erritar bateri gauaz mendian emandako argimutilla jasotzera; bestea, erlojeruari zintzilorduari zar-zarra eskatzera. Bitartean, ayuntamientoan batzarra artuta daude, enparantzako etxerik ederrenean, bigarren bizitzan; beerago, jatetxe ta etzalekua, eta beerago, ardotegia. Arratsero etortzen dan «Pidel-en tarrantak»

emen egiten du geldialdia, baldin lendik zamarrenzamaz aldapak igo eziñik, bide erdian gertzen ez bada, askotan gertatu oi dan bezala.

Burnizko tutuak, zementozko zakuak, mugazai-karabineroen kutxa-zarrak, (Usaurin ere baziran mugazaiak) eta kristauak, guztiak lakarrekin etorri bezela, batean lurreratzen ziran zenbait gauza geiagorekin. Ustu ta bereala iru-bai-lau mutil sartuko zaizkio Pideleri tarrantan, eta elizko zokoraño bira bitartean, an joango zaizkio geldik ezin egonik.

Bat... bi... iru adar-dei entzun dira. An dago pelota plazako arri koxka batean zutik irakurlea. Ayuntamentuaren erabakiak irakurtzera dioa. Jendea bildu zaio. Izketak utzi dituzte eta orain-txe guztiak ixildu diranean, «Tukulu»eneko ardo-tegitik arreterik egiten ez dion ajolagabe baten itzak entzuten dira:

—Sagardoa? Emendik bat... bi illabetera, eguzkia berotzen asten dan garaian.

Batzuen-batzuek par egin dute. Asi da. Entzuleak buru-belarri dagozkio. Irakurleak bere lana bete ondoren arpegiak biurtu dira ta gizonak ere bai. Auxe da irteerako garaia. Azkenekoak badi-



joaz. «Tukulu»enean ia erritarrak besterik ez. Ta erabakiak ojoztatu bitartean sagardoaz mintzatu dana, «azkeneko baxo-erdiak egin zidak min» esanaz, etxerako bidean, zuzen-zuzen, erdi-erdi-tik, batere baztertu gabe, bakar-bakarrik pasada obispo jauna errian sartu zaneko erein-ostoz eta banderaz jositako uztaiaren azpitik...

## II

# «VILLAGARSIA» MUNDUKO PORTURIK AUNDIENA

Bagoaz «Tukulu»enera. An zegoen Usauriko erlojerua, alper-erdoiak jota nagitutako giona.

«Alperra naiz baño  
badakit lenean  
inork bezin ongi  
gogoia denean.»

Arrotza berez; baño errian urteak zeramazkiala euskeraz ederki zekiana. Me-mea etorri zan; orain, ordea, arpegia edanaz buiatuta —ta gorputza ustez ere bai— lodi xamar arkitzen zan. Garerdiko gizona (adin erdikoa); iztuna, jostagura, orain ere gelaren erdian zebillen batekin eta bestearekin ii-ji!-ka oi zuan irri-antzi errexarekin. Gutxik zekiten bere izena ta abizena gutxiago oraindik. Auskaldeko baserrian ere ezagutzen zuten. Nondik-nai zijoala «adiós, erlojero!» esaten zioten. Onek egiten omen zuan: ardoa berea

ta besteena edan; artzekoak eskuratu, ordain-  
tzekoak ukatu, errosarioa saldu ta kartak erosi.  
Gañerakoan, ikusi ez dezuten bezelako beso-biz-  
karzale ta par-ontzia. Goizetik, baxoka bat patar  
ogia bustita. Esneak estereangoa egiten omen  
zion, txokolateak berriz ez dakit zer geiago. Ura  
(lengoa) bezelako erremediorik ez.

Orren adiskide-kidea, Antonio, Letxan sakris-  
taua izana, iru seme-alabaen aita, beti-beti  
galtz-muturrak lotuta zebilzkiana. Luze aña  
zabal, baño gaztea oraindik. Arpegi-aundi, baño  
ez itsusia. Sudur-puntan alako kankar bat zeu-  
kan. Ibiltzen zanean, galtza-putz aiekin, kristaua  
baño atea obeto zirudian. Oraindik ere sakris-  
tauaren itxura zeukan, begiak apal, belaun-koz-  
kor bigunak. Ardoak ez zion txartu bere iduri  
ona. Izan ere Usaurin izaten zan eta izan oi dan  
ardo merke ta bikaña! Baño aren grin txarrena  
edozein zala gutxietsi ta «babotzat» artzea. Ta  
ez zion begiratzen berak aintzakotzat artzen ez  
zuana an aldean ala aurrean ba-zegoan ere.  
Amaika bider galazi zizkioten ondo irabazitako  
muturrekoak! Orain ere an ari zan,  
«Tukulu»enean, aboa ainbateko zabaleran asa-

re-itxurazko itzak zerizkiola: —«Babo arraioa!, or ikusi diagu Manuel bizikletan arpegia gorrituta “Pidel-en tarranta”ren atzetik. Nonbait Pidelen tarrantak luze batzuk izaki atzetik eta Manuel ondotik zijoala, alako bira batean, tarrantaren atzeak alde batera egin duanean, tutuek jo ditek eta exerita zetorrena buruz-beera bota. Or etorri dek bide guztian segika, abo-betez “osijenoa” artzen (gasolinaren kea) Pideleri kargo artzeko asmotan, noski. Babo arraioa!, bizikletan etzekitek eta non-nai sartu bearra. Nik bezela egunean berrogeita-amar, irurogei kilometro egingo balizkikek, ala ere...».

—Bai eta gero esnatu egiteaiz— egin zion Juantxok, beti alprejeta txuriakin ibiltzen zan gazte poxpoliña.

—Ez jauna, ori ez da ametsa. Zer? Esaiok Paulinori; or zegok leioa beteko buruarekin. Lengoan Letxan barrena ninjoala ikusi ninduan eta baita nik, oraintxen gogoratzen naizela, aspaldiko Austin ikusi. Egia esatera arritu nintzaion. Ura illa zala etsita ikaratu nintzan topatzeaz; oi, au bizi al dek?, egin nion nere buruari. Ta gauzak

zer diran! Ori gaur bezelaxe esan eta urrengo egunean ziflatu zan —bukatu zuan Antoniok.

—To, urrena topatzen badek, seguru illa dala —esanda jii..., jii..., jii..., jii..., asi zan erlojerua. Mai-muturrari eldu, ta sabelari ere bai, ta goitika egin oi dan bezela —ez bein-beingoa— arpegia gorritzeraño erazo zion.

Beti ume ibiltzen zan gizona. «I, Arranopoleta, arrano-arranoa...» ta, dzast! lepezamarrean jo. Besteak eskuarekin egiten ba-zion, utsarekin «oi!» edo ji-jika berriz ere. —«Bete amargarrena, kosta-ala-kosta... merkeena. —Ara bestea, *xor diagu ta paga egidaxu* arpegi orrekin». Ate-ondotik zijoakeanari karraxika: —«*Infrentero, dame un mano de papel por el kristaltzulo*». Urrena kantari:

«Maria Andresen kokotza  
lau libra ta bost ontza».

Alako batean: —Bigar lanera!

Txoroa buruan eta ibilli munduan. Antonio. orreagatik, ez zuten beñere parrez ikusi. Gauza gogorrenak esateko arpegi-zimurrik erakusten ez. Batzuetan amorrasi egiten zuan egosgogorrak; bestetan erruki gintzaion gixajoari. Lolo

xamarra ere bazan. Juantxo maxiatzaleak Donostian aurreko igandean jende asko ikusi ote zuan galdetu zionean «Ni bakarrik ezaguna», erantzun zion.

Ta onelaxe izan oi zuran Usauriko igade-goizak. Larunbateko lan neketsuak utzi ta gaueko loaren ondoren egun osoa atsedean.

Gizartea gogoz artzen duten aya zaie, otza kentzen duan artillea, naigabeak ainatzen dituan txori-maloa. Gizonek elkargana jo oi dute. Gogotak iñori ixuritzea naiezkoa zaio gizonari, iñoren usteak jakitea atsegin, joalasa ta irria osasungarri. Benetako griña izaten dute askok gizarterako. Ta astean beingo billera, nekez datorren basa-atea.

Erri oriek paketsuak dituzu. Aien berriketak ajolik ez dizutela uste dute. —

—«Antonio ta i, bi» —esan oi zion «Tukulu»k erlojeruari. Bai alkar artuta, bai alkarren ajolik ez, edo-eta, alkarrekin nazkatuta, nai ez bazuten ere, ustez ta ez uste, biek beti topo egiten zuten. Ez alako tokira joera zutelako, ez aien zeregiñek bata besteratzen zituztelako; tokirik aldendue-

netan, egunik txarretenan, garairik illunenetan, toxa ta pipa bezin seguru alkarganetzen ziran.

Ta onuntzean biok bat zetozenean, ez lizuteke esango norako abiatu ziran, nor utzi zuten eta non. Naiz askotan asarretu —biak ajolakabeak— alkarrekin egon bearrak adizkidetzen zituan. Ardoaren usaia, batez ere, biotz-legungarri bikaña zitzaien. Gazta puska berean xaguek topo. Sanson bururatuta asto matrail-ezurra begitartzen zaigun bezela, Antonio ikusita bestea gogora, erlojerua aurrean lengoa usma.

Igande goiz onetan —meza entzunberriak giñala aztuta geunden— txorakeriak alde batera utzita, bene-bene ari ziran jardunean. Umore oneko gizoneri askotan gaingañeko gauzeri buruz mintzatzea gogokoa izaten zaie.

Antonio bere «Burdeus»ko egonaldiaren berriak ematen ari zan. Ango katedrala! Kai artako ontziak! Langille pilla ura! Garona ibai zabala! Bere gañeko zubi galanta! Portua, batez ere, itsasatea! Ta aundikeri oriek esan bitartean, tarteke, gaizki ikasitako prantsez itzak sartzen zituan ez-uste itxuran.

Askotan ixildu egiten zitzaizkion zer erantzun ez jakiñik, eta Antoniok zer geiago esan izanez eta buru barrengo muñak arakatuta, lengo esaneri berriro eltzen zien, ea zerbait geiago bota aal zezakean.

Baño «Burdeus»ko portuaz itzegin zuanean norbaitek Vigoko itsasatea aundiagoa zala esan zion, Vigoko portua Españako aundiena zala.

Antonio itz-bidean zegoala-ta ango berriak ezik bestelakoak bazekizkiala agertu naiez, bene-bene aurreratu zitzaion: —«Españan ez zegok “Villagarsia” bezelako porturik». Ta berriro eutsita: —«“Villagarsia” dek Españako porturik aundiena!».

—Nik beti Vigo-Vigo aditzea izan det Españako porturik aundiena dala —erantzun zion erloje-ruak.

Ta guztieri begira, besoak zabalik, ostera ere «beti esan oi dute Vigo dala zabalena».

Antoniori barrena larri zebilkion. Vigo zala azaldu bear bazuan, nork sinistuko zizkion «Burdeus»koak esandakoak? Nola asi ez zekiala onela asi.



—Erruki zaituztet geiago ez jakitea; batez ere i, Juantxo, eskolan ikasiago aizelarik. Ara, txinist ezadazute, «Villagarsia» baño portu aundiagorik ez dago España guztian. Baño ez al dezute beñere entzun «Villagarsia» portuaren aunditasunaz? Arrituta naukazute. Oi? *Europako* porturik aundiena da, puñeta!

Orduan Juantxok esan zion:

—Ez diat txinisten. Hamburgokoa baño geiago ez dek izango. Hamburgokoa gero izugarria omen da. Ango ontzietako «paloak» baso zabal baten ugaritasuna omen daukate.

Baño Antonio ezin egon:

—«Villagarsia» *munduko* porturik aundiena da, zer arraio!!! —bukatu zuan.

—!!!

### III

## «SESIOTEGI»N

Usauritik «Sesiotegi»ra joateko bidea berdiña da aurrenekoz eta gero goitik-beerakoa, mendiegai malkarratik joan bearrean zirrimarrak egiten ditu ezker-eskubira. Beerakoa iru kilometroko bidea-edo da tunel ondotik asita. Baldin irakurleak guk aipatutako erria polita irudituta ikusi gogo balu, ez beza iñora begira tunel ori ezagutzeko asmoz. An ez da mendizulorik. Izana bai, baña sapaia arri kozkor galantak noizpeinka jausten zirala, gain guztia kendu zioten eta ura iñoiz lur azpiko bidea izan ez balitz bezela gelditu zan. Ala ere usauritarren izketan askotan aipatuko dizute zulorik ez daukan tunela, oraindik ere.

Gaztañondo batzuk ezik, ala uraska bat bide bazterrean, ez dezu jakingarririk bea arrapatu arteraño. Bidea ez da zabalenetakoa. Bi auto parean joaterik ez dezu; baño, okerrik gerta ez dedin, aginduta dago beeralariak goralariari leku utzi bear diola.

Auzko muturrera joan gabe txaburbide bate-  
tik berealaxe jetxi gindezke, Ibaiotzko zubitik  
lenengoz eta gero Matxinbentatik dikoan bide-  
zabalera. Abiatu gaitezen ezkerrera. Orra ugesia  
ta argi-ola berria, berria bezin ederra. Bi kilome-  
troan ibaiaren ondotik joango gera. Ona Matxin-  
benta. Zubia pasa, trenbidea ere bai, lenengoz bi  
aldetara so-egindai ta berreun oin-artera bezela,  
leioak untzaz ingururatutako baserria da «Sesio-  
tegi». Astegunez ikustetik jai-egunez ikustera,  
kana terdiren bitartea. Lanegunez, benetan,  
bakartsu egoten da baserria, eguzkitan etzanik  
dagoan zakurraren tankeran. Bat edo bat ganga-  
rra bustitzearren iru mail jetxi ta txurrut batez  
atera egiten da. Andik puxka batera ere, aren  
«egun-onak» eta «agurrak» belarrizuloan dauz-  
kagu. Euli-burrunbata kito.

«Sesiotegi»n bi neskatxa bizi dira. Artaratzen  
diranek ederkitxo dakite! Eguerdi aldean garoz,  
edo an esaten duten bezela, iratzaz zamatuta  
mendian beera datozkizu ta baserri aurrean  
buru-gañoeko meta iraulita zilipurdika bota. Tan  
orduan ikusten zaizkie arpegi-buruak oial zuri  
batez estalita, Usauriko inguruetan oitura dan

bezala. Lepo beerañoko estalgarri oriekin ijitoak dirudite, baño ijitoak ez dirala dakian bestetararentzat poliki baño polikoago artzen dituzte. Ordea zu mutil txukuna baldin bazera, bereala gordeko zaizkitzu artopetan arpegiz arpegi jar-tzen bazatzaie.

Bazkolondoan, musuz ta soñekoz apainduta, bai bizikletan biderik-bide, edo-ta, dantzan ariku zaizkitzu baserriko goiko gela zabalean. Amaika txanpon ekarri zizkioten «Sesiotegi»ri dantza aiek, gañerakoan on aundirik ez bazekarkioten ere! Lurralde aietan erriak bata bestearengandik urrutitxo daude ta maiz artu-emanak izaten dituztela, bi kurpillekiko tramankulu orietan asko dago alde artan.

Baño esan nai genuan egun onetan, beste igandetan bezela, irurak ezkeroztik jendearen joera asi zala «Sesiotegi»n. Ta aurrenetik lenen etorritakoen izkimizki edo ixkixalda baizik naba-ritzen ez bazan, jendea etorriala izketa apar-zuria bezela arrotu egiten zan eta iñoiz par-aldie-tan lertu ere egiten zala esan zitekean; edo ta, esnea beroaren berroz goratu egiten dan antzera,

edariaren txinpartaz gal-gal jarrita itzak gañezka zijoazkien ere.

Etxeko nagusia, tabernaria, begi zorrotzdun gizona zan. Berekikoz ardotegiaren eztiak sarre-rako iru mail jetxi bearrarekin zer ikusi bazeu-kan, azkenean zankoak korapildu ta gaitz izaten bai zitzaien goraka abiatzea! Artean ateaq zaba-lik al bait; zulatoratu, zokoratu ta geldi, kaiolatik atera nai ez duan txori xaarraren gisan. Baño guztia esateko esagun ere saldu-maia eskubita- ra zegoala. Onen atzeko gorañoqo botilla-erren- kadak ez ditugu aipatuko, ezta bestelako mota askotako salgaiak, nonaian bezelakoxeak dira, agian «Sesiotegi»n baño geiago. Aldean non eta demaren bat ez bazan, txapel gorriko botillik ez zan askatzen, baño alakoren batean bai ederki ustu ere, aalik eta besoen ardo aztarna borobi- llaz beatza añaqo zuria mai gañetan ez ikusteko eran. Apalategi artan, oi bezela, gutxien ikusten zana zan lodiena: ardo-zagia.

Esandakoak gañera, bada, barrunbean bi mai, aulki bina. Atzean, ate bat; atean, gora igo- tzeko eskallera, eta goitik beera gatozenerako orma-zuloa, barrunbea usmatzeko.

Orra bada, guk nai ezta bertaratu ginduzte-  
nean, arratsaldeko seiak-zazpiak baziran ez  
dakit. Sartu ta bereala esaera ezagun bat aldatu-  
ra gogoratu zitzaigun: non salda, an zopa. Orra  
bada Antonio, erlojerua ta Juantxo gure adiski-  
deak alkarrekin berriz ere. Antoniok esaten  
zuana: —«buruz gañeko lanak gobernatu ainbes-  
te». Juantxori: «Edantzak».

—Ez diat nai. Gaur egarriak etorri dala-ta,  
ardoa ematetik eman dio.

—Zuek askatik bakarrik edaten dezute —  
Antoniok erdeñuz.

—Zer berri Usauri aldean? —norbaitek.

—Mixerri gogorra —Antoniok—. Bazkalondo-  
an, beintzat ederki kimatu natxiotek jokoan.

—Jokoa ez duk errenta.

Juantxo ta «Sesiotegi»n sartu ziranean gizo-  
nezko asko zegoan. Bi maitetako inguruak uka-  
londoz artuak. Nekez bazan ere nolabait molda-  
tu ziran. Exeri berrian baziruditen aspaldian eto-  
rriak zirala, ta bertan lo egin bear zutela ere, ain  
asiera berritsuarekin asi ziran. Maiak, ongi zai-  
tuak. Deitu bakoitzean etxeko neska zarrenak,

ke tartean, arinki ekartzen zituan eskatutakoak. Gizonek, beraz, edan, erre ta mintza.

Bi mai aietako batean, ala ere, mintzatzuz gañera baten bat bertsoan asi zan. Gure base-ritarren billeretan, ardoa ala sagardoa tarte dala, ez da zalla bertsolarien bat aizearen tokitik azaltzea. Ordea, izketak eta mizketak zirala, ezin bada ongi belarriratu itz-neurtuzko «ziriak». Algara baten ondoren, zertxobait ixilduta, onelakoa entzun bear izan zuan Letxako txistulariak:

Letxako txistulari,  
oi begi-bakarra,  
lan erdia izan eta  
dariok makarra.

Soñua nai ta nagi,  
bear ez ta azkarra  
txistua baño obeki  
jotzen duk adarra.

Zer parregin izan zuten.

Juantxo ta iruron maiean, ordea, istillu gogorra sortu zan. Antonio ta erlojerua buruz buru

biziki ari zirala ta, beronen itzak karraxiak obeto ziruditela ta, bion ojuak gora bezela besteen jarduna moteldu. Pixkana-pixkana guztion arreta aiekanatu zan.

Juantxo aritu zitzaien zirikalari. Juantxok ederki zekian bere lagunen berri. Zerk asaldatu zitzakean uraxe erdiratu ta bereala itz-bidean jarri. Bein bat galbidean asten bazan, areri laguntza; bestearen txanda bazan, areri akullua. Beraz, izketaren gora-beerak, bein alde batera, bein bestera.

Antioniok zion:

—Ta i etzaiz beñere Vigon izan eta nik Villagarsia ikusi diat, Santanderen egon nintzanean. Ta naiz portu guztiak ikusi ez izan, gizonak antzeman lezaiokek zer aundia dan, zer txikia dan, zer aztugarri, zer arrigarri. Nere ibilleretan ni asko ikusirik niok et i ez satorra baño geiago.

Juantxo tartetu zan:

—Ik nai dekana esango dek, baño ez ago zuzen. Villagarsia etzegok Santardenen, Galizian baizik. Besteeri aditua ainbestez gañera, ari al aiz esaten?

Orduan erlojeruak maltzurkeriz:



—Burdeos en egon aizenik ere ez diat txinisten.

Esan zezaiotekean mingarriena orduantxe entzun bear izan zuan. Errotik atera zuten. Villagarsia ikusia gezurra bazan, Burdeosko egia gezurtu zioten. Antoniok onela esan zion erlojeruari begietara begira:

—Ni Burdeusen bezin ongi biziak, gutxi txapeldunak. Nere orduko ogibidea arozkontza ukan, baatik? Eta nik ongi irabazi, ondo jantzi ta nai bezela bizi niñukan. Nik orduan ondo ezkontzeko aukerarik erosoena izan nuala esango ba nitek, zer esango ukek? Jakin ezak bagure aroztegiko alabari —neska polita ala ere— gogozkoa nintzaiola, eta berak ezik bere aitak ere oso begi oneko ninduala. Ni asko maite nintxiotekan, neroni beti biotz onekoa izan naizelako, ta bien baño geiagotan ene nagusi zintzo arek, aroztegian ari nintzala, «gendre», suia, deitzen nintxiokan.

«Ta ik ez dek ezagutu, ez urrerik, ez zillarrik, ikusi ez duan ire nagusiaren muturra baño»..

Antonio biotzberatu zan. Galdua zan, ordea, Gogo txarra maltzurkeria dagoan eztabaidetan

beratasunak galgarri. Maltzurra astoaren gañean bezela samurtasuna azpian dioa.

—Ori guztia egitza emanda ere —erlojeruak berriz— ez dik inork emen ulertuko ain ogibide ederra izan eta Letxako apaiztegira nola etorri intzan. Batez ere, ardo txorta bat edan naiean atabakatik txintxin bat ateratzera ire burua bear-tzekotan. Ogibide berri orretarako arteza ez diat ukatuko, ire tabernarako joan-etorri ugarieri begiratzuz geroz beintzat.

Orain «Sesiotegi»ko guztiak adi-adi zegozkien eta azkeneko itz oriekin, a zer parrak! Antonio garaitua zegoan. Ta garaipenak emandako arrokeriarekin erlojeruak, berriz ere, ekin zion:

—Gogoratzen al aiz urdalla «zeretik» ondotoxoa beteta igari egiteko asmotan uretara joan intzanean? Urak gaitz eginda, ni an izan ez baninuan...

—Urak gaizkitzen ditu auek —Juantxok bota zuan.

Onen ateraldiak bat-bateko irrikarkara piztu zuan. Batean bat zala, bestean beste, tarteka parraldi gozatsuak. Zeatz esateko ollar-jokoa zirudian. Bi lagun, bi gizon, esan dezagun orain,

alkarri itzez nork min geiago eman, beste asko-  
en erdian. Batzun-batzuek erlojerua zuten parrar-  
garri, beste batzuek, Antonio, ta geienek, uste  
detanez, bata-beste. Askotan gertatzen dana:  
berritxukeria asi ta azkenean asarretuta buka.

Oraingoan Antonioren txandan zan; baño  
egia bein erlojeruak «*iy'itoan*» atera zuala ureta-  
tik burutik ondo —eta zankoetatik ere ez agitz—  
ez zegoaneko batean. Bera esker oneko mutilla,  
artutako ondasunaz ez zan aztu-erraxa, baño  
iñori on egiñak atabalarekin adierazteak ibazi  
guztiak galtzen ditu. Berekikoz zion: —«berritsu  
arraioa!». Lenengoz belutu zan, gutxietsi zuten;  
baño bereala konturatu arek, batez ere, esan nai  
zionaz. Ez uretatik atera zualako bakarrik, moz-  
kortuta zegoala esateagatik. Ta bata oraintxen  
eskerrak emateko aukeran ez bazion esan, bes-  
tea ezkerrez jotzeko, bai.

Ta iñori tarterik eman gabe bere barren nai-  
gabetuarekin erantzun zion:

—Katuak buztana luze, besteak bera bezela-  
ko uste. I bezela, bide-erdian zerraldo, bizikleta  
aldamenean lo topatu indutenean goiz asko.  
Logaleak barrik ez dik egiten ori. Asko dek, ala

ere, gurdi kankarren bat gañetik ez pasatzea. To, ez litzakeek gauza aundirik galduko. An izango ukan istillua zagra ala kristaua lertu ote zan jakitea.

«Sesiotegi» ondolik zijoakean guztia ikaratu-ko zan an bat-batean sortu zan ler gaiztoko algararenekin. Erlojerua arpegia gorrituta sugarretan jarri zan begiak diz-diz, besoak aurrean, barren-go amorrak ezpañetako aterabidea naikoa ez balu bezela.

Juantxo ez zan, noski, par gutxiena egiña. Irriarekin xigarroa ezpañetan eutsi eziñik, maia-  
ren atzean zegoan etxeko neskatxari alderatu zitzaion. Lasa-lasai tira zion poxpoloari piztutze-ko ta txinparta bat nesvari burura joan.

—Ene! Nere ille gaxoak, ia suak artu ninduan!

—Barkatu, orren usterik ez nuan. Baño zure ille ederra ez kizkaltzearren edozer egiteko egingo nuke. Batetik zuk alako ondasuna galtzea ta besterik ni galera orren gille izatea, nere bizitza guztiko damu bizia nuke —jarraitu zuan Juantxok ordañez zurikatu naiean.

—Zer egingo zenuke bada, esan?

—Zer? Lenbizi nerer txamar au kendu ta zure buru guztian bildu, aalik eta aize bearrez su itzali arteraño.

—Eta txamarrak su artuko baluke?

—Ba orduan —Juantxo parrez— nere bi besoen artean estu-estu egingo zinduzket.

—Utikan! —izan zan neska mutilzalearen azkeneko itza.

Esan degunez guztiz asarretuta arkitzen ziran Antonio ta erlojerua. Une onetan lerdea zerioten bieri abotik beera zakur amorratuen gisan. Ta bere jabeari tarterik eman gabe, Antonio Letxakoak, pilarmonika kendu ta besoekin buru gañetik atzeraka altxata, indar geiago ematearren sabela borobildurik, bazijoakion kolpea tiratzea. Baño, zoritxarrez, Juantxo neskarekin jolastutakoak arpegia besteengana biurtzea, izugarrizko kopetekoa eman zion musika-kajarekin. Onek, Pirmin baño azkarragoa, berealakoan berebiziko ostiko batez, atze aldean jota, ordaindu zion; eta besoak atzeratuta uztai egiñik zegoala, ez erori, ez zutitu, ostikoaren indarrez zuzenean joan zan tankera artan erlojeruaren gain, nai ez bazuan ere. Ta irurek, bakoitzak bere

aldetik, lurra jo zuten: pilarmonikak, Antoniok eta erlojeruak.

Juantxori odola zerion kopetatik beera. Tiratzen duanak soka, entzuten du danga. Pirminek musika galduta umore ona ere bai ta Antoniori ostikoz erazota, lurrean etzanda zegoala, ikaragarrizko moltzoka jo zion, aalik eta aietako ostiko batean oña txamarraren sakelan sartu ta bera ere erlojerua zegoaneko ondoan erori zan arteraño. Onek, Antonio zualakoan, izugarrizko kinkiñarroak pasatzen zizkion, ta Pirmin-ek, erlojeruagandik zetorkionaz konturatu gabe, ta piztia bezela suminduta, zankoeri eraginda, lurrean luze zegoala, jo ta jo ari zitzaion ostikoz Antoniori, bultzatakoan mai azpira sartu zuala.

Erlojerua bere okerraz konturatu zanean Pirmineri lagata mai azpian zarrapoka sartu zan, Antonioren gañean jarri ta ebain-ebain egiteko asmo onarekin. Pirmin ere gañeratu zitzaion Antoniori. Lengo lantegiari ekinda azpikoa txikituta ler egin bear zutela zirudianean, piztutzen da Pirmin, joan danekoaz gogoak emanda, ta bizkar atzetik zeukala erazotzen dio bere aldiko erlojeruari ezker-eskubiz iñon diran zartako gor-

diñez. Erlojeruak bere burua larri ikusi zuanean, iges egiteko asi zan eta alako kaskarreko lazka-garria eman zion mai-barrenari, berau irauli ta gañean zeuden ontziak botata ontzitegia apurtu.

Etxekoandreak, aurrenekoz pilarmonika aidean ikusi zuaneko deadarka asi zana, orain ontzien otsarekin batean karraxika bizia atera, orrez gañera, aulkian exerita zeudenak aulki ta guzti erorita atera zutena. Au guztia, banoan, sudur zintz bat egin orduko, begi itx-idiki baten bitartean gertatu zan. Irridun idurikoak zurikail biurtu. Pirmin eta erlojerua jo nai zituzten. Auek, orain alkarrekin, arpegia eman. Nagusia ere sartu zan iskanbillan. Bai sarrerako mallak damutu ere! Emakume geiago jetxi dendara. Ta alako zarata gogorra zortu zan iñork zein jotzen zuan ez zekiala; bada alkarrekin naspilduta kalte egiten zioten batak besteari, ta zartakoak ematerakoan bidalitako tokira iritxi ez eta tartean artzen zutena jo. Ijito auzia baño nastuago zebil-tzan. Gizon batentzat errezagoa zan artakoz, ostikoz ta irañezko zurrungillo artan sartzea ego-nean begira egotea baño. Pilarmonika gaxoak, begi batzuk gutxiagotuagatik, bere bizi guztian

ez zuan ikusi uralako dantza pizkor eta kemen-  
dunik.

Maiak, lurreratuko egurrezko zaldia ematen  
zuan. Antonio, zan bezin luzea edo geiago,  
etzanda; korderik gabe zegoan oraindik. Edota,  
guk uste degunez, kordea zetorkionean loak  
artuko zuan, ain luzaro zetzan lurrean. Eroritako  
aulkiarekin batzuek eta besteak estroposo egin-  
da, baten batek arpegiarekin oñetakoak topatu  
zituan beerakoan.

\* \* \*

Irakurleak barka benaza onen ondorengorik  
ez badakit. Nik oraintxe gogortxo ari zirala igarri-  
ta ospa egin nuan iskanbil artatik eta sekulan  
«Sesiotegi»ra biurtzeko asmoa artuta daukat,  
naiz eta «Sesiotegi» izena kendu ta «Goxotegi»  
jartzen badiote ere.

Nere ustez, gu bein edo bein lozorrotik doi-  
doi esnatua, leioa oi-ezko tokira aldatu dala ikus  
iruditu bezela, alatsu zabalduko zituan begiak  
Antoniok ere, zentzuko ariak naspillaturik.



## IV

# JAI-EGUNEZ AURRETIK

Egunez aurretik asi zan jendea etortzen Usaurin. Gu bertaratu giñaeen, arratsaldean, Kale Nagusitik barrena eguzkiak oraindik ere argi egiten zuan eta, aurreko egunak euritsuak izanarren, egualdia oso itxura ona ari zan artzen. Usauritarrak pozik zeuden, bada.

Ez aspaldiko urteetan bezela, ez zan zaldiki-ko gurdirik ibilzen. Ta erritik geltokiraño-ko bide luzean, tren bakoitzari zai egoten zitzaion automobil berriak, azkar asko egiten zituan joan-etorriak, aalik eta jetxitako jende mordoak zatikatika artu ta toki bat ustu ala erria betetzen zuan arteraño.

Enparantzan, goiko leioetatik, beetik eta nondik nai oso arrera atsegiña egiten zieten etorri berrieri. Orduntxen asten zan, bada, jende gutxi ala asko etorriko ote zan jakiteko garaia: zenbait egunez aurretik ostatuan lekua eskatu zutenak, bein eta berriz etortzeko esanda bideratu ziran lagunak, urtero etorri oi ziran ezagunak, dantza

zale guztitakoak eta kupel gorri *barkilleroa*. Onek kaxa bakarrarekin egiten zuan: geltokira-ñokoa (berak bakarrik zekian tokitik), geltokitik errirañokoa (sei errial onuntzkoa), beste ainbeste arakoan eta bost eguneko bizi-modua.

Arrai pila dagoan tokian ogi puska bota eta lenbizi iges ta garo biurtuta guztiak batera koskaka aritzen zaizkion bezela, era berean, Pidelen tarranta berriak zubia pasa ta Kale Nagusitik plazan azaltzen zanean, jende guztia alderatu egiten zan eta, bein geratuta, alkarren gainka, etorritakoeri jeisten utzi bearrean, baziruditen ton-torreraño zetorren tarrantan igo egin bear zutela.

Saskiak eta loturak eskuetatik zintzilik azaltzen ziran lenengoz; gero, emakumeak buruak makurtuta ta neska gazteak eta mutillak alderdi guztietatik; gure «*barkillerua*» sapaiatik beera jetxi zan eta jetxi zuan bere kaxa, bi kurpil erantzita bera ere bakarrik ibiltzeko naikoa zana.

Guztiak alkartuta an izaten ziran ongi-etorriak, esku-estutzeak eta, baldin baserritarrak ez baziran, muxukak neskaen artean. Zegoaneko

etorri zan jendetza polita! Zer izango zan aurrengo jai-egunetan?

Alako batean ikusi genituan igaz ere izanda-ko Mirele, Elizondokoa, ta Margarite, amairu urtekoa, bere aizpa baño bost urtez gazteagoa. Josunek, ostatuko alaba zarranak —gaztea ala ere— gogoz artu zituan bi adiskide maiteak. Eta onela, enparantzaren erdian, kolore askotako soñekoekin, arratsaldeko eguzkiak begiak erdi itxutzen zizkiela, polito baño polito ematen zuten Usauri ta inguruko alaba lirañak.

Ester, Donibanetik etorria. Bittorirekin batu zan: auxe zan erriko neskarik politena, baldin, ainbeste neska politen artean, geiena nor autatzea erreza izango balitz. Iruindik etorritako Karmeleri erriko sendalari gaztea elkartu zitzaion.

Enparantzaren bazter batean, «Tukulu»eneko ta «Gaztienea» ardotegien bitartean, gizon eta mutil gazte pilla eder bat zegoan itzalean.

Gizaseme guztien artean bazan bat ango jarduneri aditzea egiten ziona, baño bere burua aiengandik urrutitxo zegoena. Bazkalondo zeroztik urduri xamar zegoan gure mutilla. Egun

ura etortzeko gogoz ain luzaro itxedon zuan gazteak —oraintxe garaia zetorkiola— bere larritasuna baretzearren giza artea billatu zuan. Andik ederki ikusi zezakean berak nai zuanaren etorrera ta, tartean iñork ezereen itxurarik susmatu gabe, gogoak ematean azalduko zan.

Ta oraintxe Mirele ta irurak pixka bat aldendu ziran, Martin (au zan mutillaren izena) abiatu zan. Beintzat, Mirele etorri zan aurten ere ta azken egunetako kezka aienatu zituan. Martin bildurtu xamarra zijoan, eta ez da arritzekoa, ajol aundiko gauzaren bat iritxi bear degunean uts txikiena egiteko oso bildur aundikoak izaten gera. Martinek barrenen zerabilkiana jaso aundikoa zitzaion, eta, ainbestetan asmoak artuta, orain atzeratuko al zan, bada? Ez, berak bazekian igaz abegi ona egiten ziola, eta oraingoan begitarte txarrik jarriko ez iola uste osoa zeukan. Igazko Martin zala ikustean, arek eramango zuan poza! Ez ikutuaren itxura egiñarren, berak igarriko zion.

Ongi etorria esanarekin batean Martinek eskua luzatu zien, bai Mireleri ta bai Magariteri. Neska biak legez erantzun zioten eta baita ongi

arkitua eman. Ixildu ziran. Bereala igarri zion mutillak berak usteko arrera ez iotela egin. Zerbait geiago esatera ausartuko zan.

—Zuek emen ikustearekin oso poz aundia artu det... —eta aurreko urtea gogoratu naiean— igaz bezelako egun ederrak izango al ditugu aurtten ere.

—Eskarrik asko —ta ixildu ziran.

Mirele ez zan iñori arpegi txarra jartzeko neska ta guztiekin beti adeitsua izanik edozeñeri zor zaion begitarte ona ta bear bezalako arrera egin zizkion mutil gazteari. Martinek oriek guztiak bazekizkian, eta orretxengatik bere barrena ez zan naikotu; berak uste zuana ez zuan ikusi ta itxuraz poto eginda, gaitza zitzaion tankera ura, ta aalik ondoen irtendako tokira biurtu zan.

Ene, Martinen ustearen okerra! Urtebetean uste osoan egon eta barrenen arra. Urte osoan etortzeko zai egin eta itxoegitearen ordain ustela. Erabatez, atzerako gogoeta guztiak azterkatu zituan, ea naspilla noiztik sortu ote zitzaion. Arakatu zituan asieratik bukaerañokoak eta atzeratik aurrerañokoak. Ta orduraño ez zan konturatu

arian-arian bere gogapenak zenbaterañoکو اundasuna artu zuten. Orduntxe igarri zion nai ez zuana baztertu ta atsegin zitzaionari toki ematen ziola, eta an gogozko gauzak neurria autsita amor ematen zutela. Baño bere asmotan oker egon bazitekean ere, tira, joandako jardun gozokak eta batez ere aren agur pozkarria egi-egia izanda, etorreran beste ainbeste iruditzea, alako txorakeri aundia al litzake bada? Edozeñek bere lekuan ez al luke ori bera sinistuko?

Martinek bere usteetan ariñegi ibilli zala, aitortu zion bere barrenari; baño egia zan orobat asmoak len bezin gordeak euki zituala oraindarañoan eta, gordeak gorde, ez miñik, ez neke. Oraintsu itzegindakoaz ezin asarretu. Beraz, Mirele zan aldatuta zetorrena. Ta orduraño itsututa bizi zan mutil gizajoak, bertan zabaldu bi begiak. Igazko kabian aurten txoririk ez. Neska begien pozkarri ura Usauri ta bere inguruak utzita arras aztu zan gure mutillaz. Jaio erriak ez zion Martinen oroipenik gogora ekartzen, ezertxo ere. Agian, bitartean, besteren batekin edo bat baño geiagokin jolastua izango zan.

Artean Martinek urte osoan urte osoan! irau-  
n zuan berriro ikusteko gogoarekin. Oroipen bigu-  
ña zana agitz samurtu zitzaion. Usauriko bazter  
guztiek maiz asko gogoarazten zizkioten neska  
lerdenaren egonaldiak, neska lirañaren ibillial-  
diak eta alkarren itzaldiak. Batez ere, Usauritik  
geltokirañoako bide arek!

Azkeneko eguna zan. —«Nik Donostiara joan  
bear izan nuan», bere buruari asi zitzaion Martin.  
—«Mirele Elizondora zijoan amarekin. Irurak  
batean alkartu giñan, Pidelen tarrantan. Mirele  
ta ni aurrez aurre kanpora begira; aren ama nere  
ezker ondoan. Itztxo banakakin asi nintzaion.  
Izketaratu giñan. Batzuetan bereganatu ta ixilla-  
go esaten nizkion nere gogozko gauzak, batez  
ere norbait oju ta zaratan ari bitartean. Bideko  
arkaitz bakoitzak oroipen bat dakarkit burura».

—«Baño nik diotana egi utsa badan ala ez,  
onetxek emango digu neurria. Amari tarrantan  
ibillita itsas-miña deritzaion naigabe edo ongi  
egoneza etorri oi zitzaion; baño egun artan, naiz  
bildur izan, ondo baño obeto zijoan orduraño-  
an. Mireleri, nerekin zerbaitxo itzeginda, amari  
zeozer esatea otu zitzaion eta,

—«Oso pozik zaude, amatxo —itzegin zion».

—«I bai pozik agonala —berealara erantzun zion amak».

«Egia esan lotsatu nintzan. Al nuan nik uste ona izateko motiborik?»

Ta gogoeta auetan zegoela apaltzen ari zan ere. Kaxilda bere arreba ta biak aurrez aurre ari ziran arrats artakoa egiten. Anaia-arrebak baka-rik bizi ziran etxe artan. Gurasorik ez.

Arratsa zan, bada, ta etorritako guztiak enparantzaren erdian utzi ditugu. Ez; guztiak garaiz etxeratu ta nik uste Martin eta Kaxildarenean bezela besterenetan oeratu aurrekoa egiten ariko zirala.

Alatsu izan zan Usaurin jaien aurreguna ta alatsu izan oi da beste errietan ere. Jendea jaietara etortzen da ta etorritakoak berek egiten dituzte jaiak. Bertakoak bakarrik ikusteagatik ez lirake joango. Artean, dijoanari berdin zaio an topatuko dituanak bertakoak naiz kanpotarrak izan baldin poza ta atsegiña izango badu. Beraz, errian bertan gutxitxo dago ta guztiak besteen aitzakiarekin joaten badira, berekin daramate jaiak.



Gañerakoan, errietako jaiak urtearen egun alaiak izaten dira, oroigarrienak. Onelako gertaera bat noizkoa izan zan aiderazteko, edo jaien aurretik ala jaien atzetik, edo aurretik urrun ala atzetik alde, esan oi dute. Urte zar eta berriaren muga berberak ez du orrenbesterañoko oroi-indarrik, ez da orren aipagarri.

Gazte gixajoa erriko jaietan eri dagoana! Ez da penagarririk irundar gaztea Samartzialetan gaxorik, Iruñara Sanfermiñetan gaiztun ala usauritarra Sanjuanetan oean ikustea bezelakorik.

Gauak, beraz, Usauri oso-osoa artu zuan eta erriko ate guztiak itxita zeudelarik, gizaseme zenbaitzuk, etxetik at, enparantzan gelditu ziran, alkarrekin jolastu ta astakeriak egiteko.

Gauerdi erdian izandako mutillen dantza, alkar jotze, oju ta algarak ez ditugu batere aipatuko. Baño auzko muturratik illunpean besteen artera ogi ta jaki zetozen bi aiengatik, bai: erlojerua ta Antonio, oraindik amabost egun ez asarretu zirala, arras aztuta, askotan bezela, adiskide mamiak zetozen.

Erlojeruak ixilka zionez Letxan, Ibaiotxen, Bedoyan eta Usaurin saldu bear zituzten fonografuak eta josteko makinak!

Ta fonografua aipatuta, «Sesiotegi»ko pilarmonikaz batere gogoratu ez!

# V

## DONIBANE

Ez da alaigarririk musika bezelakorik; ez da, ez da t'ez da. Musikak ez du bioztarrik ematen. Musikariek soñu poztun bat jotzen dutenean gure izate guztia aldatu egiten zaigu, gure barrena lasaitu ta gu, ustegabeen geundenak, bat-batean txospertu egiten gera. Soñuak egoak ematen dizkigu ta gorputzak bere pixua galtzen duala-edo dirudi; entzumena ta biotza bakarrik gelditzen zaizkigu ta an sortzen dan atsegin gozoa! Batzueri, ala ere, belarri-zulotik oin-muturreraño sartzen zaie dar-dar burrundara ta zankoeri jokoan eregiten die.

Orrengatik, goizeko zazpiretan *pasodoble Rada* joaz musikarik Usaurin atera ziranean, erri guztia aidean jarri zan. «Tukulu»eneko neska-meari ontziak eskutik erori ta lertu lurean. Bera beintzat erori ez zedilla, ontziak ontzi.

Bi bider edo geienaz irutan, urtean, izaten zan musikarien otsa Usaurin. Oraingo onek berri onak zekazkian: erriko jaiak, soñeko berria,

meza nagusia. Batzuk kalean arrapatu zituan; besteak oean etzanda, esna, ta gañerakoak — ondoen-ondoenak— otsak esnatu zituan. A zer esnatzea naiko lo eginda soñuak esnatzen ditua- nena! Ta zer atsekabea soñua urrutira gutxitzen danean! Ez da alaigarririk musika bezelakorik; ez da, ez da t'ez da.

Beeko kaletik goiko kaleraño, zubi aldetik pelota-plazako atzeraño, musikariek aguro eman zioten erriari bira osoa, gure erria ez bai-zan erri aundiak bezela irteziña ta erritarrek alkar ezagu- tzen ez dutenetakoa. Musikariak abian asita guz- tia mugitu zan, erritarraz gañera sukaldeetako zartagi ta ontziak, eta onelako garbiketean, abian ezik, laxterrean asi zitzaion edan-ontzia «Tuku- lu»eneko neskameari.

Ez degu esango musikari goiztiarrak onene- takoak ziranik. Egun batzuk bakarrik saiatuta naikoa ta geiegi egiten zuten. Orrez gañera urte guztian ez zuten txanponik irabazten. Ta erriko jaietan dantzagarriak alajaña! mutil gazte aiek jo bear.

Amar bat lagun izango ziran musikariak, auzokoak, eta ondotxo bizi ziranak geienak.

Orrelako eginbideetan an ez da iñor lotsatzen erri aundietan bezela. Aberats baten semea zan guztien aurretik atabala joaz zijoan mutil kozkorra.

Esan dezagun, bada, pelota-tokiko arrietatik kanpora lur gorrizko toki zabal bat zegoela. Zabal ura, eliza-atze, «Gaztiene» ta «Tukulu»eneko enparantzarekin batera zetorrela; beraz, zabalgunde polita. Lekune artatik kanpora ez zan jolasik izaten. Lurrean sartuta tantai tenteak jarri zituzten pelota-plazan, muturrean bandera bana erantzita.. Musikarien jo tokia ere gertu. Urtero-urtero gorde-tokitik olak atera ta jartzen zuten; ostera jaiak pasatu olak askatu ta urrengo urterañoiko itzalpea. Jo-tokiak ez zuan estalperik; ezta bearrik ere. Dantzariak euripean aritu eziñean zertarako jo? An musika ta dantza beti alkarrekin ibiltzen ziran,

- «baileak eta soñu ederrak
- »engañaturik gabilta
- »animarentzat kaltean dator
- »gure munduko bizitza».

Argi-konturako erlojeruazuten mutil.

Tarteka-tarteka, geiegi ez erretzeagatik, erriko txinelak txibirisko bat edo beste botatzen zuan.

Karmelek bere karta bukatu zuan. Karmele Josuneren adiskidea zan eta onek deitura jaietara etorria. Bai ba, Josune Iruinera joanda Karmelerenean egona zan. Josune azken-aldian maiz joaten zan Iruinera agiñak antolatzeko. Gañera ortzalari-dentista gogo betezko gaztea zitzaion...

Karmelek auxe idatzi zuan:

«Ene guraso maiteak: Oso ederki etorria natzaizute. Erri au ondo arkiturik nago. Josune adiskide ona det. Arratseko beatzietan apaldu nuan: baatzuri-zukua, bi arraultza tomateakin (oliotan igari), saieskia piparrakin ta mai-azkenez gazta ta sagar gaziak. Ardo naparra, oso ederra. Ez det esan nai ori guztia jan nuanik, ori guztia ekarri egin zidaten. Naiz nere gustoko jana ez izan, baliteke emen jateko gogoa etortzea, ustea ala daukat jarria.

»Danetatik zerbait jakin dezazuten, emengo jan-gelan zoko-apalategi bat dago, lengo modu zaarrera, iru kuadro almonedaetan ikusiten dira-

netakoak, etxeko jendearen beste bi erretratu ta Españako erregearen irudi bat erregetu berrian. Ni etorri-berrian geldik zegoan erloju-zintzila, etxekoandreak ibilliazi dio.

»Oean sartuta ondoratu egiten naiz. Ta ateratzen duan soñuarekin ba dirudi neri min eman bearrean oek berak saietsetan min artzen duala.

»Ala ere lo ederki egin det. Elizako joaleak din-dan tristia ari zuala loak artu ninduan. Esan didatenez gauean istillu gogorra ibilli dute enparantzan emengo mutil gazteak. Nik ez det bate-re nabaritu.

»Orain mezetarako gertutzen ari naiz nere burua. Arrituko ziñateke: meza nagusia amaiketana da.

»Emen, ordua aurreratzen danean, ordu bat atzerago izaten dira mezak, bazkariak, bezperak eta danak.

»Azkarrean nabil eta agur, urrengoarte. Mun sendoak nere aita ta ama on orieri.

Karmele».

Amaiketan, bada, meza nagusia. Iñoiz baño txukunago zebillen jendea: zarrak eta gazteak, neskak eta mutillak.

Ayuntamientoa gertu zegoan eskaratz zaba-lean. Musikariak ere bai, kolean; ta bakar-bakarrik bandera jeisten palta. Gizon batek atera zuan bigarren bizitzatik, lenbiziko bizitzakoari eman eta onek bere aldiko kalekoari egokitu. Antzin-antziñatik era onetara ateratzen zuten guztien aurrean.

Zuzendariak aginduta musikariak asi ziran eta jarraigoak elizarako bidea artu zuan: lenengoz musikariak urren banderaduna ta azkenez ayuntamientoa alkatea ta mugazai-nagusia buru zutela.

Gu kale Nagusiko eskalleratik igo giñan elizara. Gure ondoan geneuzkan emen izendatutako geienak. Bertan bizita ondo ezagutu bear.

Martin ere ikusi genuen. Goizeko musikarien soñuak esnatu zuan au ere, ez naiko lo eginda ordea. Lelengoz Mirele etorri zitzaion burura, ezin bada burutik kendu. Aldizka asarre zitzaion eta itz gogortxoak esan ere bai, neska «aldakor»



ta «buru arin» arengatik; bestetan ezti ta leuna,  
«on-utsa» ta «polita» zalako.

Maitea itsasoan  
ontziz  
zijoan.  
Ni aren atzetik  
ekin  
urean.

Urrundu ta laister  
galdu  
zitzaidan.  
Ta ni ler eginda  
ito  
bidean.

Azkenez bizitu zan eta gallendurik Mireleren  
biotza bereganatzeko asmo sendoa artu zuan.  
Orrengatik orain, mezetarakoan, ezikusia egin  
zion, ez baleki bezela, baño neskak bera ikuste-  
ko aukeran, onela Mirelek ez zion igarriko barre-  
nen zebilkiana ta artean Martin ikusiaz, bene ta

txintxo, aurreko urtea gogoratuko zitzaion, bera-ri maizegi, sarriegi, gogora zetorkiona.

Oraingo aldian korora joan giñan meza nagusia entzuteko. Bete-betean zegoan eta mugazai asko. Kantari-taldea ere gertu. Zoko batean, erriko mutillek «Kuku» deitzen zioten agure xar bat, burosoil eta elbarritua, lo zegoan. Apaizak azaldu ziranean, itsu aurrekoen gisan laguntzen zion gizonak ukalondoan ikutu ta «Kuku»k bereala erretuta iru bider segituan egin zuan gurutze santua.

Meza asi zan eta kantari-taldea ere bai. Oraingoan iru apaiz zeuden aldare nagusian. Kantarien artean ezagutu genituen goizeko atabalari txikia, sakristaua, erriko sendalaria ta organista bera ere; onek eskuekin jo ezik (eta oñakin ere) kantatu ere egiten zuan goizeko musikariekin zuzendari ta zanpa-jotzalea izanaz gañera. Soñu zoli ta biziien magalean, belarri-barrena batere urratu gabe, loak artu zuan «Kuku» eta... bere laguna ere bai.

Donostiatik kantariak ekarri zuteneko urte artan ezik, iñoiz bezelako meza nagusia izan zan

Usaurin. Batere sermoirik gabe ordubete ta laurden iraun zuan meza nagusiak!

Onuntzean jarraigo berbera Erri-etxeraño, alkatea ta mugazai-nagusiaren erdian erretore jauna artuta.

Bandera jetxi bezela igo zuten.

Sanjuanetan alderdi artan jai egiten zutelata, lenbiziko egunean bestetan baño askoz jendetza aundiagoa izaten zan. Bazkolondoz geroz inguruko erri guztietatik asko ta asko etortzen ziran Usariko jaietara. Baño batez ere ots eta zaratarik aundiena ekartzen zutenak, iruindarrak, beren motozikleta automobillekin baztar guztiak arrotzen zituzten. Gizaseme ederrak, mardulak, errietako jai guztietan erriz erri ibiltzen ziran, erleen gisan lorerik lore. Errietako jendeak begiak borobilduta artzen zituan.

Guk ezagutu genuan mugazai batek, espaldiko urteetan euskaraz bakarrik esaten ikasi zuanak, orien izate ta ibilleraz arrituta ala zion (erderaz): «—Jende au ez dek gure errikoa (andaluza zan). Alajaña, mauskutsik, zigarro aundia ezpañetan eta kurpillen soñua sakelan. Motel, nere errian ez ditek alako zigarro puska ta

orrenbeste dirurik ibiliko, ez, pezeta bat geienaz eta ura txanponetan, ots geiago ateratzeko, baño mutil gazteak “Kurro” ibilli txamar txiki ta estuarekin, ibillera oargarria, besoak zankoekin batera, orixe, bai».

Ta ala zan. Gure mutil sendoeri berdin zitzaien maukutsik eta burutsik etortzea, baldin pilarmonika berekin ba-zekarten beintzat.

Aiek enparantzara iritxi ziraneko «Gaztienea»ko aurrean eta «Tukulu»enekoan aulkiak eta maiak jarriak zeuden. Ta aiek etorri-berrian bateko maiak artu ta besteko aulkiak artu, «Gaztienea» ta «Tukulu»k bat egiten zuten.

Erlojerua orduntxen azaldu zan «Gaztienea»ko aldean oetik jaiki berria; ez, ordea, eguerdi ondoko lo-kuluxka eginda, arratseko lozorroa egunez etzanda baizik. Ez zuan bazkaldu, ezta nai ere. An ziran, ezagunen artean, Antonio, Juantxo, Manuel eta Paulino; au erriko gizaseme gogorrenetakoa zan.

Maiak edariz beteak zeuden. Izketa-jarioa, par-algarak, botillen askatzeak, mai artetik ibiltzea ta bultzatzearekin, naste-borraste orrekin, erotu egin bear, erotu. Neskameari «Joxepanto-

ni» jarri zioten izena iruindarrek, ez Joxepa ta ez Antoni ez izanarren. Ez zuan lan makala eraman! Plaza berrikoak ezetz orrenbeste jirarik egin iñongo aldetara.

Erdera ta euskera nastuan zebiltzan. Guztiak itzegin naiean iñork entzuten ez. Ta deadarka airtu bear. Batez ere gangarra ondo bustita gero. Alako batean, orregatik, pilarmonika-soñuak aizea urratu zuan eta bat-batean geienak ziran kantari. Onetan iruindarrak ziran nagusi. Berek ekarri zuten soñularia ta beren gogozko kantak kantatzen zituzten. Aldizka bat utzi, beste asi. Tartean bateren bat parragarri. Ajola gutxikoak baziran aien artean. Edozeñen aurrean sendo itzegiteko bildurrik ez dutenetakoak, aien aldean ezagunik ez bada ere. Urrena donostiarren kontrako kanta bat asi zuten. Ezin bada aztu.

—Obe lukete donostiarrak bezelako jokalaria onak balira—, norbaitek leize zulotik itzeginda bezela esan zuan.

An zegoan, bene-bene, Antonio, beñere itzik atera ez zuana zirudiala. Artean bera zan aboa zabaldua. Noski! «Babo arraioa» —esango genioke— iskanbil sortzalea orain ere. Bere lagu-

nak bildurtu ziran. Ez zioten entzun. Batek bai, begiratu zorrotza egin zion. Ekaitza bazijoan lertu gabe. Antonioren lagunek onen buru gañetik ikusi zuten igarotzen. Egualdia baretu.

Ta zoko ura zoramena ba-zan, pelota-tokia poliki asko zegoan. Arrietan pelotan ari ziran; lurrezko zabalgunean, egurazten, eta bien arteko zerrenda bat gizon pelotaka ikusten.

Usauri ta inguruetako neska panpoxak! Arpegi alaiez betetako tokia zan ura. Aruntz eta onuntz bazebiltzan gazteak.

Oraindik ez zan musikako garaia ta bitartean eguraztokia jendez beterik. Barkilleroaren txirringa arratsalde guztian ari ta ari. Neskak, txortak egiñik, besotik elduta. Iruindar batzuk exerita egoten aspertuta jendearen artean zabaldu ziran.

Bazan bat burutsik eta maukutsik —gizase-me sendoa ala ere— begiak diz-diz, zenbait ikusleen erdian amaika tentelkeri esaten ari zana. Betetxoa egoki ta lendik ixilinetakoa izan ez eta orain itz-jario zebillena. Bere menez ari zan izketa; bururatzen zitzaizkion txorakeri guztiak abotik esan, iñoren aurrean eta urrutitik entzuteko

eran. Bere inguruan bilduta nesk-amutil asko zeuzkan, aundixeagoak ere bai; parragarritzat zeukaten eta ergel-papera nola egiten zuan ikusten. Zer esana ez zetorkionean ikuslen batekin asten zan. Au lotsatu ta beste guztiak areri begira. Ta onela lolo utsa egiñik bazebillen arte artan. Beste batean prantzesak peritan oi duten bezela, deika asi zan piztizarrak erakutsiko balitu bezela:

Entrez, passez, pour voi  
«toutes» les animaux:  
l'âne qui danse,  
le cochon qui chante,  
la gallina «purra-purra»  
l'ours et la «txakurra».

Uralako kankallua adi-eziñeko gauzak esaten entzun ziotenean arritu zitzaizkion ezpañetan zer naste ote zerabilkien; ta prantzesen izkerari antzemandan, par egin bear «la txakurra» esan zuanean.

Antonio, ordea, bertan zegoana, ezin ixillik egon.

—Prantzesez tutik etzekitek eta beren buruak prantzestzat egin nai muga-ondoan bizi diralako; artean oriek prantzesez nik latinez baño gutxiago zekitek, aisa.

Esana esan, tiratzen dio iruindarrak muturrekoa —len begiratu txarra egin ziona izaki— ta, edo neurria gaizki artu ala Antoniok burua makurtu, orain ere ekaitza buru-gañetik alendu.

Nork esan bear, Juantxo ta erlojerua Antonio-ren aldez! Jarri ziran tarteko ta egiñaalean galazi zioten iruindarrari jotzea. Aldizka bazirudian biak bota bear zituala, alako sasoi oneko mutilla zan orduraño ergel utsa zebillena; orain, ordea, bere kemen guztiaren jabe, ez zuan ematen burutik gaizki zegoanik.

Antonio, kopeta illunduta, bertan gelditu zitzaion, Gibelaundi urkapean baño lasaiago. Tartekoak, kanpotarra baretzearren, aitzaki guttia Antoniori ematen. Alegia ez jaramonik egiteko, iñorengatik txarki mintzatzeko grin txepela zeukala ta bein baño geiagotan «no quiero»ko ederrak artua zala, ezertzat uzteko. Baño bereala iruindarrari lagunak etorri zitzaizkion eta baita



besteeri ere. Ta len Antonioren arlo bakarrazana, une onetan guztiak alkarren kontra jarri, asarrean iruindarren eta usauritarren aitzaki berriak sortu zituztelako. Pelotakari utzi zioten, enparantzako jende guztia bildu zan, itzak eta itz gogorrak nork jaso aidean: «—Betor onera. —I ez aiz gauza. —Jo ezak!», ta eskerrak Paulinoren etorrerakin aurkalarien indarrak berdindu edo Antonioren aldera geitu zirala, bestela ezin geia-goan batzuen batzuek julipa ederra artuta egon bearko zuten.

Naiz izkanbillak orren itxura txarra artu, uste baño lenago paketu ta andik pixka batera jendea len bezin lasai asi zan. Urte artako jaiak utsagatik ez ziran ondatu. Ta guztia Antonio «babo» zala-ta.

«Tukulu»eneko baztarrean emen aipatu ditugun neska geienak edo guztiak zeuden mordo batean: Josune, ostatuko alaba, zutik ate-ondotan, ta Karmele, iruindarra; Mirele ta bere aizpatxoak, Elizondokoak; Bittori ta Ester, donibandarra. Martin ere an zan eta gure konturako zer ikusi ez duten beste usauritar gazte batzuk. Batzuk eta besteak exerita, len esan degun

bezela, mai eta aulki aietan, mutillen eta neskaen artean bear bezelako tarte zegoala.

Mutil gazte aien artean guzitakoak baziran: izkirimirizalen bat, silla okerreko aldera jarrita bear ez dana esateko adarra ortza tartean artzen duteneko beste: mutil eratsuak, egokiak, aalik eta garbien itzegiteko leiatzen diranetakok, zurikatzaleak...

Arte artan, musikariak asi bitartean —seiak bereala joko zuten— jardun polita zerabilkiten gazte atsegingarri aiek.

Martin bere aria iruten ari zan. Al zuan bezin ongi ta egoki zetorkion guztitan, bere naia Mirelerentzat zala erakutsi nai zion. Mutil apalagorik ezin arkitu, on-utsa mutilla. Nondik bere atsegin izan eta bere din agertu nai. Zein polita zegoan! Ura kenduko balio, arek ezetsiko balio, berak beretuko ez balu, zer gaitz gorria!

Trinketea? «Antxitonea» ederrena (Elizondokoa); kaska motsak baño, mototsak maiago (Mirelek ille luzeak izaki), ta lodixka baño nexka mexka obeto. «Nexka mexka»k par eragin zion Mireleri. Martin zein aldetatik zebillen ederki ulertu zuan Mirelek eta besteren batzuek ere

bai: mutillaren esanak txuxenka zijoazen neska-  
rengana ta, egia esateko, ez zioten batere miñik  
ematen; atsegiña, ordea, bai. Aitortu bear degun  
gauza da Martinek arratsalde artan bere irutegia  
ederki zeramala ta oraintxe igazko an bertan  
alkarrekin egona gogoratuta, orduko sasoi  
berean jartzen ari zan neska. Gizonaren mende-  
ratu-bearra!

Baño une batean an gertatu zanz sinisterra-  
zitzeko ezin asmatu nola esan, batez ere bi  
gazte aiek leialak zirala aditzera emanda gero.

Musikariak bat-batean asi ziran eta Martinek,  
iñork aurrera arrapatu ez zezaion, berarekin nai  
izan zuan Mirele dantzarako. Musikaren otsak  
bear baño geiago alaitu len alaitxo zegoana ta,  
agidanean ariñegi, dantzarako keñua egin zion  
buruarekin neskatxari. Mirelek burua makurtuta  
ez zion deus jaramonik egin. Orduan Martin altxa  
ta bereganatu zitzaion eta dantzarako berriz  
eskatu zionean:

—«Uste al dezu zakarkeriak eder zaizkitela,  
edo-ta, zertzat artu nazu?» —erantzun zion.

Martin otzandu zan, bere adore guztiaren  
jabetasuna bearrekoa izan zuan itxuraz aterako

bazan, eta barkapena ta zor zitzaizkion itz onak esanda berriz ere dantzarako eskatu zion. Neskak ezezkoa eman.

Tximista lertuta bezin zearo ixildu ziran guztiak. Banaka batzuk altxata dantza-plazara abiatu ziran. Martinek, lotsaren lotsaz suminduta, bere exeri-tokia artu zuan arpegiko zimurrik gabe.

Karmelek berekikoz: —Damutuko zain.

Joxunek: —Ederki egiña.

Bittorik: —Tamala da orixe.

Esterrek: —Neri eskatu balit...

Neskameak: —Tuntun alen tuntuna!

Damutu? Kopeta illunduna, burua erne, puxka batean iraunarren, gaizki egiñaren damua bazetorkion. Ta geienak dantzara aldeginda ia biak bakarrik gelditzen ziran alako batean, neska altxatu ta bai dijoakio.

—Nai badezu dantzatuko degu —esaten dio.

Besteak ezetz buruarekin.

Orduan agitz lotsatuta:

—Gizon dan gizonak ez dio ezetzik esaten neska bateri.

—Neska dan neskak ez dio mutillari dantzarako eskatzen.

—Len ezetz esanda agian gaizki egin detelako, nere zorra ordaindu nai nizun.

—Zuk neri lenago ezezkoa eman eta orain nere txanda; orra zorrak kitatzeko beste era bat.

Ene, ene, ene! Zerk eldu zien gazte aieri! Bi bildots borrokan, esango genuke. Gure bizitzan bai dira etxetik atera bear ez genukean egunak eta aiek biak arratsalde artan kaleratu ez balira obeto lijoakie. Baño nolatan sortu zitzaizkien orrelako kemen eta gallenak? Emagun Martin zakar xamar aritu zala keñuarekin, Mirele arroxkotu ta Martin zertzaz mindu bazuala. Baño neska mutillaganatu? Ta mutil zitalak bidaldu? Jesus, Jesus, Jesus!

Utzi dezaiogun denborari bere lana egiten, biotz aiek baretu ditzan, guk ez degu nai aien barruetan sartu. Denborak berea egingo du.

Guztiak plazaratu dira. Ase ta ler dabilta baltsazale naasiak. Martin eta Mirele ezik, beste guztiek bein edo bein alkarrekin topo egiten zuten. Ez batek, ez besteak, ez zuten iñorekin dantzanegin. Obe.

Usauriko neskatxak bazuten arrats artako jakia.

## VI ARRATSEAN

Ez degu esan Josune jaien aurregunean Iruingo ortzalariari zai zegokionik. Ortzat antolatzeke batean izketatu ta aurreko arratsalde artan utsik egin gabe etorriko omen zan; ez, ordea, etorri. Ta naiz Josune asko zekian neska azkarra izan, eta ixil-poltsa baño ezkutuago bere asmoak gorde, ala ere, ederki igarri zezaiokean aren utsak eman zion larria, lenengoz, ta atsekabea gero.

Baño... Karmele ortzalariaren adiskidea izaki ta arek egingo zion idazkia —ta egin ere bai— berez deituko balio bezela.

Ori zala-ta, musikariek beren eginkizuna bukatu zutenerako, arratsaldeko zortziretan, ortzalaria «Tukulu»eneko arrotzetxean zan. Zortzietatik amarretako tarte luze artan nai bezelako lasaitasunarekin apaldu zitekean, amarretatik aurrera zanko-jokoari eragin bear balitzaio ere.

«Tukulu»eneko ostatuan, beraz, jendea bazetorren eltxoa aña. Lenbiziko bizitzan maiak

jarriak zeuden. Itsasaldiak ostatuko atea jo ta gazte-jendeak eskallera gora palax-palax lekune zabala bete. Mai luzea erdian —iru edo lau alkarri josiak—: onenbeste txali, ainbeste lagun tokia. Bai, asieran; ez, ordea, geroxeago soñuaren ondotik etorri ziranekin:

«Lertxunak lerro-lerro  
bidean doazi  
beroaren lekurat  
otzaren igesi».

Baztarreko gelan bost lagun zeuden apaltzen: Iruingo ortzalaria, Bedoyako notarioa, Karmele ta Durangoko senar-emazteak, Ameriketako urteak eginda, etorri berriak. Josunek ez zien lagundu gau artan txotx berriko apaldarrerri. Belarria ikustea nai ez ta burua erakutsi. Orren-gatik, sartu zaneko batean, Bedoyako notarioak, zerbait zekianak, belarriratu zion:

—Ez nau arritzen orrenbeste arretaz zure ortzak antolatzeak. Atzenean dana beretzat izango bai-du.



—Oi ene! —ta musugorri zegoanak marrubi antza artu.

Norbaitek ojuegin zuan:

—Baño adizu, Katalin: ate ori itxi, gortuko gaitzute.

Aldameneko «tropa» berriketa bizian zegoan: platerak, labanak eta ontzi guztiak, gizonen mingañaz gañera, izketa nastua zerabilkiten. Ura eromena! Neskamea, ontziak eskuan, atea idiki bakoitzean, etxea lertzen zala ematen zuan eta ikaratuta uzten zuten beren jardun gozoa gelabarrengok.

Senarrak emazteari ematen zizkion ekarrita-koak; notarioak artu ta aurrenekoz Karmeleri eskeñi. Senarrak emaztea bezin ondo, notario gazteak Karmele zaitu. Iruingoak destaña egiten zion geienean neska gazteari; onek beste ainbeste, eta alkarri zirika beren aspaldiko ezaguerara erakusten zuten:

—Artzan, nai baden.

—Eskarrik asko gizontxo.

—Uste al den beatzak erretzeko gogoia deta-la?

—Gaitza litzake, gazte: ire oñazeak min emango lidakek neri ere; ire odol tanto bakarrena-rengatik, titare añako malkoak itxuriko nizkikek; baño gaitz orrek iñoren agin onak erraietatik kentzea galaziko balikek, poztu egingo nindukek, to.

Notarioak par, senar-emazteak par eta guztiak par; batez ere andreak gogoz egiten zuan irria: —«*Qué gracia tiene la señorita*»— ta ostera irriari erazota bere gorputz lodia dar-dar jartzzen zuan.

Ortzalaria, orregatik, ez zan ase ta beste erantzun bigunagorik abora etorri ez eta auxe bultzatu zion:

—Ire abokoak beintzat, ez lidateken lan aundirik emango —alegia onik ez zuala.

—Ematea bat, egitea beste bat; lan geiegitxo izango ukek aste baterako —berealala pasa zion neska gazteak.

Aparia, beraz, atsegiñez zijoan bi gazteeri eskerrak. Gure amerikanak lenengoa asi ta azkena bukatzen zuan parrez: —«*Caray, ori don emakumea*».

Arrotzetxetan askotan gerta izan zaigu otorduetan guk ezagutzen ez ditugunak aurrean eukitzea. Itzegin nai genuke, ta zer esan jakin ez, edo itzik egiteko gogorik ez; baño iñork guregatik iritzi okerrik izan ez dezan zerbait esatera saiitzen gera. Ta badakigu bein baño geiagotan guk uste txarrez artu genuan maikidea, ez zala guk uste bezin loloa, ezta guri iruditu bezelako adimen kamotza; ezta ere guk susmatu añako zakarra. Askotan, uste ez genuala, gizon atsegin yayoak arkitu izan ditugu, gero edozein tokitan ikusita laguntzat artu gaituztenak. Baño egia da arpegiz-arpegi lenengoz jartzean zer nola ibilli bear degun ez dakigula, ta ontzi batetik biak artu bearra!... zu lenbizi, ni azken. «Ni lenbizi» txarra izaten bai-da zer artu ez dakigula.

Ordea, danetan okerrena bi adiskide ta zu batean topatzea. Badiardute berek beren artekoz. *Zu*, zure irudian, kaxkartu egiten zera. Aiek *zure* izketaren bearrik ez dute. *Zu* aienean sartuko al ziñake? Eta *zu* ixilik zaudela ez al dute usteko *zuk* aien gauzak jakin gogo dezula?

Esan degunez, San Juan arrats artan «Tukulu»eneko ostatuan, baztarreko gela txikian apal-

tzen ari ziran bost lagunek, ederki alkar artzen zuten batabesteak. Bedoyako notario leialak oraindik dar-dar zeukan besoa Karmeleri edon-zian sagardo txinpartuna botatzen.

—Ik diok —Karmele zion— sagardoa Oyarzungoa dala, ardoa Erriojakoa ta arkumea Naparrokoa. Sagardoaz eta ardoaz ezin nizaikek ezere esan; baño au Naparro-arkumea danik ez diat uste. Danetara ere, iru gauz oriek egiztatzzen, orien jatorria ongi azaltzen, naiko lan izango ukek.

—A neska —erantzun zion ortzalaria— «fedea» ez da beñere galdu bear.

—I sinsituna nonbait.

Ta aldamenekoen zarata aundia zala-ta, atea tarte izanagatik, ortzalaria ez zuan ondo entzun aal izan, ta galdegin zion:

—Nor?

—I.

—E?

—I.

—A!

Ustegabeko «i-e-i-a»k ederki jolastu zituan.

—A, motel, izketan aztuko zaiguk —bukatu zuan Karmelek.

Ortzalaria, itxuraz ez yayoenetakoa, bere ogeitasei urteekin iñoren aurrean sendo itzegiteko ajolik ez dutenetakoa zan. Ta maiburu batean jarrita (bestean notarioa), toki arek bere jakintasun kaxkarra zabaltzea eskatzen ziola uste. Ta puskatik puscara, jakiarekin ari zala, bai jateko, bai itzegiteko, erabillialdi polita ematen zion aboari. Ta guztiaz jardutzen zan: edozein uskeria zala, goien-goieneko burutsuen arloa zala; baño an begibakarrik ez.

Bein edo bein ezagutzen ez zuan notarioari begiratzen zion, batez ere ongi ez esanen bat iruditzen zitzaionean, ordurañokoan ixillik zegoan gizona bai-zan.

Ta ezer geiago gogora ez zetorkiola, neska-meari —orduan etorritakoari— zerbait esatea otu.

—Zuk ez al dezu dantzan egin bear gero, Katalin?

—Ez nik.

Ta orra non arlo berria abora etorri, ollo ixtar baten atzetik.

—Arritzekoa da —asizan— orain errixkaetan dantza lotua dala-ta asi diranekin. Toki guztietan or ari dira apaizak iñon diran eragozpenak berek baltseoa deitzen dioten dantzari jartzen. Badira erriak apaizek alkateengandik iñor dantza lotuan nai detan gauza da, baño neskakin geiegikeriak egiten dituztela esate ez det batere kezkarik.

Ardo txurrupe bat artu ta jarraitu zuan:

—A, neska gaxoak! Mutil batekin alkar artuta bein ibiltzea naikoa dute Mirenen alabaetatik botatzeko. Baidra bein alde eta ajolik ez dienak. Beste gixaxoak, dantzatu nai lutekenak, or egoten dira botako dituztelaren bildurrez. Aien lotsa ori gertatuko balitzaie!

Iñork erantzun ez eta aurrera zijoan.

—Ote dakite apaiz jaun oriek gaztetasuna zer dan? Gaztetasunari jolasa bearrekoa zaio ta esango al didate neri, ba, neska mutil bikoak alkar artuta dantzan egiteagatik oben egiten duala ere? Dantzan, soñuak, neurriak eta ibille-rak ondo baño obeto artzen dute irurek alkarre-kin, batez ere dantzan ondo jakiñez geroz. Nik ez det obenik ikusten. Artean apaizek, dantza lotuan aritu ote diran aitortzera beartzen dituzte.

Onetan Durangoko gizonari berbaldia etorri zitzaion:

—Autortea be, neuk ez dakit jenteak zer autortu bearrik daukon. Ez al dira geu bezelako gixonak abadeak? Gixonak gixonari, zer dala-ta esan bear dautso egin dauzan obenak? Parkamena, parkamena... Jaungoikoak emongo dau gura badau.

«Neu...».

Ta ementxe bukatu zan «amerikanuaren» elea. Bera asi zanez geroztik emaztea kopetillundu zitzaion. Lengo parrak ederki aztu zitzaizkan. Noski, argi aren azpian zeudenak ez ziran bere senarra bezela urrutiko baso ta lur landuetan ia kristaurik ikusi gabe urte ta urteetan egonak, lan eta lan. Gaizki artuko zutelaren bildurrez, oraintxe «neu» zenbat urtez geroztik aitortu ez zala esatera zijoanean, emazte izutuak jo egin zuan ukalondoarekin alboan, ez ikusteko eran.

Notarioak igarri ta, Karmeleri maiteki maats mordo polita eskeñita, bere aldikoz erantzun zion ortzalaritari.

—Iruingo dentistak ez dit ukatuko neri dantza askoen gaiztakerien iturburua dala. Oso erraza

da dantzan, soñua, neurria ta ibillera, gazte bat uste okerrik gabe artaratzeko niakoak dirala esatea; ez, ordea, bertatik gogo txarrik gabe ateratzea. Dentistak esan dituan gauzaz gañera emakumea besoen artean artzea jarri lezake atseginbide orietan. Au ezin ukatu liteken egia da. Gizonak gizonarekin ez du beñere dantzan egiten. Emakumeak emakumearekin... besterik eziñean. Galde zaiezu, edo zerorrek ondoena jakingo dezu, dantzari purrukatua zeranez geroz, ez al da atsegiñago neska polit batekin itsusiakin baño dantzan egitea? Dantzara joatean dantzari ona baño emakume ederra nai du gazteak. Esan detanarekin eta ez luzatzearren esan gabe uzten detanarekin, auxe esan nai nizuke, lengo soñu, neurri ta esandakoaz gañera, emakumea norberarekin artzeko gogoia izaten dala. Ta orrelako atseginbideetan...

Notarioak bere aburua eman zuan, guziek entzun zioten eta bakoitzak esandakoaz bere iritzia zeukan. Notarioak lasai ta irria ezpañetan bukatu zuan. Baño maiburutik maiburura botatako alkarren aurrezkako usteak, azalpena eska-



tzen zuten eta ortzalaria ez zan erdipurdi geldituta ondo zegoan gaztea, ta erantzun zion:

—Nik gauza bat aitortu bear det lenengoz: asko dantzara txarrera dijoazela. Ori egia da, ta egunero ikusi ta entzuten ditugunekin ezin ukatu liteken gauza da. Baño dantza berez animarentzat kaltegarri danik ez det uste; ori zein asmoakin joaten dan. Asmo likitsakin dijoanak, orrek aitortu bear luke bere gaizki egiña, ez dantzazaletasun utsez dijoanak. Gauza asko dira ez onak, ez txarrak, ez diranak; zein alderditik artzen diran orrelako edo alako izaten dira. Baño nik adierazi nai nizukeana, dantzan batere obenik egin gabe egin ditekela. Nik uste ori daukat, nik nere buruan ikusten detalako. Ni dantzari purrukatua naiz, egia diozu, ta dantza utsagatik askotan aritzen natzaizu. Nik iñork dantzara atera nai ez dituan neska gixaxoak, neronek askotan eramaten ditut nerekin, politak ez dirala ikusi ta ondo ala txarki badakiten jakin gabe. Zu zerori dantzan ibillia zera, ta, edo zure ustea okerra da ala, zuzena bada ere, zure naiarekin ez du bat egiten. Ez det uste esandakoa gaizki artuko

dezunik, ez det izan nai zu asarretzea, zu gizon atsegiña ta jatorra zatzaigularik.

Izketa aurrera zijoan.

—Alaxe da —bare-bare ekin zion notarioak— dantzan egin izan det batzuetan. Iruingo dentistak ez dauka zer kezkatu ori esateagatik, ezta ere zer poztu ni erantzuteko larri jarri nauenik uste izan badu. Nik ezkerak emazkiot, eta beroenak eman ere, bere nereganako itz ederrakatik.

«Alaxe da —jarraitu zuan— nik dantzan egin izan det eta orregatik beragatik ezin esan lezadake neri edozein apaizeri —esate batera— esan lezaiokeana: —"orrek dantza zer dan ez daki"— len gaztetasuna zer dan ez dakitela ia-ia esan die-ta. Ikusitakoaz da, beraz, nere mintzoa. Nik, orretxengatik, esan nezake. Eta ez du aloterik, ez zait dudarik jazten, nik nere egiteak aztertzen baditut eta ona zer dan eta txarra zer ezagutzen baditut, gure dentista adiskidea baño ni zuzenbideratu errazagoa edo urriago egongo naizela bera baño, jakindun gizona izanarren gaitza legokean tokian utsa ikusten dualako. Ez det uste txarrean artuko dituala esandakoak.

»Bera batzuetan dana-dalarekin aritzeak, itsusia edo ez jakiña ba-da ere (bera neurritza-lea), ez du argibide berririk ekartzen arlo onetarako. Berak errukia izan lezake baztarreko neska orietzaz, edo aintzako ongi-naia, badira-ta emakumezkoentzat birtute onenak dituztenak. Ez det iñolaz ere esango, dentista maitea, zu gizonetzkoekin eratsua, begikoa ez zeranik; emen gurekin daudenak ez ninduteke utziko. Baño nik diotzut soñuaren eragintasunak emakumea bear duala gozagarriztat eta nik orretan obenbidea dakustala, bederik, eta arriskoan dabillena bertan galdu oi dala».

Izketaldia naro, ez nai miñik eman.

Dentistak ostera ere erantzun zion:

—Nik diotzut dantzaren ondoren ez detala beñere gogamen txarrik izaten.

Ta ordurarte ixilik zegoan Karmelek bat-batean bota zion:

—Eta irekin dagoan emakumeak obenik egi-ten ez duala, seguru al dakik?

Ateraldi arek mututuko zuan. Ez, bada; une artantxe atea zabaldu zuten eta bertatik etorri zitzaion laguntza. An sortu zan ikaragarritzko

otsa ez itzegin ez entzutekoa zan. Apaltzeko guztian aldamenekoen iskanbilla gero ta gogorragoa zebillela esan bearrik ez dago. Areri eskerak zer erantzun pentsatuko zuan.

Atea itxita, Josunek (bera zan sartu berria) kafea nork nai galdetu zuan. Guzieri begiratu zien; notarioaren irria naikoa izan zuan ulertzeko. Lengo txandaz geroztik ez zan geiago ausartu sartzen.

Zorioneko atea berriro itxi zanean erantzuten leiatu zan ortzalaria.

—Ea, bada, Karmele maitea, nerekin dagoanak? Dagiala berak nai duana; begira beza berak nola edo zer dabillen; berarentzat izan du bere ibillera, zuzena izan ala edozein eratakoa.

—Ori dek, ik eskuak garbitu. Artean besteeri oben eragitea ere obena da.

Onetan jardunaldiak gar guztia galdu zuan. Ez zeuden izketako gogoarekin. Kafeak lurriña oparo botatzen zuan. Gizonek alkarri xigarroak eskeñi ondoren kea gogotik aidean. Kea goiko argiaren ondotik goraka; ormaetan kearen errañua. Maigañean platerak guriñez kutsutuak; matsa, patsa, udare ta laranja-azalak, eta boti-

Ilak zokoratzeko zorian. Guziak eta guzietaz mintzatu ziran eta apari ura atsegiñez bukatu. Oraintxe jaikitzeke zeudenean atea idikita pilarmonikaren otsa sartu zan. Guztien arpegiak alaitu ziran. Baita ere dentistarena, len eskallera gora zarataz zatozenean «asto jendea» esan zuanarena; orain, ordea, ederki apaldu ondoren, soñulariaren otsa bere barrengo alaitasunarekin batu zitzaion. Pozik zegoan ba, ta.

—Au jende alaia, iñor madarikatu gabe ederki jolasten dakian jendea —esan zuan.

Amerikanari toki egin zioten eta guztiak banaka kanpora abiatu ziran. Soñuaz gañera gazte jendea kantari asi zan eta iñork gortzea nai ez bazuan gogoz aldegingo zuan «Tukulu»eneko ostatutik kanpora.

Arratseko amaikak. Illuntasunean pelota-tokiko argiak bizi ta jendea beltz.

An zeuden nasteka an zebiltzan elkar-artuak zurrungilloaren antzera biraka mutil-neskatxak. Zeruan izarrak izillik. Enparantzan malats izugarria; aizea ostopil aundia biltzen; ura etorrialala (musika), errotak jira. Ase ta ler dantzazale naa-

siak. Ara, antxen, «Sesiotegi»ko bi aizpak etorriak.

Gaueko ordu bata zan. Kale batean gora, argi baten ondoan, Antonio bakarrik. Bere buruari ari zitzaion:

—Baño On Antonio berori...?

Mozkor-mozkor eginda zijoan.

## VII

# ARDOTXO TXURIA

Nik ez dakit iturriek zer duten. Martixu ta Bartolo asi ziranez geroztik makiñabat maitale maitasun-ardo txuria edatera joan izan da iturrira, edo alako bat bear. Mendiko mama garbiak, non-bait, biotzeko egarria kentzen; nik dakitana beintzat maitasun likitsik ez dala iturri-ondoetan sortu, edo ala uste.

Zeruko ura badator mendi gañera; batzuetan bideak loituak daude, baño ura garbi dijoa: ontzi bat artu ta ikusiko dezute. ura mendi-kolkoetatik amilka dator. Eguzkiak jotzen duela zillarezko ari ta matazak ageri zaizkio eta kolore askotakoak ere bai. Mamorro bat izpia zubitizat artuta dabil, baño ur-aria, ikutu gabe, txor-txor dijoa goitik beera. Urak, bazter askotatik artuta, zeruaren urdiña, aize gozoa ta eguzkia berarekin dakar. Baño nik uste detanez maitasun eragintasun guztia ta gozoena ez datorkiola ortatik: goizetan lili mimikoetan egoten diran intza tantoetatik baizik, oriek ekartzen dute zoriona ur-laisterra-

ren bidez. Bai ba, guk usaia aitzen diegu lilleri, erleek ezta atera ta intza-tantoak, maitasuna.

Amarrak aldean Martin ikusle zegoan mutil batzuk pelotan ari zirala. Egualdia onean zeterren orain ere. Goizeko eguzki epelak gauzak berritu egiten zituala ematen zuan, urre berriaren argiaz. Joka-tokia itzalak arrapatzen zuan oraindik eta zuloetan sartutako aga luzeen errañuek lurrian irrixtatuta aldameneko etxeak jo ta zuloetan sartutako aga luzeen errañuek lurrian irrixtatuta aldameneko etxeak jo ta beetik gora goiko leioak ikutzeraño igotzen ziran. Garai artan ots gutxi. Jokalariek eta ikusleek —ez asko— noizpeinka itzen bat ateratzen zuten, bein-edo-bein ojua ta tarteka irri-karkara. Soñu aiek bakar-bakarrik entzuten ziran eta baita ere pelotaren takatekoak. Iñor geiago errian ez balitz bezela. Zenbaitzuk begiekin baño aboa zabalik pelota obeto ikusten zutela esan zitekean.

An zan Martin atze-aldean: pelota igo, kokotza altxa; borobilla beeera, burua jetxi. Bera, palaz iñoiz ikusi ez dezuten bezelako pelotari yayoa! Artean... dingilindan. Arroategi, damutegi. Beraxe zan jaien aurregunaz geroztik biziera



onik ez zeraman mutilla Ta «atzo» gertatutakoa!  
Orduantxen iñori «ospa» esateko gai zegoan;  
edozein zakurrari «axa»; zerria izanez geroz  
«uxa», ta munduko katu guztieri «xapi».

Azkeneko egiñaala egingo zuan. Gazteak  
nekea zeraman biotzean. Orrelako oldarte txar-  
rikerik nai ez. Ekiten bazion, agidanean berarentzat  
okerrago. Orduan lotsa ta naigabea aunditu  
zitezkean, orduan miña gaizkitu litzaioke;  
orduan, noski, gaitza gaitzen gain letorkio, miña  
miñen orpo, utsa utsen truke, negar negarren  
ostean. Ta zoritxar orrek atzeman baña lenago,  
garaiz gertuko zan, etsita bururapen aiek utziko  
zitan... —«natzaion ase ta asper, dezadan atse-  
gin ar»— bere buruari ari zitzaion.

Gizonak zoritxarrean atsegin artzen du bere  
buruari errukituaz. Izaerak ez du nai il, eta aitzar-  
kirik txikiena gogoz artzen du bizi dedin. Marti-  
nek bere atsekabeen lo egin zezakean gozoro.

Baño ez da guztia oker eta gaizki ateratzen  
mundu onetan. Gizon gaiztoari askotan gaiztake-  
riak barkatzen bazaizkio, onari ez al zaizka  
zuzenduko bere uts eta narrioak? Ta gauzak zer  
diran ikus dezagun, ara non azaldu zan Mirele

bere etxeko eskaratzean ur-ontzi batekin eskuan. Iturria pelota-tokiaren atzean, Martinen atzean... Iturrirako bide zuzena, bada, Martin zegoan toki beretik. Mutilla txospertu zan. Azken aldiz itzegitea, bear bazan, zirt-zart erabaki zuan eta... orain neska aurretik zetorkiola ez zan bere buruaren jabe.

Neska polita zan Mirele. Espartzin txuriekin astiro zetorren. Beti apain ibiltzen zan neska, olleak atzera motots potxolo batekin. Arpegi mea garbiro ikusten zitzaion. Txotil zebillen Mirele. Bertango ta mutilla lilluratuago. Bear-bearrekoa zan abagune egoki artan Mireleganatzea, nai ta naiez itzezin bearko zion. Ezin zitekean orrela egon. Joan egingo zan. Ta nola artuko zuan berak? Itzegiten eratsua izango al zan? Ba gauza gerta lezaizkiokean: edo ongi artu ala gaizki eraman. Begitarte ona jartzen bazion ez la zan bera astorik kankalluena bildur izateagatik? Arrera txarra egitekotan... bein eta «akabo». — «Gizonak ez du koldartu bear; bear da bear danean gar apur bat izan»— berekikoz ari zan, baño... txepeldu zan eta... neska bere atzetik pasa.

Neska igaro zan; baño alderatzekoan begiak lurretik altxa ta Martinenak topatu zituan. Martinen begiak bere aboa baño ausartuagoak izan ziran. Bi begietan barrengo naitasun guztia jarri zuan. Martinek samurtasunez begiratu ta begiratuan damuaren oñaze bizia jarri zion.

Ura oparo zetorren kristalezko pitxarrean. Mirele oraindik makurtuta zegoan. Ura gañezka zetorren baztarrak zipristintzen. Altxa baño len Mirelek Martinen errañua atzean ikusi. Pitxarra eskuan artu ta alkarren aurrean arkitu ziranean, Martinek leialki esan zion:

—Barkapen eske natorkizu... Ene burua aztertu det eta atzoko txarki egiña ikusi det... Zu, egiazki, ez zera nere zakarkerien garri... Atzoztik ezin burutik kendu nere gaizki egiña... Egiña egin, ez geiago... Ez det nai zurekin asarre egotea, Mirele...

Ta Mirele esatean naitasunez esan. Zein aldarte, indar aundikoa izaten da norbaiteri bere izenez deitzea.

Baño Mirelek uste jardun luzeegia zeramala bera bakarrik aritzeko. Neskak ere itzegin nai; ez

zezala uste (egiazko ustea) itzakin goxatuta zeukala. Ta asarrea aipatu ondoren jarri zion:

—Ez asarre, ez adiskide... ezerez.

Jainkoak daki zer lan izan zuan ori esateko.

Martinek jarraitu zuan:

—Barka ezadazu, bada, ta eskua luzatu zion.

Mireleren arpegi kutuna biguntzen asiagatik ez ion eskua artu nai.

—Barkatu, barkatua zaude nai badezu; baño eskurik ez dizut emango.

—Ortaezkero, ez barkatu ta emaidazu eskua.

—Ori al zenuan damua?

Ta Martinek oraindik eskua luze zeukala:

—Badakit eskua emanda barkatzen nazula ere.

Martinen eskua ain erakar aundikoa zala-ta, pitxarra eskubitik ezkerrera aldatu, eskua soñekoan igurtzi ta, azkenez, berea eman zion Mirelek Martini.

Martinen esku beroak Mireleren bustia artu zuan. Onek lurrera begiratu ta zer esan geiago ez zutela etxerako bidea artu zuan ur garbia pitxarrean...

Aga muturretako bandera txikiak aizeak zerabilzkian...

Martin bere tokira joan zan. Jarri zan atzean pelotan ari ziraneko artan. Baño gaztea nola egongo zan! bein pelotak, atzera etorrita, bera bakarrik zegoala, kokotz azpian jo zuan.

Ez zuten mutillek par txarra egin. Ez berak ere. Ura baño okerragorik ez zezaiola gerta.

Izugarriak izaten dira asarretutako neska-mutillen adiskidetzeak.

## VIII

# ESKARATZ-ATEAN

Egun artako arrats arekin bukatzen ziran Usauriko jaiak. Bigarren egunak ez zuan zer ikusi berririk. Eguerdi arteko pelotaka ezik, gañerako guztia berdintsu zijoakean.

Eguerdi artean pelota-partidua izan zan, bada, ta ez txarrenetakoa: bi napparrek bi gipuzkoarren kontra. Martinek bost pesetakoa galdu napparren alde. Ajola zion!

Bazkalondoz lengo irrimarrua orain ere, lengo ibiltze nastua. Eguzkia, berbera. Edozein gurdik —tarranta, zadizkoa bazan— autsa arrotu ta eguzkitan zuri-zuri eginda «Tukulu» ta «Gaztiene»ko maietaraño zabaltzen zan. Geroxeago, enparantzan, lañoa gañean egon oi dan bezela, an ere autsa gogotik. Batzuk ara-onera, besteak zuri-neri, urrenak egon; ibiltzeko bide zuzenik ez, batean alboan jo, bestean sudurrak burua topatu; erritarrak eta erbestekoak sare bat egiñik zeuden. Ikuste orreri erantzi dezaiogun entzutea: arako txintxarri saltzalea, beti bateko barki-

lloera, aztu eziñeko pilarmonika, gogo on eta gogo txarreko irrikarkarak, ajolagabeen ojuak eta ardura gutxiko pelota-ikusleen atzerakakoa.

Baño gatozen gure arira. Oraintxe Martinen arloa kokotzaratu zaigu ta naiz gero gauzak txandaka esan, esagun zer gertatu zitzaion arratsaldean Mireleri buruz.

Egia esateko Martin ez zegoan orren larri bigarren taloa jateko. Lenbizikoa ondo txegosi baño lenago bigarrenak gaitz egingo ote lioken. Goizekoa xamurra ta goxoa izan zitzaion. Oraindik ezpañak ondo igurtziez. Arratsaldea nekezagorri zedin nai, ez orren aguro, aboko sapai asetua luzaro iraun zezaion. Orrez gañera neskarengana berriro joateko zer nolako izketa erabilli pentsatu egin bear eta naiz iturri ondoan adiskidetu, berriro kemenak saiatu bearke zituari aldearatu bazitzaion. Neskaen arlo oriek ez omen dira bat-batean, banoan, irabazi litezkeanak.

Ori bada, ta urrengo topoa gaizki ateratzen bazitzaion, taloaren atzetik ospiña. Lendik ere ikasia zegoan, gauza bat iruditu ta bestea izaki; eldua uste, gazia jan. Emagun ez bero, ez otz,

axaletik artzen zuala; goizeko ona aztu ta arratsaldeko utsa bururatu.

Gauzak berak nai bezela gertatuta ere askoz geituko al zioten bere zoriona? Berak nai bezela gertatuz geroz... bai, ta sudurraren puntari azka ari zitzaion. Berak nai guztia iritxita noski!

Ta gañera beste gauza bat gerta lezaiokean. Bear ez danean agertzea bezin okerra da bear danean ez azaltzea. Bazitekean neskak arratsaldea etortzea nai, —«neskak ez al dute maitatu bear!»— bere buruari erritan ematen zion. Bazitekean berarekin Mirele atsegin egotea, baldin bere txoroan goizeko alkarrekin egonari itxura ematen ez bazekian.

Ta Mireleren berarenganako ustezko atsegiñarekin, bazebillen pozik enparantza barruan adiskiderik ikusi nai ezik: bateri iges, besteari itzul. An ikusi zituan Karmele ta Josune.

Josune gaxoa! Ainbeste lanez ekarriari zuan ortzalaria gau artan bertan joan zitzaion, dantzaz gogotik eginda. Sendatu bearrean gaizkitu. Eta nola aldegin! Karmeleri bean zegoala eskua eman agur egiterako ta doi-doi oartu bazuan goiko leiotik kokotza ikusi nai zion neska eder ta



gaxoa. Orduraño ez zan konturatu Josune egin zuanaz. Lotsak eta damuak ez zioten lo egiten utzi. Ala ere maite zuan; baldin aurrerantzean adiskidetuko balira igarotakoaz aguro aztuko zan.

An ikusi zituan ere Martinek, Mirele ta Bittori. Bereganatuko ote zan, joango ez ote zitzaion, zalantza gorria. Bein agur eginda ia abiatu zan. Artean, bikin baño, bera bakarrarekin obeto. Zentzuari eman zion batean bere burua lotsagarri ikusi zuan, bakarrik orrenbeste ezagunen artean nora jo ez zekiala.

Illuna bazetorren. Andik urbil musika ixilduta etxeratuko ziran guztiak. Obe zuan Mirele etxerakoan arrapatzea, bai. Ta orduztik aterabidean jarri zan iñork eragotziko ez lioken tokian. Orra gauzak eskueran jarri.

Musika bukatu zanean Martinen biotzean asi zan ostera. Aren takatekoak jendea zabaltzen asi zanean! Erne mutilla; neska eskubitik, bera eskerretik; guraizeak erdiratzen diran bezelatsu, berak ere Mirele topatuko zuan; artean ez azkarregi, ez beranduegi, ibilli bearko era egokiz azalduko bazan.

Arritu zan. Bestetan Bittorik etxe ondoraño laguntzen zion eta orduan enparantza laga.

Biak zijoazen bakoitza bere aldetik. Mutillak begiak zorrotz, oñak neurriz. Zertxobait ibilli ziran. Ta «Gaztiene»ko ondotik pasata, Mirele bizi zaneko kale bakartsuan sartu bear zute-nean, erlojerua etorri zitzaion Martini.

—Kaxo Martin. I, atorria. Nik bazekiak i zer abillen:

arrapatzen bazaitut

arrapatzen bazaitut

bertan, bertan

jango zaitut

Kantatuta «ji, ji, ji, ji» asi zan.

—Motel, utzi nazak pakean.

—Txiki-erdi bana edan bear diagu.

—Itxoegintzak, bereala banetorrek.

—Ez, oraintxe edan bear diagu.

—Ez diat nai —esanda, Martinek txamarratik tira, erlojeruak laga zezaion, ta indarraren indarrez erlojero mozkorrak bira osoa egin zuan zanko-koen gañean lurrera erori gabe.

Txorabioan ala zion: —«Oi, ama! Ji, ji, ji...»—  
Lerdea abotik beera, sua begietan, bati begira

besteari bultza, muturrez aurrera sartu zan Gaztienean.

Martinek oñak arindu zituan, larria kolkoan, arnasa aboan, ta eskaratz atean zanko luzako ozta-ozta arrapatu.

—Agur, Mirele laisterrean zera?

—Betiko eran. Zuk bai dirudizu. Ni orain apaitara. Zer nai zenuke bada?

Artean zertara zetorren igarrita zegoan naiz atzera begiraturik egin ez, ez-eta ibillialdia azkartu ez lasaitu ere.

—Baldin garai onez ez banentorkizu... Ez nuke nai gogo txarrez ar nenkizun. Ain pozik nengoke zurekin —zion Martinek.

—Eskerrak demazkitzut nerekin pozik baldin bazaude, naiz arritu xamar egon zure niganako on naiagatik. Baño ez al diozu igartzen, nik naita ere, gaizki giñakela ementxe illuntzean gu biok bakarrik? Zer esango luteke emen ikusiko baginduzkete?

Begieri begiratuta irri antzean erantzun zion Martinek:

—Agidanean, apari eske natorkizula.

Ta irria ezin aterarik zegoanak Mireleri ortz zuriak ikustean parra gogotik egin zuten biek ere.

—Nola dijoazkitzu aurtengo jaiak, Mirele? Neska ateari bizkarra jarrita zegoan.

—Ondo, ederki.

Mutilla bertago.

—Artean iñoiz baño aldenduago ikusten zaitut.

—Eta zuri nola dijoazkitzu?

—Ezin obeto.

—Ala ere beti bakartsu ibiltzen zera.

Ezin ukatu bada alkar ondo artu zutela. Neska pixka bat lotsatu ez ote zan.

Martin bazebillen zerbait geiago esan naiean. Bildur zan eskaratzean gora asiko ote zan. Zerbait esan bear eta,

—Utziko al ninduzuke zu ikustean zureganatzea? —galdetu zion.

—Nerenganatu? Bein edo bein... Gaur beintzat ez didazu iñolazko baimenik eskatu.

—Ez... —burua makurtu zuan.

—Orren bear aundikoa al daukazu nerekin egotea? Beste edozeñengana bezela zatozke neregana ere.

Mirelek neskaen izketa berbera zerabilkian. Ez zion ezetzik ematen, edo obeto, baimena bai. Alegia bera bat, besteak bezela. Ta naiz mutillaren asmoak jakin, ez jakiña egin, ajola aundirik erakutsi ez eta zer erantzungo ote zuan zai.

Martin, noski, berarenganako gogo ona aitor-tzera joana zan. Abagunea ezin ohea etorri. Esango zion. Itzak, ordea, ez nai bezela aboratu. Guztia esateko aundiegia, gutxiegi esan nai ez. Orduantxen saiatu bearra etorri zitzaion.

—Ara, Mirele —asi zitzaion—; zuk badakizu ibaiek zein indarra dakarten. Ezerk ez die beren bideetatik alde eragiten. Arkaitz bat jarri ta inguruetatik joango da ura; asko jarri, gañetik pasa, ezerk ez dio geraaziko ibaiari. Ba dijoa ibaia ta putzu bat topatzen du. Badago pixka batean eta bereala beste aldetik irtetzen da ta len baño indar geiago darama. Urrena osin zabala jartzen zaio bidean. Luzerago egon eta baita andik itzul egin ere. Ta oartu zaiozu, itsasoa urbillago ta aundiago ta indartsu dijoa, azi egiten da. Aalik

eta itsasora irixtearaño ez du atsedetik artuko. An bere magal gaxoan bat egiten dute atsegiñezko pakean.

Geldialdia egin zuan. Biak alkarri begira zuden. Eta jarraitu zuan:

—Ona, ni ibaia naiz. Zuk diozun beste neskak putzuak eta osiñak. Eta zuk... nai al zenuke itsa-soa izan?

Martinek ezin lezakean garbiago itzegin. Orain, ordea, larrialdia Mireleri zetorkion. Baño onek bereala erabaki:

—Ez zait ortan ezertxo entenditzen.

Martineri parra egiteko gogoia etorri zitzaion. Ta jarraitu zuan:

—Zuk izarretan zein maite dezu geiena, eo zein zaizu begikoena? Zuriena, argiena, ederrena ez da? Bada neretzat izarrik politena zu zera.

—Ori guztia —erantzun zion ulertzen ez zuanak— baldin udarako legortearekin ibaiaren etorria gutxitu ta zingiran gelditzen ez badan; baldin zure ikusmen txarrak ipurtargiaren tokian Artizarra erakusten ez badizun.

Martin azkeneraño zijoan bada:

—Udaran gaude ta nik diotzut ibaiak ura gañezka daramala eta bidean ez duala oraindik osiñik ikutu itsaso aurrean dagoalarik. Nere ikusmen argalak ez nau uzten ipurtargirik ikusten, eta eri au dala-ta, izar ederrak itxutzen nau ta itxuan egin nizaizkizukean utsak... barkatu.

Esain bezait irakurleak nik nere liburua polita egitearren ezere asmatzera beartuta ote nengon, Martinen jarduna orraztu ta edertu ditekenik.

Ementxen bukatu zan alkar izketa, bada Mireleren aizpatxoa, Margarite, orduantxen etorri zan, aparitara ura ere. Irurak alkarrekin, arerra ona egin zion Martinek neska kozkorrari. Gorako asi zirala, arratsean aterako ote zan galdetu zion Martinek Mireleri. Ez zuala gogorik esan zion. —«Ezta nik ere»— Martinek. Ta «agur» esanda, bi aizpak besotik elduta barren aldera jarri ziranean, Mirele eskua atzera luzatuta, gogoz estutu zion Martinek, eta onek ere aparitarako bidea artu.

Taloaren gañean, mami zuria.

Irakurleak, emakumezkoa bada, baliteke gure Martin ori begikoa izatea; baño, gizonezkoa

ez bada, ez du benere jakingo nolako biotz betetasuna zeramakean Martinek etxera bidean.

Orra bi gazte adiskide maiteak asi ziranez geroztik, ez dantzan egin, ez illuntzean atera, nai izan ez zutenak.

Zer ote da maitasuna?



## IX

# MENDIAK EZ, GIZONAK BAI

—Mendiak mendia ez du billatzen; gizonak gizona, bai. Esan akiotek Usaurikoeri bigar arratseko amarretan beko bidekurutzean egongo gerala ta gizonak baldin badira etortzeko.

Nork esan Sanjuan arratsaldean iruindarrek eta usauritarrek izandako utsagatik orrenbeste-rañoko grina sortzea!

Aurreko itz oriek aboz-abo zerabilzkiten Usaurin eta oraintxe erriko gazteak ez zeuden baretu errexak. Guztiak asaldatuta alkarrekin topo egitean, edo kale kantoietan pillaka, ala ardoteği zuloetan lagun-arteān, beste jardunik ez zuten; noski, ez zebiltzan atzera egiteko asmotan. Ta orretxegatik, gazteen artetik kanpora ez zuten nai iñork jakitea, emakumeak jakitekotan mugazaiek jakingo zuten ere ta orduan ez joan ez etorri, ez jo ez arrikarik; ez, ordea, usauritarrek ori nai. Mugazaiak tarte jarrita, Usaurikoek naita sartu zirala esango zuten eta

aitzaki orrekin arpegia eman nai ez zutela. Berak koldarrak, berak olloak?

Egun artan, arratsaldeko seiretan, muga-zaiek ezere jakin ez zezaten, auek kartetan aritzen ziraneko toki berean bilduta zeuden, «Tukulu»eneko baztar itxi batean. Mai luze baten inguruan zeuden jarriak guztiak. Zer artua Josunek ekarri zien. Erlojeruak pattarra eskatu zuan kantari. Atea itxi zanean Juantxo mintzatu zan lenengoz.

—Emen borrokatu nai ez duanik baldin bada atera bedi —asi zan.

—Bai, bai —erantzun zuten guztiek.

—Guk egin bear deguna —jarraitu zuan— palta diranak gurekin ekarri. Emen amabi lagun gaude, ogei osatu gindezke. Ta oraintxe bertan zein bideak ibilli bear ditugun eta nola antolatu ementxe erabaki bear degu.

Krexentxioren itza entzun zan urrena. Erlojeruak zionez, onen etxera deitzeko aldabarik ez eta atearekin orma joka aritu bear omen zan.

—Zer derizkiotzute —bota zuan— batzuren-batzuk, erdiak bezala, bide kurutzerano joan, besteak tunel gañean egon eta aiek igeska beze-

la abiatu tunel-alderaño, iruindarrek segi dezaieten; eta gero, arri asko dagoan tokia baidan, danak alkarrekin aieri arrika astea?

Krexentioren iritzia ez zan bat-batean onartu ala eretsi zitekeana. Ixilik zeuden, pentsatzen jarri ziran, batzuren-batzuek ontzat artu ere bai; baño ez, joan eta bereala atzera korrika astea, ez. Eta jarraitzen ez bazieten, erri-bidea artu nai ez-ta geratzen baziran, zer esango zuten?

—I, Krexentxio —erlojeruak bere aldikoz— to ori baño ohea. Nik beko eletrizidade fabrikatik, alanbrea jarri, burniaria jarri, ta bide zabalari aldez beste burniariz egin; gu atzera asiko gaituk, gañetik pasa, non dagoan dakigula; ta aiek ez jakin, ez ikusi, ez dutela, alanbrea jota «grano»rik ez dek «sano» geldituko; —ta «ji, ji, ji, ji» erazo zion— guztiak bertan «seco» geldituko dituk —parrez, bizkarra makurtuta, bukatu zuan.

Batzuek ezik, ez zuten parrik egin; labea opi-lletarako ez. Baño an norbaitek iruindarren artean «Katamotza» zeritzateneko bat etorri bear zuala aipatu zuanean ikara bezela sortu zan lekune artan. Katamotza!!! Gaiztoa, gaiztorik bazan; «erremienta» ederra. Bein, berrogeita-

mar beiekin, mugazairik ikusi gabe, Zaragozara-  
ño iritxi baietz, apostu aundi bat egin nai izan  
zuana. Patarien kaltez, kontrabandistaen kaltez  
telefonua jarri nai izan zutenean, arratsalde  
batean, berak bakarrik, iru tantai bota ta bi kilo-  
metroko aria ostu zuana. «Gaua gauekoentzat,  
eguna egunekoentzat, Lizarpeko zekorra nere-  
tzat» —esanda, ukullutik lapurtu ta nor izan jakin  
ez zutena.

Baño zergatik eraman zuten bein kartzelara?  
Orduan Manuelek askok ez zekitena esan zuan  
«Tukulu»eneko zoko artan. Arrobian aritzen zan  
Kaltamotza. Askotan, danba bat botatzerakoan,  
zakur bat lergaiaren ondoan ibiltzen zan ezin  
uxaturik. Ta zakur ura arriskotik kentzearren  
zakurraren isatsari dinamita puska bat lotzea  
gogoratu zitzaion, eta lotu ezik biurtuari su  
eman. Katamotzak zakurra iltzea besterik ez  
zuan gogoan. Baño danak dakigu zakur bati  
atzean zerbait erazten badiogu bereala laisterka  
dala egiñaletan, batez ere erantzitakoak txinpar-  
tak botatzen baditu. Zakur gizajoa asi zan bere  
aldiko ta nora jo bear ta emakume batzuk goba-  
ra jotzen ari ziraneko gobarategian sartu. Sartu

ta batean legerai lertu; zakurra ormaren kontra il, emakume batzuek kordea galdu, kristalak txikitu ta ez zan oker aundiagorik izan.

Orixe zan iruindarrekin etorri bear zuan Kata-motza. Noski, aren izengoitia entzunda (zerbai-tengatik jarriko zioten alako izena) zer kezkatu bazuten. Zer egiteko zegoan Katamotza usauri-tarrekin? Nork deitu ote zuan? Urrengo eguneko borroka, beraz, ez zan makala izango. Ondo gertu zitezkean eta bear bezela ari. Baño Kata-motzaren etorribearrak, batez ere, asaldaturik zeuzkan billera artako gazteak. Kezka ori ezin aienaturik banaka-banaka guztiak begira asi zitzaizkion Paulinori. Paulino, maira begira, ixilik. Ez zuan itzik esan; baño arpegian igarri zezai-kean. Orduan arnasa lasai artu zuten guziek. Su aundiaren ondoan, beroak gizonak.

—Bildurti arraioak —jarri zan Antonio—. Emen bildurra galanki. Zer Katamotz eta zer gal-tzamotz?

Ori esatez bukatu ta ondorengo ixilunean atea idiki zan. Josune txiñalka sartu ta atea bere atzetik itxi zuanean, bazala dendan gazte bat,

etorri-berria, kanpotarra, aiek esaten zutena entzun naiean zebillena, esan zien.

—Iruindarren bat dek —asmatu zuan Juantxok. Alkarri begira jarri ziran. Juantxok atea artu.

—Iges egin du! —otsegin zuan.

Guztiak aulkietatik dendara atera ziran; geineak kalera, batzuk eskubira, besteak ezkerrera, iruindarraren atzetik.

Erlojerua, ala ere, lasai gelditu zan barrunbean.

—Josune, ekatzen beste kopatxo bat gaxo orrek —antzia atera zuan. —Adi zan, belearena egin duan mutil polit orrek pagatu al din?

# X

## ILLUNABARREAN

Usauriko zortzietan, ogei lagun bildu ziran. Eritegiko aurrera, doi-doi Jauntxok asmatu zituan ogei gazteak. Eritegia zubiz arunztik zegoan, erriko sarreran, eta aurreko arbolpetan gorderik zeuden esandako mutil bizkorrak.

Eguzkia Usauritik ezkutatua zan —mendiz inguratutako erria bai-da—; baño egal batetik igo ta arako tontor artatik ikusi zezaiokean musu gorria baldin orduantxe itsasoan sartua ez bazan.

Guztia erabakita zegoan. Manuel be aldetik joango zan. Bera Bordategikoa eta ango bideak ederki zekizkiana. Bai ba, Eritegiko andreak esan zuanez, aurregunean «Tukulu»enetik iges egin-dako iruindarrak ormazar batetik salto egin zuan ibaira, belaun kozkorretaraño urean sarturik, zubi azpira abiatu ta an zai zegokion beste iruindar batekin biek alde egin zuten, beko bidezkek artu ta ezeren arrastorik utzi gabe.

Benardo, Zaldon barrena joango zan goialde-tik eta gañerako guztiak bide zabalatik. Gudaketa, beraz, tajuz antolatua zeukaten. Orrez gañera, tarteka-tarteka, bekoak «pit» txistu egingo zuan, goikoak «pit, pit», bi; alegia alako tokian zeudela; eta baldin etsaia ikusten ba-zuten, bekoak txistu luzea ta goikoak bi txistu luze. Malzurkeririk ez balio usauritarrekin.

Benardok gorako bidea artu zuan. Manuelek mendian beera bota zuan burua korrika. Andik pixka batera, aiek goi-beak arrapatzea antze-manda, bide zabalatik asi zan taldea.

Bide kurutzeraño ordu Erdiko tartea bazan eta lasaiki joanda ere garaiz irixteko aukera. Taldeak batzuetan amor ematen zuan, bestetan estutu, batez ere guztion artean zerbait erabaki bear bazuten; arriak tunelean artuko zituzten, bitartean iñirik ikusita itxura gaiztorik eman ez zezaien. Batzuetan jarduna oparo, bestetan urriki.

Alako batean ikaratu ziran batzuk, «pit» txistua belarriratu zitzaientean. Manuel zan. Andik pixka batera bi «pit» urrutikakoak. Ez zijoazen gaizki zaituak. Baño Benardo atzean zetorren.



—Eup! —otsegin zuan batek—. Geldi pixka batean, ori atzean dator.

—Onezkero —erantzun zion beste batek— tunela bertan daukagu ta arri ontxoena bildu bitartean alderatuko zaigu, arriak ere bear ditugu.

Tunelean arriak bildu ta bildu, oraintxe astoaren itxuran («anima apartatuta») bi sakel aundi ezker-eskubi arriz beteta, Benardoren txistua aurre aldetik zetorren. Zamukak naiko ez eta batzuek eskuetan ere arriak zeramazkiten.

Une artan zeru-goia argi oraindik eta bea illun. Andik aurrera aalik eta ixillena joan bear omen zuten. Beñelakoan erlojerua atzetik zijoala asi zan karraxika: —«Infentero, dame un mano de papel...»— ta dzast! ortzeta jota «por el abokozulo» bukatu zuan aldamenekoak eman zion amorroarekin. Ta eskerrak eskuan arririk ez zuala. Ea, kale egiteko asmotan etorri ote zan, esan zioten, balijoakela errira orretarako txaldanagorik! Ta erlojeruak, eskua aboan, ala ere par egiten zuan bere mutur okerrarekin. Ez omen zioten entzun eta entzunda ere... Ixildu ziranean,

batek begiratu txarrarekin «babo arraioa» bota zion.

Baño «babo arraioa» esatea ez zitzaion kalte, andik pixka batera bideari bira emanda iruindarrak aurrean ikustean, Antoniok lenbizikoz arri galant bat aien erdira botatzeko, naiz eta arbolpetan lenbizi itzera etortzea erabaki.

Bat-batean amalau arrikote aidean, iruindarrenak kazkabarra bezelako otsa ateratzen zutela. Danak bidean jo zuten. Juantxok «bota!» oju egin eta beste emezortzi arrien erantzuna.

Gudaketa asia zan. Usauritar batek min artu zuan zankoan arri batek kosk eginda; baño lurra jota gero. Bi arrikalari-taldeak sakabanatu ziran bide ertzetara. Erlojerua bide erdian jarrita arpegia ematen iñork baño bildur gutxiagorekin. — «Ots arri ori, erlojero»— ta kaska lurrean jo ta izugarrizko ikotika bide-aurrera. Zer esanik ez dago, orain bakoitzak arria artu ta bota eten gabe ari zirala. Elojeruaren inguruan erruz erortzen ziran arri puska aundiak. Orduraño iñork ez lukean esango gure parrontzia ain yayoa zanik bere burua gordetzen. Arri baten atzetik bestea ta bestea, lurrean jo ta zaldi zoratuen gisan urru-

tiraño joaten ziran. Zaurituak baziran bi aldeetatik. Iruindarrek naiz lagun gutxiago izan su ta garrez ekiten zioten. Bai usauritarrek ere. Ta, bai gero ta illunago zegoalako ala amorroa amorratuago zetorkielako, ausartuenak ertzetatik makur-makur eginda alderatu ziran. Illunpean ozta-ozta ikusten arriak botatzeko aukeran eta opilla nondik zetorren usmatzeko ere doi-doi.

Baño une onetantxe iruindar bat aureregi zijoala ustekabeen sasietatik atera zitzaion gizon bat. Manuel! Bizkar gañera salto eginda makurtuta zetorrenak «mano lertu» egin zuan eta biek alkarrekin lurra jo zuten, iruindarra azpian. Au ikusita beste iruindar bat etorri zan Manuelengana bere lagunaren alde. urrena usauritar bat Manueli laguntzearren eta «Jesus» esaterako on orduko emen ziran guztiak. «Jesus» esatekoa bazan. Gure bizi guztian ez degu urabebelako borroka bizirik ikusi. Jo an, jo emen, jo «suelto», egiñalean ari ziran bi aldeetako gazte bikañak talde bakarra egiñik. Orrenbeste arrikada botata gero ezin sinistu alako beso-jokoa erabili zitekeanik. Orrenbeste arrikada botata gero ezin sinistu alako beso-jokoa erabilli zitekeanik. Gaitz orren

ondorenak ez zeuden urruti; batzuk lurrean zetzaten, beste batzuk oñaze ojuka.

Baño une batean guztiak zearo gelditu ziran, Katamotza ta Paulino aurrez aurre arkitu ziran.

—Toki guri! —Paulinok— biok bakarrik!

—Ik eta nik! —erantzun zion Katamotzak begiak sutan.

Ta orduan asi zan bien arteko borroka izugarria. Katamotza ta Paulino erdiratu ziran, besteak beren aldekoaren atzetik.

Ta burua makurtuta ta besoak aurre aldera, urrengo atalean esango degun bezela ekin zioten alkarri.

# XI

## KATAMOTZA TA PAULINO

Katamotza giar utsa zan. Ez aundia, Paulino baño motxagoa; ez oso zabala, Paulino baño estuagoa; ez bso-iztar lodi, Paulino geiago. Baño gizen tantorik duan aragirik ez. Bere bezoko ala iztarreko giarretan, egiñaala egin, ez zenioke beatz-mutur pitiñik sartuko iñolaz ere. Itzatutako oñetakoekin salto egin zenezake lasaiki bere sabel larrubizian, bera lasaiago. Bazuan saltuak egiteko ikaragarritzko aalmena, eta batez ere, atzapar gaiztoak eta iñori min egiteko grin gaiztoagoa oraindik.

Paulino bareagoa zan, on utsa mutilla. Nekez asarretzen zana, baño asarretutakoan... Besoetan indarra izugarri, uste gaño ariñago ta borrokarako gaitasun gutxik alakoa.

Orain jokatu bear zuten borroka ezin bildurgarriagoa. Gañera, paulino, besteari dixidatu zionez geroz, asarre bizian zegoan eta bein asarretuta ura zan borrokalaria!

Katamotza, aldendu xamarra, batera ta bestera zebillen, etsaiaren gañera erortzeko noiz egokien. Paulino geldi bere tokian eta Katamotzaren araberan eskubira-ezkerrera aurrera erakusten. Aldizka sartu-itxurak, mugitze azkarrak; teink Paulino, begiak zuzen. Katamotzak nekatu, aspertu nai zuan Paulino, bere errotik atera. Pizti batzuek ala egin oi dute, berek atzeman duten aberea indurika nekazari, aspertuarazi, ta aberea, edo bear ez danean asi, ala alde egiterakotan galdu. Onelaxe zebilkion Katamotza Paulinori. Beste guztiak ikaratuta zeuden ixilik zertara etorri ziran ere gogoratu gabe; ezta itz bat beren aldekoa zirikatzeke.

Katamotza ez zan nekatzen bestea estutu naiean. Irria ikusi zitzaion ezpañetan. —«Il bear aut», esan zion Paulinori ondorenean. Ta «dzast» bat-batean aidean joan zitzaion. Aldi berean Paulinok bizkarra makurtu ta an joan zan Katamotza ankaz gora. Paulinok bira erdia egin orduko zutik zegoan bestea.

Oraintxe borroka mugitzen asi zan. Paulinori odola berotu zitzaion. Bigarren jazarra ez zegoan urruti. Biak alkarri begira jarrita, Katamotzak

salto egin bear zuala zirdianean, Paulino aurreratu zitzaion eta Iruingoak zintzurrik eldi nai izan zionean, usautitarrak besoak luzatuta bestearen bi beso tartean bizkarretik eldu zion. Bai Katamotzak ere. Ta tankera onetan biek bultza egiten zuten, iztarrak atzera luzatuta, idi-apostuetan idiekin ikusten bezela. Orduan bien giarrek soka bat teink jarrita moztutakoan bi muturrak askatu bezela. Orduan bien giarrek soka bat teink jarrita moztutakoan bi muturrak askatu bezela, alatsu autsi bear zutela esan zitekean. Paulinok geiago bultzatze zuan, pixu aundiagoa ta indarra ere bai. Katamotzak, orregatik, sendo iraun naiz atzeraka egin. Paulinok lurreratu nai zuan Katamotza. Ez zan ain erreza, ordea. Baño bultza ta bultza iraupena aitzen ari zitzaion Katamotzari. Ezin bada luzaroan arren indar aundiari eutsi. Bein buruarekin Paulinori arpegian jo nai izan zion. Paulinoren besoak enborrak baño zuzenago ta gogorrago zeuden.

Ta ara zein borrokalaria yayoa zan Katamotza. Paulinok oraintxe menderatuko zuala uste ta indar guztiarekin ekiten zionean, bere burua luzera bota besteak, —lenbizi ipurdiz erori ta

gero burua atzekaldera bota— zankoak jaso ta Paulino indar guztiarekin murgil egitera bezela zetorreanean, azpikoak goikoari bi oñak iztarondoetan ezarri ta bultzatuaz atzekaldera bota. paulinok bira osoa egin zuan. Biak une batean bizkarrez bizkar lurrean exerita gelditu ziran eta bat-batean arpegiz arpegi berriz ere. Zilipurdika ura «amen» esan orduko egin zuten.

—«Il bear aut, il bear aut», zion oraindik Katamotzak geldik ezin egonik. Irria ezpañetan berriz ere. Len Paulinori odola berotu zitzaiola esan badegu orain irakitzen zegokion zain barrenetan. Arrapatzen bazuan garbituko zuan. Ordea, iruindarra ez zan arrapatu errexa eta kontu gero! Borroka ura ezin zitekean askoz geiago luzatu. Aal zan laisterren, aalmen osoa jarrita, baten batek etsaia azpiratu ta gaizki ibilli bearko zuan, oso gaizki. Alkarri oratzeko gogo bizia zerabilkiten.

Oraintxe ba dirudi Katamotzak lurretik eten egin bear duala. Paulino zai dagokio, bestearen billa joan nai duala ematen du. Ta ordun Katamotzak berebiziko saltoa egiten du usauritarren gañera. Baño Paulinok ikaragarrizko arrera egin.



Aidean zetorrela jotzen du ukabillez buruan ta arranoa tiroz ilda eroriko litzaken bezela, izugarrizko plastakoa egin zuan lurrean.

Usaurikoak oju ta karraxika atera ziran iruindarren atzetik. Auek itzul egiñaletan beren automobil eta bizikletaekin Iruin aldera. Paulinok deitu zien beretakoeri, alegia iruindarrek etorri nai bazuten Katamotza il ala bizi jasotzera, etorri zitezela. Ta guztiak kantari ta saltoka Paulino erdian zutela erriko bidea artu zuten. Min artuak ezta batere gogoratzen beren miñak. Gaua zan. An ziran Manuel, Benardo, erlojerua, Arranopoleta, Krexentxio, Juantxo eta besteak. Gogoz zijoa-zen gertatutakoaz jardunean. Bein Manueli zorionak ematen zizkioten bere egitekoengatik; urrena erlojeruaz gogoratuta erdian artu ta bizkarra ubeldu arte zunbatekoka gogoz asten zitzaioten. Arriak ugari erori ziran bidean. Aldizka gora Paulino! ekiten zioten. Ta erlojerua gora! esatera zijoan batean, beera erori zan muturrez aurrera.

Antonio gajoa anka-azpian artu. Ia ostiko bat eman zion. Ortzak odoletan, zutik egoteko gauza ez zala bide bazterrean etzanda zegoan. Guztiak

batuta alkar joka ibilli ziranean, Usauriko jaietan pilarmonikarekin aritutako iruindarra, Antoniorenkin asarretutakoa, beste aldean sartu zan Antonio arrapatzeagatik. Atzetik segitu eta atxitzean ebain-ebain egin zuan. Au ere esan bear degunda. Enparantzan gertatutakoaz gañera, egun artako arratsean iruindarra kantari zegoala, Antoniok berea pagatuta —«zerbait geiago eman bear al da?», galdetu zuan ardandegian, alegia beste kantari aritu zalako. Ta txikitzeko asmotan zebilkionak jo bitartean esaten zion: —«Zerbait geiago eman bear badan? To ta to...» ukabillez aspertu arte, edo apurtu arte, erazo zion. Leenean barka, bigarreanean urka.

Nola-ala zutitu ta eraman zuten batzuen artean. Egia da, egi-egia, arengatik sortu zirala iskanbilla ta borroka; bera zala-ta, berak ezik, askok min artu zutela. Ta norbait muturreko on baten garri izatekotan, bera lenengoa. Baño usauritarra izan ura ere ta an joan zan Letxako sakristaua izana.

Arranopoletak ziona: —«Arranoa, arranoa; baldin badite, zintzotuko al aiz?».

Manuelek: —«Esak orain soñu-jotzaleak Gaztieneko lukainkak mugitu zituala kantari».

Juantxok: —«Oraindik ez dek azkena artu».

Erlojeruak: —«Iri bai aboko-zuloan eman ditekela. (Beatza Antonioren aboan sarturik). Lukainkak ezik ortzak ederki mugitu dizkik. Bi agin oso-rik eta biak ustelak... ji, ji, ji. Gaitz erdi, motel, txurruterako ez dek kalterik».

## XII

### «ITSASOA LAÑO DAGO...»

Andre Axentxi Martinen etxetik atera zan, esanaz:

—Nereak asko ez ditutala besteen miñekin gaizkitua nago.

Ta bere maatsara abiatu zan Martinen izeba. Ordea, ixkiñeko goxotegian sartuta kopa erdi bat pattar eskatu zuan.

—¿Con poco dinero poco meneo? —andrea Axentxik—. Ez nuan oraintxe aitu. Naiago nuke orduko sasoia baneuka, pasia pasa.

Ta ttotta atera bitartean patrika-zuloan usmatuta ogi-apurrak billatu zituan. Goitik beera asi zitzaion apurrak botatzen pattarrari. Ta arritu itxuran ala dio:

—Ogi prantzesa? Berak ean du. Bete ezazu beste erdia.

Martin gixajoak bai neska atsegin, baño bai aritu ere gizonki. Biotza gizonak ez du emakumearentzat bakarrik bear. Gizona beti gizon. Oreidegiko gizon epelak, larru bi ta lau anka.

Oean zetzan orain. Arriak izugarritzko zauria egin zion kopetan, kopeta eta illeak arrapatzen zizkiola. Ausarki ibillita, aurreneko tokietan, kaskatekoa artuta atzera etorri zan. Min aundia zuala igarrita ez zion iñori esan nai izan, ari zitezela gogor, jo zezatela bizkor, ez beintzat berari begira guztiak egon. Ta iñork uste gabe borroka tokian utzi ta, bide bide, orduerdiko bidean, odola arpegitik beera zeriola bera bakarrik etxeratu zan. Sendalariari deitu, miña garbitu, josi ta lortu ta buruzuri zan oeratu. Artean, irri ta santsoka garailariak zetozenean, Antonio besoan eta Martin ezta ere gogoan.

Beren eginkizuna ain ixilik eta ain poliki eraman zutelako gazteak arrotu zitezkean; baño onontzean ez ziran ain begiratuki ibilli. Ta bai orretxengatik eta bai zaurituak izan ziralako, Simon Gorra ezik, erriko guztiak jakiñan gañean zeuden gertatutako borrokaz. Baño garaipenaren poza neurritz gañetik zijoakiela, ajola zien bost gerokoengatik.

Ajola, ez ajola, errita batzuk ezik, utsean atera ziran. Erlojeruari galdetu zioten batean — «ni eraman egin naute», erantzun zuan eta

galde bera Antoniori eginda, ixilik ezin egonik, — «ori berriz ekarri egin dute» ta «ji-ji»ren ordeztan doi-doi itzul egin zuan makilkatu ez zutenean. Oriek dituzu, irakurlea, biak mallu batez joak.

Biotzean zauria ta buruan ere bai. Burukoa, aundi xamarra izanarren, ez zan ajol aundikoa. Idikia itxiko zitzaion, jost-aria kendu ta berriz ere izango zan mutil. Kaxildak ederki zaitzen zuan bere anaia. Bi bear ere. Len esana daukagun bezela, anaia-arrebak bizi ziran bakarrik, gurasorik gabeko seme-alabak bai ziran. Erriko sendalariak sartu-aldiak egiten zituan etxe artan. Gizon atsegiña ala ere. Jardunean ederki gozarazten zien beta. Mugaz beste aldean asko maite omen zuten. Aras errira joaten bazan ez zan aterik bertatik deituko ez zutenik. Europako gerratean zenbatetan ez ote zan joan Prantzi menpeko erri artara bertako sendalaria... sendatu bearrean iltzera eramane zutelako. Eta Usauri erriak ere zenbat ogi ta arraultza ez ote zituan bidali arasko gizajoak bizi zitezene. Usauri ta Arasen erdian muga ta berek tajutu gabeko muga arene joan-etorriagatik alkar asko maite zuten. Len

Usaurikoak Araskoengandik laguntza artuak ziran ere. Orra bi benetako euskalerrri.

Ta onelaxe kontatzen zituan zenbait gertae-  
ra. Baño Anakleto zarra bakarrik bizi zanaren  
eriotzak bezela ez zion eriotzik orrenbesteraño-  
ko ikutua egin. Auzokoek deitu ta etxean sartu  
zanean gorputz zegoan. Sukaldean sartu zaneke  
batean karioletako txori guztiak goseak ilda,  
orduari geldik.

Adiskideak ere, tarteka, etorri zitzaizkion  
Martini. Guztiek aitzaki berbera, alegia berei  
esan balie, ez zutela zaurituta ikusi, ikusi balute  
zer esanik ez berari laguntzen egiñaala egingo  
zituztela.

Manuelek zion: —Naiago nitek ire miña artu  
ta ez Paulinoren borroka ikusi gabe egon; baño il  
bi kalte izan dituk.

Arranopoletak: —Garbitu genizkiken, baletoz-  
ke berriz.

Erlojeruak urrena: —Ez ote dik Antoniok  
buruan kok egin?, orrek ortzak galdu dizkik.

Ta Antonio asi zanean guztiak parrez lertu  
bear, Martinek ere. Ortzen bearrez itzak «fi-  
fa»ka zijoazkion abotik kanpora: —«orrenfeste

istillu arri koxkor fatek fi odol tanto atera dizkiolako».

—Eta ik non dituk ortzak an «granorik» azaldu ez bazan, edo iretsi egin itukan?— ekin zion Juantxok.

Erlojeruak: —Balijoake Iruinera... berriak jartzera.

Urrena Paulino sartuta eskua luzatu ta alazion Martinek: —«Nere osto zimela josi akiok ik ondo irabazitako garaipen-uztaiari».

Zer par-egin ederki ematen zioten Martini aietako batek edo bestek etxeratzen zitzaizkionean, buruko miña izanagatik. Zauriagatik baze-gokean txutik lotarako baizik oeratu gabe; baño odol-ixuria mara-mara joan zitzaiola-ta, ederki auldu zan gaztea. Zurikail eginda nekez zijoakion bakartasunean arratsaldeko beltzurra.

Oean gaxorik gutxitan gelditzen danarentzat ez da jasangaitzagorik arratsaldeko ordu triste luzeak baizik. Gaxoa bere buruaz erruki da. Bat da osasundunen mundua; bestea osasungabe-koena. Donostian izango baziñateke, erriko eritegia ta zezenlarien plaza aurrez-aurre ikusiko zenituzkete; batzuk gogoz ojuka, besteak oñazez



karraxika. Bizidunen eta illen munduen tartean gaxoena jarri diteke, ez bizidunak ez illak ez diralako. Eta askotan zenbatek nai lukete, gorputzari atsedena ematearren, eridun mundutik illenera joatea! Ta naiz Martin orren tankera ikaragarrian ez egon, ezta gutxiago ere, bere arreba zeregiñetara joanda bakarrik uzten zuanean, kanpoko argia ta bizia nai.

Gela ixiltasun gorrenean zegoan. Leiotik zear, oean zegoala, zeru-apai urdiñaren puska ikusten zuan. Aren azkena zein goian zegoan! Bigarren atsaldez ikusten zuan aurreko etxea eguzkitan piztuta. Eguzkia berantz zijoaneko garaian itzala kurkulloa bezin geldiro gorantz zijoan, azkeneko leioa atzeman, gañeko tellak atxitu ta plist! urrengo goiza arte printzarik ez ikusi.

Eguna joaten dan garai ortan guztia bukatzen dala iruditzen zaio eridunari. Txoriak ere joan oi dira. Erria ixilpean. Orrengatik otsa zabaldu egiten da. Ta urruti xamar ez badago ongi entzuten da. Martini nabari zitzaion Gaztieneko itz-susmura. Aiek an, bera oean. Baita ere belarriratzen

zitzaizkion mutil bat edo besteen oju zolia, itzai baten «aida» ere bai.

Udazkenean «gaztain erre-beroak!» ojuztazen duan gaztaña-saltzale andre lodi aren tokian, kaleko muturrean, orain «bostean bi laranja!», beltzez jantzitako emakume batek. Arrotz batek «mielero, miel, miel di Alcarria!». Ondarribitik etortzen dan emakume arrantza-leak, bestetan karramarroak ere saltzen dituanak, abots bizi batez «txardin bizi-biziaaaa...!» deadar egiten du.

Ta kristaurik ikusten ez badu ere, ojuak, mamuen itxura artuta, kaleetan barrena, bi zanko zintzilik iruditzen zaizkio Martini. Martinek ederki daki zein garaitan zein ojulari etorri bear duan eta len noizbeingoak zerizkionak, orain berak oiezko garaian egunero pasatzen dirala badaki.

Irakurlea konturatu bedi alako zori txarrean biotzako zauria nola eukiko zuan. Gure mutilla oeratu zanez geroz, garaipenaren berria jakinda, Mirele besterik ez zuan bere buru gaizkituan. Lenbiziko egunean alaitu zan artutako miñaz. Alegia bera orren tankera txarrean zegoela jaki-

ñik, maitasunez ikututa beratuko ote zan, mutilla erruki ta naia xamuturko ote zitzaion. Martin pozik zegoan berarengatik neskak ere biotzean nekea zeramakealako. Ez berari gaizki nai ziola; ala balitz, benaz bereganatuta zeukalako baizik. Eta berak oartu aal balezaioke, ordañak tontorka emango lizkioke. Berak ikusi Mirelek zer egin. Ber bazan, eskumuñak emango zizkion. Ura poza ala balitz: —«nola esan dizu?», galde-tuko zion zekazkienari. Agian jakin naiez beterik Kaxildagana joango zan. Ura zoriona baldin ala gerta: —«ni ikusteko gogorik ez al dizu erakutsi?», egingo zion bere arrebari. Albait... bere etxera etorriko ote zan? Ura zoramena orduan. Etorria ezajola egingo zion Mirelek, berak bazekian ori, emakumeak alakoxeak izaten dira; artean barrenen naiko lan.

Laugarren aldiz ikusten zuan Martinek gañeko tximini muturra illuntzen. Ta iñondik susmorik ez. Lau eguneko beltzuria pillotu zitzaion gizajori. Edo ala iruditu beintzat, maindireak kokotz azpiraño ezin ekarri. Baal zitekean Mireleganako usteaz orain ere oker egotea? —«Baño egia zer da ta zer gezurra?», egiten zion bere buruari. Ta

kontuak aterata adiskidetu ziranez geroz bi bider eman zion eskua; bein iturri ondoan, esku bustia; bestea eskaratzean, esku beroa, biak alkarrekin, bakarrik, egon ziran apal aurreko artan. Berak luzatu zion eskua. Ta Martinek gogora ekartzen neskatxaren ibillerak, itzak eta xeetasun guztiak.

Martin ez zegoan oker. Berak ala zion. Alkar arteko begitarte ona egiazkoa zan, benazkoa. Ta bere burua gutxietsiko al zuan galdetzeagatik? Ez al zuan Josunek galdetu, ostatuko neskarekin zer ikusi gutxiago izanagatik? Eta beste buztiak?

Ta Martin guztian zuzen zegoan onetan ez besterik: beste iñork baño zer ikusi geiago zualako, orretxegatik beragatik, ez zuala antzik eman nai.

Gañerakoan, an bakartsu zegoalako, ezerk galazten ez ziolako, Martinek jator zeukan adimena. Oiezeko argitasunarekin milliskatzen zituan burutapen ariñenak. Ez zan itxu-mustuan ari zan mutilla. Arrika aritu zalako neskari itxuski iruditu ta muxin egin ote zion pentsatzen ere jarri zan. Baño orretaz ez zuan bururik autsi nai,

ez zitzaion atsegin neska bati mutilla adoretsua ala koldarra berdin iruditzea.

Ordukoz buruari geldialdia emateko gogoia etorri ta ala galdetu zion bere arrebari:

—Esaidan, Kaxilda: nortzuk galdetu ditene neregatik?

—Ba apaizak, botikarioak, bere bi alabek ere bai; Santusteneko andreak, mugazai gazte orrek, Juantxok ere bai, berriz goizean...

—Baño ire lagunarteko neska oriek..., —geiagoe eziñik esan zion anaiak.

—Ba Josunek, Esterrek, Bittorik.

—Ez iñork geiago ez?

—Ez.

—Ea ondo gogoratu.

—Ez det uste.

—Nortzuk daude or leioko bean?

—Ba mutil gazteak, neska batzuk ere bai; Margerite ere ortxe dago.

—Utzi nazan pixka batean, arren, bakarrik. Lo egingo diñat.

Lo... zera. Len baño okerrago. Atal onen izenarekin asiera duan kanta ezpañetan zerabilkian. Biotza eztarriraño igo zitzaion.

Odei beltzak beteta alkarganutzen diranean euria botatzen dutela diote.

# XIII

## IDEKOAK ALKARREKIN

Goizetik euriari erazo dio ta akabo, segi ta segi... arratsaldeko laueta oraindik ere lanbro-tua dago. Euri mamela ari ta ari egun guztian. Balkoi burnietan txir-txir bustia bustiaren gañean. Burnietatik beera, berriz, tanto lodiak. Kristalak tantoz josiak. Lengo baten gañera etorriberria erori, aldamenekoa ikutu ta txalburuen gisan jeisten dira bidean atxitzen dituzten beste tantoak iretsiz. An-emenka ari dira txalburu txuriak. Guztiak oartu naiean begiak igortzi genezazkike.

Urbide-tutuan tan-tan soñu nabarigarria eten gabe.

—Jakin nai ziñan eta jakin din.

Burua altxa gabe, orratza eskuan, lanari ekin bitartean jarraitu du Bittorik:

«Iruingo dentista arrikalariekin batean izango ote zan bururatu zitzaionan eta nai ez ziñana jakin din; baten billa, bestea etorri. Nonbait gazte ori baezpakoa den. Iruindik Endayara

omen zijoan dantzategi batera, tranbia betea egoki ta neska baten magalean. A zer bi!».

Orratza oialatik pasata «nnn...!» egiten zion batere konturatu gabe.

—«Neskak txamarreko patriketan sartzen omen zizkion eskuak...».

Ta «nnn...!» berriz ere.

—Josune gaxoa! Neskak alakoxe txatxoak gaitun. Ori zoratu den eta naiko lana bazeukan bere buruarekin —ari zan Ester—. Bat atzetik, besteak iges. Berek nai dutena guk artu bear. Ez zeukanagu guk autatzerik. Noiz etorriko ote da mutillen atzetik ibiltzeko ? Bidean ote goazen nion. Aiek nai dutenean etorri ta guk zai egon bear. Ezetz esaten badiegu —eta nork esan!— bost ajola die ta bestea billatu. Guk ez zeukanagu orrelako maukik. Guk naita ere egon egin bear. Dantzan neska-pil aundia ikusten diton, zer nai ura iritxi, non nere gogoa an nere ankoa. Guk antxoan bat ikusten badiñagu, non bere zankoa an gure gogoa. Josune ondo neska ederra den. Zer nai ote din xanko maxkal arek?

Euriak baño jasa gogorragoa zekarren Esterren berriketako gogoak.



—Mutillen atzetik ibiltzeko «moda» dion?

—Bein oitura jarriz geroz zer lotsatu ez litza-  
ken. Beintzat aukera izango genuk: non gure  
gogoan an geren modoa. Nik neretzat bazekiñat  
nor mokoratuko nukean.

Indarka bazan ere barrenean zebilakia bota  
zuan.

—Ja, ja, jai! —ekin zion Bittorik. Eta andik  
pixka batera: —«Orduan orain baño ostiko geia-  
go botako lizkigutekenan gizonak. Ez lieken poz  
txarra emango!».

—Ez, ordea, erlojeruak emanda, Antonio  
bezelako batek emanda. Atzo or itunan ordi-  
urde, lengoan arrika irabazi zutelako garaipena  
jaitu bear omen zutela. Antonio ta erlojerua bi  
zankoak baño adiskideago: badakin, bat irrista-  
tzen bada besteak bereala eutsi. Antoniok sudur  
aurrean zeukanan platerka, zaldi batek ostikoz  
bota ezin alakoa, gero min berritua bano okerra-  
go jarri ta azkenez, lo. Orixe badago batxo. An  
aritu itunan alako indarketan «jan igualian» nor  
baño nor geiago izan. Martin bai, eskolako erlo-  
jerua baño seguruago...

—Bai, Martin, ura joan bai baño burua noren-gana dijoakion badakin. Kopetan artutakoarekin orbana geldituko omen zaion, baño ez al den uste non zauria aundia ez badan, gizoneri askotan eder diela orban bat edo beste arpegian? —galdetu zion Bittorik.

—No, orixe igarrita natxion orain baño len. Bein baño geiagotan ori berbera oartu izan diñat. Martin dana dala ere mutil egokia den. Orra asko poztu naun bera sendatzea. Ala ere kopetillun zebillen egun auetan. Orren gogor eldu ote zion Mireleganako maitasunak? Ondo, oso ederki dagoala berberak zion, zer ote du goibeldu lezakeanik? Maitasun arazoak, orain txarrak len gozoak.

—Maitasunak miña berarekin dakar. Al litzake onena iñor ez maitatzea? Ez. Maite ez duanaren bakartasun miña, ain garratza ez izanarren, okerragoa da: bizi guztian irauten duana ta bizitza larriegia egiten duana. Maitasunak gozame-na dakarkigu; onen ondoren, askotan, naigabea. Badira maitadunen artean min gutxidun batzuk, besteak min aundidunak: aiek zorionekoak, auek zoritxarrekoak. Gure bizitza alakoxea da: maita-

tu egin bear degu, Jainkoa, gurasoak, adiskideak... Nik zerbait geiago maitatu nai nuke, baño zein artzen dan begiratu bear zaio: txanpon baten atsegiñak eskubete zoritxar ontzurre ez dakarkigun.

Bittoriren itzen atzetik tin-tan, tin-tan, tristia, ari zuan.

Ester euriaren tantoak ugaritzeko gai zegoan, alegia begiak busti-busti zeuzkala.

—Neska —esan zion— oraintxe biotza ondo beratu didan. Ez ezanala xamurkeririk esan.

—Baldin, Ester, nik irakurritako liburua irakurriko baunan, beratu ta xamurtu ezik, bigundu ta guritu lizaiken biotza. Ai, ori irakurgai tristia! Oraintxe atera berrian den, euskerazkoa.

—Esaidan ba, Bittori; egualdi onekin eta ik esan bear ditunanekin aras motelduko gaitunalakoa nion. Non gertatutzat zeukan egilleak irakurgai ori?

—Moteldu edo mutildu... urruti, ez da Euskalerrian gertatua, naiz irakurgai orren lenenburua euskalduna izan. Irakurgaiaren izena auxe da: «Berrobitar Danel». Au omen zan ogeitabi urteko gaztea, Amsterdamentik irten eta Oslora zijoana.

Tira, nik ez dizkiñat xeetasun guztiak esango, axaletik baizik.

«Amsterdameko kai aundia nolakoa dan eta zenbat ontzi dauden esaten din. “Finland” ontzian itsasoratzen den: Itsasoko ikustea, eguzkiaren jaikitzea uretan, gau zuriak, ontziko bizi-modua ta abar. Alderdi au polita den. Beste toki batean ere esaten din Oslori Sanjuanetan ordu bateko gaua izaten dala —gaurik motxena urte guztian— ta aitzaki orrekin asko-moduzko jaiak eta dantzak egiten omen dituzte “gau zurian”».

«Beste askoen artean, ontzi berean —lengo bidetik jarraitzearren— ama-alabrak dijoaz: alaba, amar urtekoa; ama, oso gaztea. Neska ta Danel adiskidetu dira, gaienean beragana dijoakio neska txikia. Amak pozik ikusten ditu bien arteko jolasak eta oso begikoa zaio alako gizaseme jostalaria.

—Baño adizan —ekin zion Esterrek— eta Danelek, bai al zekiñan Noruegako izkuntzan ala berek egiten al zitenan Danelen erara?

—Ez din jartzen; baño bear lukela deritzat. Gauzak berez dijoazela, bada, ontzitik ateratzeko garaia irixten zaie. Legorreratuta alako min

aundia dute alkarri agur esateko, geiago ikusiko ez bai dute. Danelek mun ematen dio neskatoari. Neskak negar eta Noruegatar emazte politik burua makurtzen dio Daneleri onek ginbilla kenduta abiatzeko asmotan asten danean.

»Aurrera jarraitu baño len, egilleak ontzieta-ko gizartea nolakoa izaten dan adierazi nai luke. Zer dala-ta gizon-emakumeak geiago alderatzen diran alako topo aldietan. Agian arrisko berbera izateak alkarren ondora ez ote dakazkien. Ala oi dan bizilekua utzi ta bakartuta errezago batabestetu ala naiak aisago azaltzen ez ote diran.

»Urrena Oslo erria erakusten zigun. Danel Oslon zer nola dabillen. A, ta adiskide bat bazeukala esatea aztu zaidan. Bruck izenduna, Suizako semea, Danelek Bilbaon ezagututakoa.

»Biak alkarrekin joaten ziran goizero ondarre-  
ra, an igari jantzian jolasean aritzen ziran. Soziedade bateko sozioak egunero, edo maiz beintzat, jolasbidetzat borrokaldi ikusgarriak egiten zituzten. Bruckek zirikatuta gurea ere tartetu zaie ta nonbait gizaseme bikaña izaki Danel, sasoiez-  
koa; bertakoek asko aundiesten gure indarkaria. Guztiak menderatzen zituala ikusirik egun batez

gogorrenarekin arituta izugarrizko borroka egin dute».

—«Neska, izketan nekatu naun» —arnasa artuaz egin zion Bittorik.

—Segi zan, segi zan, bairudin, eori aritu iñala nork irabazi ziña?

—«Ba ustegabeko aldarte batean, garrondo-ko erraiak geiegi estututa-edp, Oslotarrak ajola aundiko miña artu din. Gaxotegira eraman diten».

«Euskalduna borrokalariaren etxera joan da barkapen eske, Bruck eta sozio bat edo beste berarekin dituala. Aita atera zaio jakiñaren gañean eta joka asi ia eskalleratik beera botatzen duala. Lagunak tarte direla ez da oker aundiago. Danelek ez dio gorrotorik artu aita dalata, bere penaz errukitu zaio.»

«Il da borrokalaria gaxotegian...».

—E? Jesus, ene!

—«Poliziakoak Danelen ostatura joan eta kartzelara daramate».

—Jesus, Jesus!

—«Urrengo atalean kartzela nolakoa dan eta barren artan Danelek zer bizitza daraman astiro

esaten din irakurgaiaren egilleak. Bai negargarria dala!».

—Danel gixaxoa!, segi zan, segi zan.

—«Epaibidean jartzera dijoaz Danel. Sozieda-dekoek lan gogorra darabilkite bere alde. Alargunari jakiñan gañean jarri diote ondarrean gertatu zana egia esanda. Bere aitak egin zion arreraz errukitu zaio. Min ematen dio itxuraz ona izan bear duan mutilla naigabekoa izan dala-ta ain luzero kartzelan egoteak, bere erritik kanpora, bakarrik, oso atsekabetuta, arek izango duan garbaiarekin.»

Daneli kartzelan ikustaldi bat egiteko gogo datorkio. Gero ta ikusi-nai aundiago ta erruki geiago daukatio esipeko gaxoari. Lau illabete dirala ikaragarria gertatzen da kartzelan, biotzak pir-pir jartzikoa etorritako alarguna «Finland» ontzian ezagutu zuan emazte lirain gaxoa da!»

—Ai, ama! —dio Esterrek.

Ta Bittorik, nekez bada ere, darraikio:

—«Begiak iturri-jario, itzik ez ta zotiña bai, atera egin da alarguna. Aren samiña! Beraz, Danelen biotzak dio, ez senarrik, ez aitarik...».

—Nola aitarik ez? Ai, neskak!, segi zan, segi zan.

—«Osterontzean ikustaldiak maizago. Ezin egon alarguna Danel ikusi gabe, maitasunaz ikututa? Danel mutil onak erruki aundi bat baizik ez du famili arenganako ta onginaia besterik ez».

«Egun batez alargunak bere maitasuna erakutsi zion. Danelek alarguna begi on-enez ikusi, ezin ontzat eman bien arteko maitasuna; bera tarte zala, ez al zuan senarra galdu?».

«Juezak Danel kartzelatik ateratzeko oso egun gutxi palta dira. Alargunak bai daki askatuta betiko aldegingo duala. Ezin, ordea, alako ustea eraman eta gero ta geiago arrenka ari zaiola, alako biotz-oñaze batean ezezkoa ikusirik esaten dio: “Emaidazu, bada, kendu zeinda senarra!”».

—Oi, ene!, segi zan, segi zan.

—«Danel kartzelatik atera da. Zorrotoa eskuan ontziratu baño len bere borroka-kidea datzaneko ildegira negar-agurra egitera joan da. Ontzian sartu ta itsasoz eta legorrez Euskalerriratu da».



«Etxean dagoala Osloko Brucken karta artu du. Bertan esaten dio Miren alarguna il egin dala. Ildegian izanda, alkarren berri ez zekitela, Danel belauniko ta buru utsik bere senarraren iilobian ikusi zuanean, min egin zitzaiola, “bi senarrak” galdu zituaneke tokian atsekabez nola il zan.»

—Neska ixil di! Ori kontu tristia! Maitasunaren atzaparrak! Bai al du geiago? Segi zan, segi zan.

—«Oraingoan bukatuko diñat nekez eta gaitzez bada ere. Nik egin dizkiñat negarrak ori irakurtzen! Ba istoria au zortzi urtez geroz luzatu egiten da. Ibone alabak, berberak, karta egin zion Oslotik Danelekin ezkondu naiez. Ibonek kantu triste onen xeetasun guztiak jakin. Ibone emezortzi urteko gazte lirain argi ta biotz-bera, ziñez; bere gurasoen maitalea bazan, Danelen biotz onaz maite ta erruki zitzaion ere. Kartarekin batean bere irudia bidali dio. Ta Danelek ikusita esan omen zuan, “Finland” ontzian jostatzen zuaneke neska ezagututa».

«Azkenik “zeruak ala naiko du ta ez natzaion gaizto” esanaz, Oslon ezkondu, ildegian izan eta

erri negar-erazle ura utzita zoririk onenean bizi izan ziran Danel eta bere emaztetxo polita».

—Oraingoan bukatu den —asmatu zuen Esterrek—. Baño ez zekiñat, azkeneko zorionak ez dit osoro kendu lengo zorigaiztoa. Danetara ere naiko lan izango ziñan egilleak Ibone mutillari nola maitekatu zitzaion egi itxura emateko, ondo egin badin ere, naiz eta urte kontuz leiatu.

—Bai, azkeneko ori ez zitzaionan erraza izango ta baliteken bear ainbat lortu ez izatea.

Onetan atea idiki zan eta Bittorin amak ala dio:—Gaur ez al dezute merendatu bear?

Ta argia piztuta, illun bai zegoan, arrituta:

—Zer dira arpegi oriek! Baño euri txirrioa oñetaraño etorri zaizute!!!

# XIV

## ERRETOREA TA ARROTZA

—Atoz barrena, atozia gizona... Ez dio ajolik... Baldin iñora joan bearrik ez badaukazu! Beraz, Usauri aldean... ederki, ederki. Ortik, ortik... orratx.

Usauriko erretore jauna gaztanbera baño bigunagoko gizona. Don Inazio on utsa zan. Ta ontasunak berarekin dakarren pozaz gañera, atsegiñez beterik zegoan arrotz batekin arkitzeaz ta oraingoa beintzat aditzera ezagutzen zuan.

Arrotza, zankoa zertxobait altxata —erretoreak atzetik zekarrela— barreneratu zan, illunperatu zan. Ta ez ikusteak batetik, eta bestetik lurreko ugarriek ematen zioten geldik ezinego-narekin, nora zijoan ez zekiala, bazebillen erretorearen susmoaren atzetik eta noizbait ate argiduna ikusita aratu zan.

Atea zabaldu ta sartzeko ta sartzeko, erretoreak. Ordea, nekezkoa zitzaion arrotzari aurrera sartzea. Beñere ez bai-zan apaizetxe batean

izan! Noakoak ote ziran apaizen etxeak! Berak ba al zekian iñoiz belaunikatu bear bazuan ere!

Baño bear zan bear ta gure gaztea aurrera. Arrituta gelditu zan. Jangela ura beti ikusi oi zuan bezelakoa. Mai aundia erdian zapi zabal batekin estalia; zapiak txirikordak zintzilik ertzetatik. Mai gañetik argi-ontzi potxolo ederra sabaiatik beera; orain «buffet» deritzaioten apalategia. Silla txukunak ederki bazterreratuak. Irudi batzuk ormaetan zintzilik. Erretoreak non exeri adierazi zion eta, aldez beste, aurrez aurre jarri ziran maiaren ondoan. Erre zezakeala.

Oraindik ere ezin zituan alkartu Don Inazio-ren jantzi beltz luzea ta jangelaren ikustea. Arroztzak elizan ala kalean beste iñon ez zuan apaizik ikusi. Ta kezkatuta bazegokion ere, ango ixiltasunak, ango bakartasunak eta berak antzematzen ez zion beste zerbaitek, erretorea bezelako gizon on, txukun, burutsu ta leial batentzat bizi toki egokia zala adierazten zioten. Ta bere gisaz pentsatzen erretoreak uzten zion tarte aietako batean, ea —bururatu zitzaion— ardandegiko usaia jantzian sartuta zenbait gizonek etxeraño

ekartzan duten bezela, ez ote zuan erretore jaunak elizatik kedats-usaia ekartzan.

Arrotzak belarrari tink eta, kearen atzetik begira, zuritu egiten zitzaion apaizaren irudia.

—Badakit, botikarioak esanda —asi zan erretorea— lengoan oso jardun yayoa izan zenuala berarekin izketan, gauzen azken-apurretako txikitetasunaz eta neurtu eziñeko txikien aldera bezela aundien aldera ere aritu ziñatela.

—Ez ba —egin zion arrotzak— egidanean axaleko ikutzea zana sakoneko buru-sartzea irudiaziko zion egia aundituta. Igela ez da txalburu aundia, eta neurrik gañeko egia ez da egia ere. Gai orietzaz zerbait aritu giñalarik, ez uste orren jakindun ibilli nintzaionik.

—Bai, bai, asko ikasia omen zera ta buru-belarri egon omen zitzaizun zure izketaren atsegiñaz.

Arrotza lenengoz nabarmendu zan alako aundikeriekin; baño, apaizak zionez geroz, egiaztat izango zuan eta botikarioa ez zitzaion bada apaizari «berritxu» arituko. Orduan konturatu zan nolako atertzea egin zuan erri artan eta uste orrek asko txurikatzen zuan. Apaiz-burua ta boti-

karioa adiskide zeuzkan eta Usauri zalako erriska artan ez zan bakarrik galduko. Gogoetak kearen bidetik zijoazkion.

Baño bat-batean «kopatxo bat artuko dezu» esanda exeri-tokitik biziki jaiki ta apalategira abiatu zan erretore jauna.

Arrotzak «ezetz» eta «ezetz» esanagatik, erretoreak atetilleri tira ta beso beltza luzatu zuan apalategi barrenera.

Apaiza neskame ikusteak (ontziak eskuan) berriro asaldatu zuan gure gaztea. Berak ez zuan beñere apaizik etxe-bearretan ikusi. Arrotzak «ezetz» eta erretoreak «baietz» bereganatu zitzaion. Arrotza txoil estututa zegoan. Ia aitor-tzeko besterik apaizak ezagutzen ez eta bere nagusi ta erretorea morroi ikusteak oso larrituta zeukan. Botillaren txuri arek ur bedeinkatua edanda obenik egingo ez ote zuan bururatu zitzaion. Bere burua lotsagarrituta, agian ez ziola kopak onik egingo, ez zegoala oituta, esan zion, eta, egia esanagatik, bestela edozein tokitan edan zezakeana, ez artzea lortu zuan. Erretoreak ez zion eskeñiari geiago eragin, ez bai-zin eman nai gaitz egitekotan.

Lengo erara aurrez-aurre jarri ziran Erretoreak betiko arpegi atsegiñarekin «ederki, ederkiki» zion. Arrotzak ezin ezere asmatu, ikararen kondarra biotzean zeukala. Orma erlojua asi zan eta orduantxe bazirudian ango utsunea arek beteko zuala. Bostak jota aren mintzaldia bukatu zan. Len baño ixillago. Ordea, zerbaitek piztu zituan. Erretorearen etxe-atze aldetik, ez urruti, izketan ari ziran.

Andre Axentxik ala zion:

—...Orrengatik dabil ori dagoan baño obeto bere burua egin naiean. Aundi-aldera eman du. Orrek baño egon gutxiago egiñak bagera lau baño geiago munduan. Ez dauka estomaoko giralla txarra. Esango nuke... baño ez nau barrenak agintzen. Nola bizi naizen? Bi seme, biik armetan; mendia bete ardi; etxea-bete ganadu; anima bakarra. Nola bizi naizen!

—Hay que defender a la Patria.

—Zer Patria ta Filio!

Erretoreak eta arrotzak parrari eldu zioten. Orduan erretoreak esan zuan:

—Ori andre Axentxi zalapartan dezu. Katuak urtean bost duroren kaltea egiten omen du. Dion

guztia berari sinistekotan, ez da nekerik bera-  
rengana jo ez duanik, ez da lanbiderik gañeratu  
ez zaionik, ez da zoritxarrik atzaparrak luzatu ta  
gaitzegin ez dionik. Artean, egia da gaxoa  
lanean gogotik aritzen dala; egia ere zertaz  
mindu badaukala, eta orobat egia bere biziera  
neketsua zertxobait arintzeko gozagarri zer dan  
badakiala.

Erretoreak begietan ezagutu arrotzari aditu  
ziola ta andre Axentxiren berri iñori adierazteak  
kezkatuta, urrena jarraitu zuan:

—Erri auetan, bai Usaurin eta bai Errondo  
nere errian, erritarrek alkar ondo ezagutzen  
dute. Errian izandako egiteko guztiak —onak eta  
txarrak— orok badakizkitez. Bakoitza bere izaera  
dan bezela azaldu oi da. Ta ainbestetan alkarre-  
kin egoten dirala-ta, alkarren berri ederki jakin oi  
dute. Bakoitza, ura bera ta ez beste. Noizbait  
okerreko ustea sinistarazi diteke; baño ez betiko  
alkarrekin egonean. Erritarrek, beste edozerk  
baño, esanak, ibillerak, egintzak, obeto norbere-  
tzen dituzte, nor nor dan azaltzen dute...

—Etsa orretxengatik —ekin zion arrotzak—  
izaten da izengoitiz deitzeko oitura. Jolasgarriak



izaten dira zenbaitzuen izengoitiak, ain zeatz  
asmatuak, ain bete-betekoak. Izengoiti egoki  
batek beste edozerk baño obeto adierazten du  
nortzaz ari geran: ura bera ta ez beste, len esan  
degunez. Alako bat edo besteen ondo ipiñitako  
izengoitia gogoratzen zaigunean irrigarria izaten  
zaigu. Edonork izan lezake izen bat edo beste;  
baño izengoitia arena berarena. Oitura itsuskia  
dalarik, alkarri min ez ematekotan, or nonbait;  
ez, ordea, geren santu izen ederrak baztartzera-  
ño. Baño errixkaetako alkarren berri jakite orrek  
gaitz askotatik...

—...aldendu lezazkike erritarrak —artu zion  
aria erretore jaunak— eta orretaraxe noakizu.  
Gaizki-egin asko ez lirake izango gaizkillearen  
izena zabaltzekotan. Likitsak ez du nai bere likis-  
keriak iñork jakitea. Geienaz ere bera bezelako  
lizuntzaleeri esango die. Saguzarrek argiari iges  
egiten diote. Eta errixkaetan argia izan oi da. Erri  
aundietan soka autsita askotxo ibiltzen da. Usau-  
ri erri zintzoa dezu. Eta pozik zabilta zu gure  
aldean?

Arrotzak gizalegez erantzun zion. Bigarren  
aldiz erre zuan. Zerbait geiago ere izketan aritu

ziran; baño ez irakurleari ajol aundirik dionik. Egonean arrotza zerbait lasaituarren, ateak deitzen zion. Eratsua zalarik ezin zakarkeririk egin. Erretoreak zenbat egun egoteko asmoa zeukan galdetu zion, berriro ikusteko gogoz. Azkenean zutitu ziran, lengo bide illunetik atera ta eskuak estututa erretore onaren arpegi kutuna!

# XV

## GARRATXA

Geienetan, ez erretoreak, ez botikarioak, ez dira bertakoak izaten erri batean. Ta erretorea Errondokoa zan bezelaxe, botikarioa orain gogoratzen ez geran Naparroako aldendu xamarreko erritarra zan. Ori bai, Usaurin urteak zeramazkiten biek.

«Garratxa» zenbait seme-alaben aita zan; beti-beti orrazia ta guraizeak sakelan zerabilzian. Gure gizonak, ez bat ez bestea, ezin izaten zuan billatu etxean. Ta bein bere apaingarriak berarentzat bakarrik erosi ta «or konpon».

Eman dezagun etxean bear ditugun gurai-zeak arkitu gaitzak izaten dirala. Baño gizon orrek orren bear aundikoa al zuan orrazia, goizean jaiki, txapela jantzi ta etzateko garai jatorra arte ez kentzekotan? «Garratxa»k goizetik txapela jarri ta etxean eta kanpoan beti tankera berean.

Sendokotea gizona, beltzarama, orain ere an zebillen arrotza noiz ikusiko ote zuan zai, jo gora

ta jo beera, bere dendatik erlojeruaren lantegirako bitartean (jai ez izanarren orduan ere itxia zeukan lantegia zaia baño alperragoko arek).

Pozik zegoan arrotzaren etorrerarekin. Beti bateko gizonarekin aspertu ta alpertu egiten da, «Garratxa»k zionez. Arrotza askoz gazteago izanagatik, «Garratxa»k ez zeukan aitzakirik bera baño ura jakintsuagoa zala aitortzeko. Baño ez zezala uste bera nolanaiko botikarioa zanik. Egia arrotza eratsua ta apala zala izketan.

«Garratxa»k jakin gauzetan aintzakotzat artzea nai. Ta naiz arrotzari zor zaion arrera ona egin eta naiz beronen geiago jakiña aitortu, ikustekoa zan «Garratxa»ren ondo ta txukun itzegiteko leia. Gogoan zeuzkan aurreragokoan tarteka pasa zizkion itzak: «buru barrengo begiak», «ikuste lañotsua», «zentzuko lanbroa», «gaztetasunaren lurrin gozoa».

Bai, nosk; «Garratxa», bat, eta an joan eta etorri zebillen gizona, bestea. «Garratxa»k begiak zabalik baño ez ilusten; ezta ere bururatu bere ondolik pasatzen zanak an-emenka eten gabe ikusten zuanik. Birakoan bazirudian begietako ilusmena lurrean tinkotu ta gorputzak aren

ondotik itzulipurdia egiten zuala. Bestetan, orko  
olaetan izaten diran ugalen lotumuturretako koz-  
korrak aruntz-onuntz dabilten gisara, aurrera-  
atzera zebillen Usauriko botikarioa.

Arrotzak aguro ezagutu «Garratxa» ta zein  
asmoak zerabilzkian ere bai; baño ezin aldegin,  
zapel-kapelek bereala igarri, ta ain arrera ona  
egiten zionez geroz ezin ba bazterreratu. Bieri  
alaitu zitzaizkien ezpañak eta orduantxe «Garrat-  
txa»k eta ibilli-bizonak bat egin. Bere aldiko poza  
artu zuan.

—Orain egiten nion nere buruari —urrutitik  
asi zitzaion— lengoan aritu giñan azken-apur ta  
eletrezidadazko apurren buruz, baldin indar ori  
guztia atxitu aal bageneza, zein erraza litzaken  
gurea bezelako erria («gurea» zion) bat-batean  
ezereztutzea. Ta geren ondorengoek esango  
luteke...

—...esango lukete —erantzi zion arrotzak—:

Or ikusten dezun zelai eremua

Saso batean Usauri ospetsua.

—Ederki, ederki, «adiskidea» —ta gogoz ta  
maiteki estutu zizkion beatz ezur-biguña.

Arrotzak bereala usmatu gañera zetorkion guztia; ezin, ordea, aldendu ta zetorren zetorre-la etsitu zan.

Ikusi degu: «Garratxa»k lenengo itzekin erria ondatu. Zein arlo gaitz eta nekagarri ote zerabilkian bere «buru barrengo begietan»? Gure gizonak bakarrizketari jarraitu zion; orain, ordea, arrotzak entzuteko eran, len ixilik asia zeukana. Ta arrotza aukeraz arrapatu bazuan ala ez, ta jarraipenari asiera bazegokion arretarik egin gabe, itzak ondo esanda, eztarri-zulotik kanpora ortza tartean oreto bear balitu bezela, onelaxe gañeratu zion:

—Izadia bear guztietarako lain bai da. Guk bear degun alia ezik, izadiak nai aña argi, bero ta indarra demaizkiguke. Jakin jakin bear da: artubideak arkitu erraztu ta aalezkoak egin. Asmake-ta berrieri eskerrak, gero ta lan gaitz gutxiago dagizkite langilleek. Lan neketsu, gogor ta lergarriak, burnizko tresna berriek arinki eramaten dituzte. Aurrerakuntzak on aundia egin lezaioke gizadiari. Gizonak atzematen ditu izadiaren indarrak, bere buruko artara egokitu ta egintza ikaragarriak egin.

Arrotzari ez ondo iruditzen bestea bakarrik aritzea, alegia geiegizko berriketaren damuak, oparo ixuritakoaren okertzeak, bereganako ustea txartu ez zezaion. Nolabait ibilli bear bate-tik, bestetik gaia gogozkoa izaki ta bera ere asizan:

—Ta bana-biderik arrigarriena eletrizidadea degu. Gizonak billatutako gauzarik arrigarriena orixe degu. Telegrafoa ta telefonoa orreri zor dizkiogu, bai aridunak badira ta bai arigabeak. Indar iturri ori tokitara daramakegu! Urte asko baño len errietako etxeak aidean atxitutako eletrizidadez argituko ditugu gauaz, aideko ontziak toki beretik izango dute indarra non artua. Gizonak eguzkiaren beroa ta ur-jauzia eletrizidade biur lezazkike. Eletrizidadearekin, berriz, argia, beroa ta eragin-indarra sortu. Saharako eguzki-bero izugarriak eletrizidade neurri aundia eman lezake. Ta naiz andik Europarako, esate batera, bide luzea izan eta luzetasuna dala-ta bidal-ari-tik tximistindarra askotxo iges egin, bear bezelako bilkiñak asmatuko dituzte ta nai aña bilduta eletrizidadea gorde. Ekuadoraren ondoko itsaso-etako ur-laisterrak goikoak bero, bekoak otzak;

bada giro-aldakuntza orretatik eletrizidadea egiten asmatu dute. Gizonek eragin-indar aundia erabiliko dute aurrerantzean eta baldin beren obenek Babelgo dorrearen sasoian bezela nastutzen ez badituzte, mendiak zulatu ta ur-bide berriak egin, noalanai egingo dituzte.

«Garratxa» pozik zegoan arrotzaren etorrez. Oso bere aldekoa jarri zitzaion. Jardunaldi gozoak zerabilzkiten biek. Batez ere aren gaztetasunak arrituta zeukan. Edozein gaietan asi ta zer esan ugari zetorkion. Gazte arek edozeñekin itzegin zezakean. Arrotzagana gero ta alderago. Arek esandako edozerk arritu ta ontzat artu.

Orain entzundakoaz, eskua sakelan orraziari eragin zerabilkiola, onelaxe askatu zitzaion barrua:

—Izan ere zuek erri aundietakoek aukera izugarria dezute gain-gañoeko ikaskuntzak egiteko. Gure errixkaetan ez degu alako erraztasunik. Zuk ezagun dezu non ibilli zeran. Ni askotan nere semeari zein ikasbide eman eta non arkitu zalan-tzan egoten naiz.

Dendaren ondoan arkitu ziranean sartzeko esan zion arrotzari. Arrotza bildur zan aindik



sita bere etxeraño sartuko ez ote zan; ez bai-  
zan iñoren etxera joateko zalea.

Usauriko botika poliki zegoan. Aldameneko bi  
etxeen tartean, untza gañetik zeukan denda  
polita zan botika. Atea idiki orduko nabari zan  
botiketako usai berarizkoa. Atea besteko aldea  
erakustoki txukuna. Bi ontzi aundi ezker-eskubi:  
batek *Chinchona* ta besteak *Magnesia* ziotenak.  
Baita bi borobil aundi, gorria ta muskarra, zen-  
bait pitxi-mitxiekin.

Barrenen, berriz —sartu ziranean— beste  
ontzi asko, guztiak zuriak letra beltzekin, geie-  
nak latiñezko izenakin. Txikitan, ez dutela il bear  
dirudite botikarioak, ainbeste sendagai berekin  
dituztela.

Zoko batean erriko sekretarioa lasa-lasai  
zegoan exerita botikarioa etortzeko zai. Irurak  
arpegiz-arpegi, etxeko nagusiak bi kanpokoeri  
alkarren berri eman zien eta barrenera pasatze-  
ko ta salmaiaren ondoko ola «Garratxa»k jaso ta  
banaka, berau azkena, sartu ziran.

Bat-bateko illun arek itxutu zituan. Ordea,  
egonarekin iñon diran ontzi ta tresnak agertu  
ziran leize-zuluetako karraxkoen gisara: abats,

erratillo, tutuxkak, pixu ta ur-neurtzekoak, kati-  
lloak, autsontzi ta pototxiñak. Ontziak nastuan  
mai baten gañean, geienak kondarretan; itxuri-  
tako ur zikiñak eta ez dakigu zenbat naste-  
borraste. Ara, eguzkitako arri zuri aundiak azpiz-  
gora jartzen ikusten ditugun lur busti ta txitxa-  
reak bezelako itxura zeukan denda arek kanpo-  
tik ala barrendik ikusi.

«Garratxa»k ez zuan luzaro iraun jardunean  
asi gabe. Ta asi zan:

—Aurrerapen oriek guztiak gizabidearen one-  
rako beti baldin balira, orretaraxe ongi leudeke;  
baño askotan urkoari kalte ta gaitz egiteko  
asmatuak izan dirala esan diteke, ain okerreko  
elburua ematen zaie. Zuk zer deritzazu, onegi-  
ñak eta kaltegiñak gogoan artuta, sutautsa  
asmatzea bear zana edo bear ez-zana al da?

Orren antzeko arloekin, jo batera ta jo beste-  
ra, asper-asper egiteko bidea zeraman arrotzak.

Ta itzegin ala, aurrerakoan «Garratxa»ri iges-  
egiteko asmoa gero ta sendotzen ari zitzaion  
arrotzari. Arrotzak aal zuan ongien erantzuten  
zien «Garratxa»ren galderari. Egia onek itz ede-  
rrenekin ordaintzen zizkiola aren lanak.

Urrena automobil azkarrak zer dala-ta aurretik buru aundi ta atzetik me izaten diran galdetu zion.

Arrotzak aizearen eragozpena gutxitzeko zala erantzun zion. Jaboi puska listari batekin lotuta ur aundian beti ibillian ibillita antza ori bera artzen omen du. Argizai puskari aize beroko aize ematea egiten bazaio, buruaundi ta atzeme gelditzen dala orobat. Ta ur tantoak beeraka datozela itxura orretan bertan erortzen dirala.

Ta gure irakurlea arlo gaitz auekin buruaundi atera ez dedin, ez goaz geiago esatera.

Sekretarioak ez zuan itzik ere atera.

«Garratxa»k bi azkazal zeuzkan moztuga-beak goizean aztuta.

Ura bai buruaundi.

# XVI

## ARROTZAREN KARTA

Ene amatxo maitea: Sinist ezadazu, zein egunetan bizi naizen jakiteko izugarrizko buruaus-teak darabilzkit. Egun guztiak berdintsu dijoaz-kit. Karta asteak, bada, lanak ematen dizkit; zein egunetan iritxi, urrengoan zer egin eta, urrena-ren urren nabillela, beatzak bai ta ez, noizbait asmatzen det, edo uste beintzat.

Denbora gogotik badaukat eta luzaro idatzi nizaizuke. Lengoan ez nizun esan Ibaiotz-ko geltokian iru ordu egon bear izan nuala zai —bost-terdiak arte— aalik eta emen deitzen dioten «Pidelen tarranta» etorri arte. Ta eskerrak aste-lena ta etortzea bazuala, ez bai-dabil egunero ibilli ezin ori. Geltokiko lenenburuaren lantegian egon nintzan zai ta antxen nengoala orain bost urte nerekin soldaduzkan egondako langille bat sartu zan. Ni ez nintzen beratatzat gogoratzen; bera nitzaz, bai. Ta berak orduko gertaerak gogo betez esan bitartean, eta lenenburuak nere jan-tziari zearka begira bitartean, nik ezagun gabe-

ko toki aren jaun eta jabe egiten nion nere buruari. Gaitz erdi, nere iru orduak arin xamar joan ziran. Arratsalde guztian zaparrada galanta bota zuan eta otza ere bazan. Eskerrak nere soñeko lodiari.

Noizbait «Pidelen tarranta» azaldu aulki zikin baten gañean ia zilipurdika ere egin nuan. Jetxi berrian mugazai batek zein «paper» ote nituan galdetu zidan eta erakusteko ta bereala iñon diran galderak egiten asi zitzaidan. Orain kalean ikusi baño len agur egiten dit.

Urrena —arritu zaitez— Bedoyan Antonio zalako bat ezagutu genuana ementxe ikusi nuan: sesio-zalea, gogoratuko zera, bizikletaren gañean maiz ikusten genuana. Nondiknai azaltzen zaizkit «lagunak» neri!

Auxe zan, bada, esan gabe utzitakoa.

Orain goizeko bederatzietan idazten ari natzaizu. Nai ta nai-ez goiz oeratu ta goiz jeiki-bearra izaten da emen. Goizean egun argia gelan sartu ta lo egiterik ez; ez nik beintzat zuk dakizunez. Orrez gañera kaleko ollo-karkarak, karraxi ta izketak nabari-nabari dira, ezur-giltze-kin kupel utsa jota bezelatsu.

Atzo eguardi artean Martin deitzen dioten mutil on-on batekin egon nintzaizun arrantzan zubi ondoan. Bai barbotan ta bai emen «txipak» izeneko arrai txikitan, berrogei baño geiago arrapatu nituan kanabel motx batekin. Martin ere ez zan makal aritu ta bereak eta nereak erriko erlojeruari eman genizkion, ez bide du egunero orrelako aparirik. Ene ustez arraiak uretan igari egitetik ardotan igari egitera aldatu ziran.

Karta au bukatuta gosalduko det eta urrena espartzin zuriak erosi ta banoakizu pelota-plazara. Badet pala, baditut pelotak; ene esku txepelak ez dira geiagoko. Bigar Letxara joango naiz joan-etorrian. Usauri baño txikiagoa, baño polita emen da. Erriko sekretarioak urruti ikustekoak utzi dizkit.

Ez neri euritakorik bidali. Egualdia onduarren, ez det euritakoaren bearrik. Ari badu, bertan egon, naiz euritakoa izan; ez det iñora joaterik, ez or bezela eguneroko bearretara joan bear detanean.

Emengo erretore jauna ta botikarioa, izengoitiz «Garratxa» esaten diotena, adiskide aundiak ditut. Nonbait «Garratxa»k eztularako garratx

edo pastilla on batzuk asmatu —berak ala uste beintzat— ta orduztik gaitzizena jarri zioten. Oso nere aldekoa det «Garratxa» gizon au ta Fisika ta Kimikako gure jardunen berri bazeneki, ez zenuke orrenbeste bider aipatuko nere ikasketak kostatako dirua (edo bear bada geiago).

Oso pozik nago emen. Ene buru gaxoa sendatu zait eta berau arrika egingo balidateke ere ez det uste min aundirik emango lidatekenik. Auxe da nik bear nuan atsedena. Nere lengo lorik egin-eza oso urrundu zait eta, arritu zaitez bazkolondozen baitetan ere egiten det. Nere gorputz guztia sasoiez dago. Ez ba, amatxo, nere osasunaz kezkatu.

Emengo erritarrek Bedoyan bezelako izketa soñularia dutela aztuta nengoan esatea. Askotan beren artean ari dira: «¿quieres chochos», «¿tomates tienes?». Eta mutil kozkorak esaten diddate neri: «¿hoy no va a pintar?», betiko soñuarekin. Baño nik euskeraz erantzuten diet eta geroztik beti euskeraz aritzen gera.

Egia diozu zu bezelako amatxo onik ez dala munduan. Nere zorrotu politan sartu zenizkidan xigarroak ezin goxoagoak dira. Eskerrak demaz-

kitzut biotzetik; emen nai dana erosteko ez da aukerarik.

Eta gaurkoz aski ta bukatu det. Ondo-ondo egon, ene amotxo maitea. Mun zuri amatxo.

LEANDER



# XVII

## ZUBITO BATEN GAÑEAN. ITZA, PITSA

Arrotza txipetan aritzen zaneko zubi-gañean, berek uste ez zutela, Martinek eta Mirelek alkarrekin topo egin zuten: bat onuntzean, bestea aruntz. Nork ote zekian zerk eraman zituan biak alde berberera! Goiza goibel zegoan, odei beltzak beerraño jetxita, mendi-kozkorrek urratzen zituzten, tarteka, arkaitz eta arbola arteetan, tximak eta mataza zuriak utzirik. Ibaia bera ere illun eta zotinka zetorren.

Aalbait nik esango nuke zertxok zerabilzkian bakartsu bi gazteak. Batzutan maitaleek triste egoteko gogoia izaten dute; batzutan zertaz asarretu izan ez ta aitzakirik pitiñenak illuntzen ditu. Badirudi maitasuna negarrez obeto asetzen dala; orduan, nonbait, maitasuna larriago nabaritu ta badira maitemiñaz biotza aundituta atsegin izaten dutenak. Edo ori ala dala esan diteke geroko adiskidetzea ezta izaten dalako. Baño danetara ere, orain gogoratzen gerala, ortatik

ezin diteke atera biak alkarganatzeko zertxoa, zerbait alderatu lezazkikelarik; alegia maitemindunek naiago izaten dutela bakartsu ibiltzea, besteen jardun eta eleketak nastutzen bai-die beren irutegi goxoa.

Eta orra ba, biek min berarekin alde batera jo bear, biak bide berari lotu ta bideak joateko bezin ongi etortzeko izaten dira.

Baño bakarrik ibiltzera beartu ez balu ere, aize-bearrak Mirele gaxoa eraman zuan atariari aldez beste egitera. Bada zubitoaren erdian bezelaxe arkitu ziranean neskak esan zion mutillari:

—Eskerrak demazkitzut gaxorik nengoanean bidali zenizkidan gorantziakatik.

Ta ala zan, gaizki egonaren zurikail eta auldua zegoan. Itzak berak ere nekez, nabari zitzaizkion. Martin oso errukituta gelditu. Mireleri, ordea, arpegia zertxobait alaitu zitzaion, naiz lotallu txuria buru gañetik mutillari ikusi; ain onik zegoala igarrita iduri oneko biurtu.

Orra ba gertatukoaren azalpena, Martinek burua ametsetan, begiak mamuetan eta biotza eztarrian zeuzkanean, Mirele ere... gaxorik oean;

orra ba Martinen estutasunak. Lera bat artzen degunean zorrotzak izan oi gera bearresten. Baño Usauriko gazteak Elizondoko neskatxaren txarki egona jakinda, beltzura aienatu ta Margariterekin gorantzi beroak bidali zizkion. Eta orain ala zion:

—Ez dezu zer eman, enetxoa. Nezakean gutxiena egin nizun. Baldin ni zure sendalaria banintzaizun, baldin nolanaiz zure etxeraño joatea izan banu, baldin nere itzek nolabait atsegin-du bazitzaiketean, nik uraxe bera egingo nizun ene aal guztiz. Baño, tira, orain ondotxo zagokit, enea, ez nik nai bezin ongi, a zein luzea izan zaidan zu ez ikustea! Banuan zu ikusteko gogo! Nere begiek nai ainbeste, ikusiko al zaitut aurrerakoan?

Martinen itz gartsuek kezkatzen asia zeukaten Mirele. Ez berak nai, ordea; orrenbesteraño-ko kutunkeriek gaizkitu lezatekean neskaren aulkeria ta ez degu kaltegarrik nai izaten. Bere aldetik galdetu zion:

—Artean zu ere gaxorik zeunden. Txoil sendatu ziñan? Edota, lotallua daukazunez oraindik miñik bai?

Baldin Martin neskaen arazoetan zerbait ikasia izan bazan, galdera orreri arreta geiago jarriko zion eta zerbait oartzekotan poztu egingo zan alako jakin naiaz. Orrenbesterañoko gurekorrak izaten gera geren naitan; orok zurikatzen gaitu gure alderako bada. Baño neskaren jakiteko naia agirian baldin bazegoan, eta ardura orretatik beronen gaxotasunari zerbait antzeman balezaiokean ere, ez zitzaion ezere bururatu gure mutillari. Eta galderari «ni ederki nago, xatar auk aurki botako ditut» erantzunda galdetu zion berekiko:

—Eta zuk zer gaitz izan dezu? Noiz gaizkitu ziñan?

Eta Mirelek zionez berak uste ez zuala alako batean ongi egonezaren naigabea etorri zitzaion, jateko gogo agitz aldendu ta oeratu bearra izan zuan zankoen gañean gauza ez zalako. Zer izan zuan berak ere ez omen zekian. Iñon oñazerik ez; oean egon bearra, orra. Baño ez zion esan noiz gaizkitu zan, Martinen miñaren berria jakin zuanean gaxotasuna asi zitzaiola, alegia. Bera gaztea ta biotz ikutukorra izaki, eskaratzeko alkarrekin egonak geiago bigundu

ta bere lagunaren zoritxarrak atzenez garaitu. Ezta ere ez zion aipatu sendalariak esana: gogo txarrekoren bat jakin eta makaldu ez ote zuan, baño geldi aldia on lizaiokela, aal zezakean geiena jan eta bestelako osagairik ez. Mireleri baze-bilkion buruan erriko neskaren batek bi gertatu oriek ariztatuko ez ote zituan. Ta mutilla pikotan!

Odeiek gorako bide zabala artu zuten. Eguzkiak odei tarteetatik izpi beroak bidaltzen zituan. Ibaiko ura oraintxe berdaxka azaldu. Mendiak osoak ikusi. Mireleren arpegia eguzkitan bizitu.

Alkarrekin zeudenez geroz ez zan iñor baztar artatik azaldu ta ikustekoa zan ibai gañeko zubiaren erdian zegoan biko maitagarria. Mirelek iñoiz baño luzaro irauten zuan Usaurin aurten eta aldegin bearrak larri aundia ematen zion Martini. Berak tinkatu zuan alkarren arteko aria, Elizondora joateak igaz bezela eroriazi ez zezaion. Egiazki, azken urtea bat, oraingoa bestea.

—Noiz zoaz Elizondora, Mirele? —galdetu zion.

—Onezkero an bear nuan; baño aita etorrita egun batzuk oraindik egon nitekeela esan dit,

ondo sendatu nadin. Aurki nere billa etorriko omen da; badakizu, bada. Ni joateko zai ote?

Galdera orrekin Martinen gogoia neurtu nai izan zuan. Ta onek bat batean:

—Ez alakorik, egun. Eta baldin zuk nereia bezelako gogoia bazendu —ez nik añakoa—, edota, gaur azteazkenez gaudelarik, igandean pizkorrago bazeunde, eta zure aitak ordurako eramango ez bazindu... nai al zenuke arratsaldean biok Usategira joatea? —bein edo bein bukatu zuan.

Martin ezezkoaren zai zegoan; baño arrituzan.

—Ain urruti?

Biak bakarrik ibiltzea eragozpenik ez bazitzaion, urrutikako arazo ura erreza izango zan leguntzea.

—Nik Usategira esan dizut an toki polita degulako, Usategiko berria zuri emateagatik ez dakizulakoan; baño araño iristen ez bagera ere, nai dezun tokian gelditu ala atzera etorri. Nik ba daukat ustea igandea zure Usauriko azken eguna izango dala aurtengoz eta badaukat

gogoaz zure lagunak adiskideena ni naizela erakusteko...

Ta Mirelek baietz esanda zubitoa poliki utzi ta etxe artera abiatu ziran Martinen ikaragarritzko pozarekin.

Ta onuntzean zetozela etxeko atze aldeko leiostik Josune begira zegokien...

Enparantzari ateak zabaltzen zizkion eskaratzak lasaian —eneko berbera— arrotza gogotik ari zan jardun gozo ta atsegiñean beste neska zenbaitzuen erdian. Itza oparo zetorkion, jostagarritzko itza, bere itzaldi erraz eta ugariak txoraturik zeuzkan inguruko neskatxak. Ogei urtetik gora ez zan bat ere. Mutilla, burutsua ta umore onekoa. Itzetik ortzera guztiak menderatzen zituan. Galde batek eta galde besteak, arrotza larritu nai bazuten alperrikako lana. Erantzuna egoki-egoki eman eta geienetan zer par-egin gertatzen zan. Ta baldin arrotzak ikusgarri egon nai ez-ta, bizkarra eskaratza barrengo ormari erantziko ez balio, zintan dantzari ari zirala esango genuke: mutilla zutik erdian eta neskek biraka zintari elduta. Mutillak buruan usorik ez ote zeukan.

Batetik, arrotza; errietan arrotzek aal aundia izaten dute bertako neskaekin. Geienetan bertako mutillak zakar xamar izaten dira erriko neskaekin. Baldin arrotzak xamurtasun ttanttoa badarabilki, bereala bereganatzen ditu. Emakumeak munduko lurralde guztietan legunkeriz goxatzea nai izaten du, naiz «no» «to» izan ta olloa ollar.

Bestetik arrotza ederki jantzita ibiltzen zan eta arpegian ezagun zuan erri aundiko bizibide onadun jendearekin oituta zegoala. Arpegiko ta jantziko dizdizak emakumeak nola itxutzen dituan badakigu, ta ez da arritzeko iturriaren ondoan eguzkiari zalapartaka aritzen zaizkion txorien gisan asaldatuta egotea.

Orrez gañera, apaizarekin ikusi zuten; beraz, mutil ona zan. Itza yayoa, garbia ta ugaria. Ugari onek ez ditu gaizki atzematen neskak, naiz eta ugaria ugarria. Ugarriarekin txoria, ugariarekin txoroa.

Ta, ari zirala, arrotzak zion askotan norbaiten izena jakin ez ta —oargarria izan bazaigu beintzat— aretzaz bein edo bein itzegin bearrean, guk zer oartu diogun ala izena jartzea. Bestetan



zereko ondoan arkitu badegu, «zereko mutilla» edo «leioko neska» esaten degu. Batzutan izena jakiñagatik, naiago degu esan «onako alaba» dala bere izenez aipatzea baño. Oargarriagoa zaigu bat edo bat berbera dalako baño «alako-ren anaia» dalako. Zenbaitzuk besteek baitutako bizitzarekin bizi dira.

—Baño ene ustez —urrena parrez— neskak gaitzizenak jartzen emanagoak dira: «kankallua ikusi diñagu», «piper-potto etorri zaigun», eta abar. Eta nik ikusi izan ditut ezkongaietan neskak «urde» ta onen antzeko legunkeriak mutillarengatik zerizkiotenak gero senar-emaztetuta. Nere iritzirako auxe-edo gertatzen da: edo neskak beren aburuetan oso aldakorrak dira ala aldez besteko zaleak dira, edota, zer uste ura ukatu.

«Esanak esanagatik, ordea —zion oraindik— nik ederki dakit Usauriko neskatxak (Bittoriri begira), Donibanekoak (Esterreri) eta Elizondokoak (Margarite neska kozkorrari) ez dirala izen itsusizaleak eta nere izenik ez dakizutenez geroz —nik ala uste beintzat— jakin al nezake zein era-

tara narabilkizuten?— irria ezpañetan galdetu zien.

—«Oi, kanpotarra», batek, «kanpotarra», besteak, eta «kanpotarra» guztiek. Ez, bat ezik. Margarite txikia ixil-ixlik zegoan. Bat-batean irrikarkara gozoa atera zuan. guztiek ere par egin zuten pozik. Ta galdetzen zioten bakoitzean irrikarkara berria. Ezin iñola ere barrenen zeukana mingañeratu, naiz gero ta geiago jakin nai izan. «Baldin badite esango den», zirikatzen zuten. Ta badakigu, azkenez, «txipetara joaten dana» deitzen ziola Mireleren arrebatxo alaiak.

Orduan neskaek galdetu zioten ea berak zein izen berriz ezagutzen zituan berarekin zeudenak. Orreri beroien izen jatorrak ederki zekizkielela ta alako gazte baten izena ez bazekian ere, neska polita ala ere, bein-beingoz ikusten zuan eta ezin baarenik esan. Neskak bere aldiko zuan baño izen itsusiagorik ez ziola jarriko ta orretaz ez ziola kezkarik emango. —«Danetara ere —arrotzak orduan— izena bat, izana bestea. Izana erakar-indar aundikoa da. Polita izateak izen itsusiak edertu egiten ditu. Denboraz politikak dirudite neska politen izen itsusiak. Eta berek

ikutzen duten guztiak ere bai. Edozein soñeko berriak orobat. Neska politari asarretzeak erre eder demaio. Ta orretxengatik uste det zure izena polita irudituko zaitala, baldin zuk diozunez itsusia bada ere».

Zurikeri auekin mutil gazteak pozik zeukan bere artaldetxo. Ta Margarite txikiari zerbait esan naiean, orra zer otu zitzaion.

—Ona ba beste adibidea; lengoan Margarite pastela jaten ikusi nuan. Ta nonbait goxoa zitzaion, sudur-kokotzak zuri-zuri zeuzkala parrez zegoan...

—Ori ez da egia —Margaritek— nik ez nuan ez sudurrik ez kokotzik zikindu.

—Nik ez det esan «zikindu», «zuritu» baizik. Zikintzea al da ba? Ta adibidez esan nai nuana auxe zan: ala ere Margarite txoragarria zegoala; artean, poliki emango al luke neska itsusi ta txi-maduna izatekotan?

Onen antzeko izketakin gozoro igaro zuten eguardi-arte ura. Baiki, aundienetako bat edo bestek ez lioke egun artako gazkariari arreta aundirik egingo. Arrotzarenganako begikotasun bizia sortu zitzaien. Ordea, arrotzak ez zuan

autuetan aritzeko asmorik. Ondotxo zekian bere inguruko berri ta axalapañetan ari.

## XVIII PATARIAK

Neska-mutillak kanpoan, ikastetxean sartuko litzaken basurdearen gisan, Iruingo Katamotza Ondazuloko baztar illunak miatu ta azterkatzen ari zan; begietan sua, sudurretan aize sendoa ta oñak lurrari azka. Baño bai garai okerreko etortzea egin zualako, ala bestek uste baño len asiera eman ziotelako, ala nolana, berak ausnartzen zituan alkoolak, sedak eta ontziak oi ordubetez lenago mendian gora abiatu ziran.

Ordukoak, beintzat, kale egin zion. Paulinorekin izandako borrokaz geroztik ainbat bider uts egiña, noski. Leize zulotik illunabarreko argitara atera zan ta joan zan.

Alderdi artan muga mendi gañetik doa ainbat bidean. España aldeko mugazaiak muga-lerra berean egon oi dira, edota, mendiaren gaingañean; ordea, Prantzi aldekoek muga-lerra goien utzi, mendi-egala bego ta beko eroso egona naiago.

Ondazulo Prantzi aldekoa da. An egon bear zuten, eraman ez bazituzten, alkoola, seda, ontziak eta abar. Norbaitek araño ekarri ta gorde zituan, andik besteak etorri ta mendiari aldez beste egiteko.

Lenengo aldapa ura oso gaitza zan.

—Orain gauden emen. Goiz degu. Zure-zola urdin dago oraindik eta aalik-eta beztu arte emen egon bearra besterik ez. Garaiz aurretik etorri gera; baño emengo geldik egonak ez digu kalte aundirik egingo, batez ere aldapa likitz au igota nekatu xamarrak gaudela.

«Emendik ez da onuzkero iñor pasa, baldin ardandegian busti-busti egin eta “berant-etxea”ren bat urka tokira joan bearrean etxeko bidean ez badan. Ta berak bere begi aundiekin piztizarrak ikusten bagaitu, guk putretzat artuko degu bera. Ordea, baserritar mozkor batek obeto ikusten du gauerdi illunean esku-utsik guk lasta-balarekin baño.»

«Eta jarrai neri. Urrengo txandan bide guztia egingo degu. Ta gauden emen abiatu bitartean».

Onela itzegin zuana Juantxo zan. Bigarrena, Antonio:

—Ta emen gaude orain iru gizon bildurrez bageunde bezela, bide baztarreko txoko batean. Bildur itxura orrek oso asarretzen nau, nik ez det «sekulan» bildurrik izan. Zergatik esandako garaian etorri ez? Orain bean egongo giñan, geren zamak artu ta geroxeago garai jatorreko atsedena genuke. Garaiz aurreko egon-egoteak amorrastzen nau. Ta au ez da guk esandako ordua. Guk bean bear genuke oraindik. Ta alperkerian egoteak sumintzen nau. Ez det uste zuekin berriz etorriko naizenik.

«Ta pixka bat geixeago edanda mozkortzeagatik ez det uste iñor urkatu bear lutekenik. Askotan ez da erraz gorputzak zer bear duan neurria ematen; gutxikeriz baño geiegikeriz obe. Orretara ik, nik eta ixilik dagoan orrek, baso bat ez genuke naikoa bakoitzak arboletan, edanaldi bateko tokiz aldatuko baginduzkete. Ta oni pakean utzita, zalantzan natxiok, i, edanean eztarria beñere itxitzen ez zaikan ori, gu biok ire oñetatik zintzilik jarrita itoko ote itzaken. Soka lenago autsi ire lepoa baño».

Auek guztiak esanda biak len bezin bare gelditu ziran. Juantxori ez ion ajolik Antonioren esa-

nakatik eta Antonio berari ere ez, naiz umore gaiztoko aritu. Ura utsa zan alkarrekin ibilli bear zituzten arriskoen aldean. Gero ere bazuten naiko beta beren arteko gorabeerak berdintzeko. Agidanean aginkizun artan alkarren bearra izango zuten eta ez da ukatzekoa idekoaren laguntza. Danetara ere, nai zutenean asarretzen zan jendea zan; itzak gora-beera ajola gutxi nai ez bazuten.

Irurak, kabian bezela, ostoa, adar ta belarrez inguratutako txoko batean exerita zeuden, zamak bizkarretik atzera beitura, belaun-kozkorrak errenkadan. Bustiñez loitutako amantar aiekin, makillak aldean, Santa Cruzen mutillak esan zitekean, baldin erlojeruari (auxe zan iragarrena) oar egingo ez bagenio eta, batez ere, gisa onetan itzegiten ez entzutekotan:

—Nere bizitzan Vichy-ura geien edan detanean, ez ote zait neri «erreuma» etorri? Ezkerreko beso au bizkarretik asita beatz muturretaraño elbarritua daukat. Orain sinisten det, ardoa ezik, zerbait geiago badetala gorputzan. Lengo batean, erritik kanpora nintzala, nere eskolako adiskide aberats batekin bazkaltzen «artzeko» ta



«artzeko» ta Vichy dalako ur ortatik bota ta pitin bat naikoa izan nuan aren ardo ederra bat-batean ondatzeko. Ta geroztik ez det gauza onik izan. Gero ta okerrago dagokit ene besoa. Ta bear bezelako arreta egin ba-nion ez nintzake ni ere emen, noski. Osasuna bat eta zakurkerian ibiltzea bestea. Nik, lan ez egitekotan, aski det lasai edatea, ta aragi-xerra baten gorabeeragatik ez noake ni arriskoan ibiltzera. Naiz langille txarra ni erlojero ona naiz, zuek baño askoz geiago dakitenek esanda. Ta arriskoa Usaurin bertan balego, aldegin eta nonai nuke nik nere ogibidea, ez zuek bezela. Ta batez ere ni lapurretarako ez nazute jaioa».

Esan bazuan esan zuan, Juantxo ta Antonio sumindu zitzaizkion. Biak bakarrik izan balira naiago zuten. Zer ikusteko ote zeuden arekin? Antonio batez ere, odola irakiten, ezpañak estututa, begietatik txinpartak botatzen zizkion. Ta Juantxo, lapurreta bazan ez bazan, zer on eta zer gaitz, zer zuzen eta zer oker, zer bidezko ta zer bidegabe, itzen zer-esanen mugaetan akika ari bitartean, Antoniok batere jaramonik egin gabe onela bota zion:

—Ik lapurretarako gaia ohea daukak erlojero-tzako baño. Ta lapurra ta erlojerua baño mozkorra obeto. I ez itzakek Usauritik joango ezta kartzelako atea aztuta zabalik utziko balitekek ere.

Antoniok matsondo erlojeruari. Zozoak *fas-cista* (ator beltz) beleari. Uzkudunek zerri Otxoari.

Erlojerua jango zuten. Orduraño ez zan esandakoaz konturatu. Ta, mugazaiak atzetik, lagun-en aterpera joango litzaken bezin txuxen, oraintxe, lagunengandik iges, mugazaien babesera zanko jokoa egingo luke. Bi aien gorrotoak, batez ere Antoniorenak, itz-bidea asmatu ta, kanporatzeko ukabillek lagun egiten zietela, iñon diran gordinkeri ta asarre-itzak esan zizkioten.

Zulo artan sartuta «lagun» aiekin eta garai artan (illundu zuan doi-doi) erlojeruak ez zuan beste irtenbiderik bere besoa aipatzea baizik. Gaitzak on egiten zion. Alegia biak berak alako beso-miña baluteke Antoniok gutxiagorekin esan zuala ez etortzea; bera «erreuma»rekin eta ea besteak añako zama eraman bear ote zuan; gorputza onik izanda ez zuala iñoren bearrik edozer-

tarako, ta lapurrak ez baño mugazaiak atzetik ibilliko zituzten eta...

Erlojeruaren ziñak eta miñakatik, ez zioten itzik esan zama arintzeaz (arek ori nai); orrez gañera erritan gogor eman ziotela ta, esateko guztiak esanda, erlojerua ardi zarra baño apalago ikusten zutela, bereago aritu zitzaizkion; azkenez, Vichy uraren buruz, orrelakorik... aperi gertatu zitzaiona ikustea besterik ez.

Baño onetan illunpeak arrapatu, odei beltzek gaua aurreratu. Juantxok alkooldun gurpilla jasota lepaezurrean jarri zuan, ugala kopetari lotu ta kopetaren aurrean, ugalaren atzetik, buruko txapela bilduta sartu zuan tartean. Onek «goazemazute» esanda zutitu ziran. Beste biak mendizorroak besarpetik satu, makillak artu ta erlojeruaren «ai»akatik, ion-azpiari arreta eginda, belar tartetik atera ta gorako bidexka gaitza artu zuten.

## XIX

# ANTON BAT ETA ANTON BI

Aurrena Juantxo, urrena Antonio ta azkena erlojerua, irurak lurrera begira, ozta-ozta ikusten zutela, ixilik zijoazen: batetik lendik naiko itzegiñak eta bestetik abo-zulotik ere indarra joaten dala.

Gizon sendo batek atsegin izaten du mendian dabillenean zamaren bat eramatea, batez ere ondo lotu ta eutsita baldin badarama, ez dezaio-la iñongo kozkorrik erakutsi. Orrez gañera makil berarizko bat baldin badarabilki, besoari zeregiña emateko eran, gazte indardunak gogoz artuko duan ibillialdia izango du. Ta nik uste atsegiñagoa dala gisa orretara gorputz osoak ekiten diolako, ez zakoekin bakarrik. Baño aitortu bear dan gauza da aldapa erpiñetan asierako asmo ibilkorrak bereala aitu ta atsegiña gaitzagiña biurtu. Zankoeke aldapako nekeari ta bizkarreko beerakoari eutsi bear izaten diote; orretara, aspoak lan eta lan, aunatu egiten da ibilkaria.

Onelaxe iritxi ziran len aipatuta atseden-tokira. Ta naiz egonaldia luzetxea izan, aguro berri-tu zitzaizkien lengo miñak. Irurak, beraz, bazijozen gora ta gora nekatu samarrak. Erlojeruaren musinkak ez iztuan iñork ikusten. Juantxo sugearen burua zan, Antonio gerria ta erlojerua isatsa. Bira bakoitzean lenengoz Juantxo asten zan eta azkenez erlojerua, noski. Buruzagiak zankoa altxa, makillari eutsi ta aupa egiten bazuan, beste biak ari bera iruten. Artean arnasak eta oin otsak bakarrik itzegiten zuten.

Arian-arian, zugatz, arri kozkor ta sasi tartee-tatik, mendia menderatu ta gaña azpiratu zuten. Une onetan, Juantxo nora jo ez zekiala, bat-batean geratu zen. Antonio, beti aurrera, kokotzarekin jo zuan aurrekoa marmarizoka. Ta berak egindako atzerakarekin, urrena erlojeruak eman zion ordaña itxuan zetorrela. Utsagatik ez zuten iskanbilla jarri. Ordea Juantxok eskubira jo ta besteak aren atzetik.

Garai artan doi-doi zan oartzekoa toki ura; baño egunez toki zelai zabala ikusten zan. Goiko aize otzak, ango ixiltasunak, bertako aunditasunak, oriek guztiek bakartu egiten dute dabillena,

naiz eta lagunena artean joan. Oituta ez dagoanak erraz izango luke mendi-miña alako toki ikaragarrian. Arbola bakarra ezik, billutsik zegoan zabal ura. Ta auzko arbola ura ere makurtuta, buruak ia lurra jotzen zuala. Arako arkaitz aiek, berriz, isua ematen zuten biotzean. Arrese olerkariaren irudimenez, arkaitz biurtutako zantzok.

Gure taldea zegoaneko aldamenen ardi-babaz jositako tokia izaten zan. Ordea, gau illunetan ez dira oartzekoak ikuskizun auek eta Juan txok, zerbait jakiña, agiria utzi ta garo zalapartako bidea artu zuan bere lagunekin.

Tanto me-meak arpegian jotzen asi zitzaizkien eta baten-batek «euria degu» esanda, irureri bururatu zitzaien —baldin erlojerua bere buruaren jabe zijoala esatekoa bada— mugazaiak aterpean gordeazi añako euria egingo ote zuan, beren jantziak eta, batez ere, zorro-barrenean zeramazkitenak ez ondatu ainbeste.

Garo aundia zapalduz muturrera iritxi ta beerrakoa zuten. Jetxi ala gaztañondo pillo luzea agiri zan. Naiz eta azpitik zijoan bidea gurdibidea

izan, ordea ez zan ain agiria, gaztañondoak zira-la-ta, eta emendik jo zuten buruak gorde.

Urrena mendian gora asi ziran berriz ta bidez, kanpotik zijoazela, euria orduantxe geituta, zugatz eder baten oñari ingurtu zitzaizkion belardi baten erdian, erlojerua barca baño motelago. Toki arek Endarlatza-koarekin zerbaiten antza bazeukan. Norbait edo norbaitzuk su-iskilluz il bear dituztenean, badirudi alako zugatz bakarreko tokiak egokiak dirala, il bear dutenen ezurak abar-ostoeak babestu ditzaten.

Eta an bertan erlojerua itoko ez ote zuten ez dakigu; baño ostera, gero ta larriago, aioska asi zitzaienean, asmo gogorak artzeko ez ote zebiltzan uste izatekoa zan.

Erlojeruak ezetz eta ezetz, ez zuala zama arekin jarraituko, ezin zuala geiago, miña gero ta jasangaitzagoa zitzaiola ta an egongo zala bear ba-zan gau guztian euritan.

Iñon diran irain eta disapiyuak bota ta gero, naiko gutxietsi ta ezetsita, Antonio azaldu zan gizon: bota zitzala bere zorrora nai zituan guztiak, ez zala bera erlojerua bezelako «erdipurdiko gaztea», «baezpako gizasemea», «lotsik ez

duan gizona». Erlojeruari ajola gutxi; bai pozik, ordea, bizkarra lasaitzearekin; erdiak eta geiago pasako zizkion. Ta bota zizkion bere ajola gutxiak utzi zion artean. Ta Antonioren zorroa aunditzen zan araberan, erlojeruarena gutxitu. Antonio ez zan bein esanda itza jaten duan gizona. Ta erlojerua makurtuta ari zan bitartean, bera zutik ezpañak itxita.

Aldaketa egin ondoren, zerbait geiago egon ziran zugatzaren azpian, biak erlojeruari erritan, eta euria txirtxildu ta geldiro zetorrela, ibiltzeari ekin zioten. Banakatu ziranean erraz igarri zitekean Antonioren zama zein zan. Bazirudian gabelu aundi baten bi konkor aundiak bat eginda zeramazkiala.

Gaña arrapatuz geroz aurreko goiari oarka jarri zitzaizkon, buruak ondo gordeta. Muga-lerra andixe zijoan. Bat emen, bestea an, tarteka mugazaien txabolak zeuden jarriak. Ta txabolatik txabolara, bai egunez, bai gauez, ibillialdiak egiten zituzten mugazaiek, bakoitzak bere aldeko artara. Txabolaekin, beraz, bideak itxitzen zituan katea zegoan. Aietako bien tartean igaro bear zuten gure patariek.



Ajol aundia zien mugazaia batetik bestera ibilli ala txabola barrenean egoteak. Juantxok ixiltzeko keñua egiten zion Antoniori beatza sudurraren aurrean luzatuta. Andik aurrera ixilik eta oñetako takatekorik gabe ibiltzeko. Gaua beltz-beltza. Ez mugazairik, ez txabolarik, ezin zuten somatu. Muga-lerrari ondoratzea erabaki zuten. Lenengoz ezkerrera jetxiko ziran eta gero esku-bira igo, ibil-bide uraxe zan ezkutuen. Lerraren ondora iritxita, geldi, mugazaia zebillen ez ote zebillen.

Ta bien txabolan zegoala usteta, lerrak daukan tokirik txigor ta mearrenari aldez beste gin. Orrez gañera alderdi artan beerakoabereala zegoan.

Juantxoren aburuari ezin akatzik jarri. Iñork ez zuan uste oberik azaltzea. Esanak esan eta abiatu ziran, bada, asmatu bezela. Orduan konturatu zein zalla zan lagunen arteko berriketan ain erraza zirudian egiteko ura. Ezta itzik ere, Antonioren susmurruren bat ez bazan. Arria jo, eskuak urratu, ezta kinkik ere. Euriak ez zien gogaiteragiten, illuntasuna naiago.

Beeraño iritxi ta gorakoa artu zuten: Juantxo lenbizi, Antonio ta erlojerua, beti bezela. Aldapagorak polliki joatera beartu zituan; bestela ere ez zan laisterka aritzeko une egokia. Iru patariak ba'zikoazen neurritz baztar guztiak oarturik. Juantxok adierazi zien arako sasiaren atzean makurtuta egoteko, zugazpetan ibillita gero.

Noizbait iritxi ziran eta geldi. Juantxok poliki oartu zien:

—Orain gauden emen txolarte batean atsedena artzen. Eta bitarte orretan igarri dezaiogun mugazaia ba ote dabillen. Egon aalik eta ondo ondo jakin arte eta zuek aalbait zuen zorroak ez bustitzeko eran sartu barrenago.

—Nerea ondo bustita dago beintzat eta, illunpean, Antonioren zorroa danaren aundia dalarik —erlojeru ajolagabeak zion— ez det ikusten, sudurraren kankarra urratzen didalarik. Muga zaiek baño sasipetik basakaturen bat atera liteken usteak bildur geiago ematen dit. Dagoan egualdiarekin botak ekarri bearrean alprejetak ekarri banitu, gaurko ainbeste izango nituan. Ez dakit nora joanda ibiltzeko gauden.

Antoniok ezin eramunik, ostikoz jo zuan erlojerua iztarrean eta oneri irten naiean zebilkiona ots txiki batekin atera zitzaion atze aldetik. Erlojeruak eskua aboan jarri zuan par egiteko; obe, ordea, pixka bat lentxeago eskua tokiz aldatu balu.

Juantxo ta Antonio ernai zeuden alde guztietara begira sasi gañetik doi-doi burua agertuz. Erlojeruari etzanda egoteko gogoia etorri zitzaion eta zamaz arinduta izketarako gaitu zanez geroz, orain ere an ari zan ortzaz gora:

—Nik, baiki, ez det ezer ikusten, ezertxo ere. Baño ez det uste onelako egualdiarekin gora ta beera ibiltzeko gogoia daukan mugazai txaldanik ote dagonik. Txabola barrenean egon zitekean bezin ederki! Baina gu ere, obeto giñake geren etxeetan; ez emen euritan, garai onetan, toki onetan, ezkontza-errastuna sasi-tartean galdu balizaigu bezela. Ta ez da ori okerrena, arantz madarikatu auek sudurra lurratu didate, larrua bera uztez ez badet; eta, egia, uztekotan, naiago nuke-zorroarekin astea, balio duanagatik... I, Anton iru errial artzeko aut: lorra lor ta zorra zor.

Ez zan inortxo ikusten. Erlojeruarekin asperasper eginda zeuden eta orduantxen aal zuanak aal zuala asi bear zuten «Tira, abia gaitezen», Juantxok deituta, bien artean ostikoz zutitu zuten:

—Tira, segi neri aalik eta bizien iñon gelditu gabe —azkenengoz itzegin zuan.

Agindunak agindu ta bereala antxen ikusi zitezkean illunpean, basakatuen antzera, iru lagun makurtuta muga pasatzeko unean. Bizkar-gañeko zamaz erraz ezagutu zitezkean zijoazek: barrika ta meta aundia, Juantxo ta Antonio, ia alkarren ondoan; atzeraxeago, bakalluaren loditasunezko zorroarekin, erlojero alperra.

Mugari aldez beste eginda bereala beerakoa zuten ta asitzea asi ta bat-batean urruti xamarretik «alto!» egin zuten. Juantxok korrikari geiagogo eman eta besteak ere bai. Andik pixka batera, osto ta adar tartetik azkarrik zijoazela, gar batez euri tanto guztiak argitu ta danba! tiro baten ots izugarria entzun zan. Ta Antonio gixajoa, goitik beera zilipurdika, mendian beera erori zan... bildurrez.

Iñork ez zuan gelditzea uste. Bildurrak akullutu zituan eta berebiziko laisterka zeramaten irurek beren zamak eta guzti. Antoniok —bere zamarekin bi lagun alkarri lotuta esan zitekeana— naiko pirilika eginda gero altxa ta ekin zion, naiz buruko txapela bertan galdu.

Laisterka errezago egiñarren, bidetxigor bateri lotu ziran eta itzik egin gabe —alkarrekin zetozela bai-zekiten— ekin eta ekin eten gabe beti malda beera zijoazen. Lur bustian irrixtatuta txandaka erori ta jaikitzen ziran. Ta Antonio alako batean lengoaz gañera erorita eskua atze aldeko gerri azpian zebillela, onela bota zion erlojero lasaitu asi-berriak:

«Villagarsia,  
arraskazak atzia!»

ta «ji-ji»ari emanda ala ere bazijoan aurrera.

Urrena ez dakigu amildegi baten zulora nola ez ziran joan. Mendi-ebakidura baten ertzetik, bide estua ala ere, aidean igaro ziran ia amildegi ikusten ez zala. An izango zan lenbiziko Antonio añeketa artan!

Aien atzetik ez zan ezere nabaritzen. Laisterka ta laisterka muga bitartekoa askoz luzatu zuten, soka laga ta laga muturra erruz urrundu zitzaien.

Mendi-bea arrapatzeko urren zebiltzan. Bean erreka, zabal xamarra; baño pasatzeko zubia ere bai. Araño iritxi ziran. Zubia egurtzar bat usteltzen asia besterik ez zan. Eraka bazan ere, dingili-dangala, Juantxok beste muturra arrapatu zuan. Bigarrena Antonio saiatu zan. Eta, edo azkarregi asi zalako, ala, nik uste detanez, zorroan bi lagunen partiak zeramazkialako, ala egurtzar arek noizbait autsi bear zualako, erdialdean dingili-dangala ari zan artan, egurra bi puska egin eta ikaragarritzko burrunbarekin ura jo zuan zubiak.

Anton bat eta Anton bi  
Antonio putzura erori.

Guk ez dakigu ur aundian erori balitz obeto edo okerrago izango ote zan, agidanean lotuta zegoan bezela ezin izango zuan igari egin. Bes-tetik arri ta ura tartean erorita sekulako tankate-

koa artu zuan Antonio gizajoak. Erlojeruak orduantxe egiten zion oña jartzea zubiari ta utsarengatik ez ziran biak joan. Antonio erortzen ikusi zuanean, iñoren bildurrik ez duanaren lasaitasunarekin, «ji-ji»ari elduta lertu bearrean ari zan parrez.

Juantxo aurrea artuta zijoana oso ikaratu zan autsiaren burrunbarekin; gero erlojeruaren parra nabarituta atzera etorri zan bareago. Otsak bereganatu zitzakean mugazaiak eta len urrutiratutako arriskoa bertaratu. Egiñaalean ari zan Juantxo azker ibilli zitezen, erlojeruak naiko «ji-ji» ezin egin artean.

Erori, ez erori, larri asko ibilli zan erlojerua ere arri-tartean batetik bestera parrari ezin eutsirik. Antonio nolabait altxa ta, asieran nekez asita, ura ere azkarrean zan, erlojeruari ezere oartu gabe.

Ez degu aiek «Bordategi»ra iritxi baño len ibilli zituzten gora ta beerak, ezker ta eskubirak, aipatzeko ustea. Erri-ingurutik ibilli ziran urruti xamar. Azkenez, «Bordategi»n sartu ziran: lenbikoa Juantxo, bigarrena Antonio!, bere zama aundiarekin blei-blei eginda, ta azkena erlojerua

bizkar utsik. Amildegi baztarretik pasa ziranean, goitik beera bota zuan bere zorroa ajolakabeak laisterrari bizi geiago emateko...

«Gaztiene»en bitartean, Pirmin, lengoak aztuta, gogoz ari zen orain ere pilarmonika jotzen.

Ordea, Manuel ari zitzaion madarikatzen: betiko kantak zirala, musika zatarra besterik ez zekiala, ez zuala musika «piña» jotzen...

Onetan, Andre Axentxi sartu zan kandela billa.

Manuelek:

—Gabon, Andre Axentxi.

—Gabon danoi. Oso itxura ederrekoa zaude, Manuel.

—Bai, osasunez gaude, Jainkoari eskerrak.

—Itxura onak egualdi ona egiten du.

—Ardo txurrupe bat —eskeñi zion Manuelek—. Bein bat eta berriz ez, nere ardoak urik ez. Nai detena ez detela, nai deten tokira ekarri naute. Bego, Pirminek *El Cafe de Mozart* jo bear omen du. —Ta muxua eman zion.

—*¿Cafe de almorzar?* Besterik edango ez bazenuteke a zer mesedea! Astean eder, jaiean



kakatsu. Au muxuka asten danean, zerbait eska-  
tu-mugan dago. Nola irabazten ez dakian jende  
onekin, bizitzea zenbat kostatzen dan. Leka era-  
mantzazu ta ez dago alerik. Gero, idiak negar  
egin bearrean, gurdiak egin. Nere esanak ez  
diote biotza joko.

Besteak parrez, kandela eskuan atera zan.

# XX

## BIDEZ BIDE

Igande goizean, mezatarakoan, Mirele ta Martin batean gelditu ziran alkarrekin ibiltzearen toki ta garaiaz.

Irakurlea arrituta egongo da azteazkenetik iganderaño alkarrekin egon gabe nola diteken. Zer asko badago, ordea; batetik beti aukerarik ez, bestetik asieratik guztien aurrean azaltzea ondo iruditzen ez. Baño, batez ere, bestea kontua. Mirelek abindu zion igande arratsaldean biak alkarrekin joango zirala eguraztera. Orrekin asko ta asko poztu zan Martin. Martinek zorion guztiak opa zizkion bere buruari. Burua arreta eske zegokion gazteari. Eskea, eskerra.

Baldin biotzak «oakio» esaten bazion, buruak «ez estutu»; baldin arek «atera adi», onek «egon geldik». Ta kilimolo orretan auxe zebillen tarteko: bat edo bestegatik igandekoak utsegin lizaiokearen bildurra. Bildur ematen zion-eta, nola-ala asita, edo-zerbait tarte zala, joaneziña aipatuko ote zion. Ez nai Martinez orrelakorik entzutea.

Uste bakarrak ikaratzten zuan. Luzeak zitzaizkion egunak; baño luzeak luze, nekez bazan ere, gogoz pasako zituan, azkenez Mirelerekin Usategira joateko zoria izango balu.

Bein edo begiratu zuan zubito beretik garai berean Mirele ote zijoan. Orduan, noski, bearrekoa izango zuan arenganatzea. Munduko maitale guztiek onela alkar aditzen dute. Bein batez ikusi ta atsegin duten neska-mutillek, beste aztarnik ez badakite, urrengo egunean garai ta toki berean azaltzen dira; iñork esan gabe ere badakite ori.

On dana ongi utzi oi degu obearen itxaropenean. Naiago izaten degu itxoegitea ta muxika ondo elduta jatea.

Beste aldez, bat-bateko alkartzeari edozerk kendu lezaioke itxura. Gerik askotan ez gera izaten guk nai bezelakoak. Utsak oker aundiak lekazkike, ezin zuzendu alakoak askotan, berdintzeko abagunea galdu bada. Usategirako txango artan, ordea, naiko denbora izango zuan eta, edo berak uste baño txaldanago izan, ala aldar-te txarra ontzeko arteza izango zuan.

Martin, beraz, pozik zegoan.

Ordu bi t'erdiak baño lentxeago Martin zai zegoan Olarte deritzan Usauriko auzoan. Zutik, eskutzik, zeregiñik gabe, egonaldiari itxura kentzearren, batean txistua jo, bestean eskuak sakelan sartu ta lurrari begira, bazebillen, an orduko emen, joan etorriak egiten. Bestetan, oargarria zitzaion ainbeste aldiz ikustez aspertuta zegoan edozer. Ez-ikusia egiten zuan geientan. Bidez zijoazenak ez zioten kezkarik ematen: «arratsalde on» eta ixo. Lagunen bildur zan. Baita ere iñongo leiotik bururen bat azaltzen bazan.

Ordu bi t'erdiak baño geroxeago enparantzen erditik zear bazijoan Mirele. Zuria soñekoa, zuriak oñetakoak, espartziñak; buruko illea oria ta mototsaren galartzua gorria. Ezagun zuan arpegi garbitu berria.

«Oñak zebilzkin aidean».

Kale illun artatik zetorrela Martinek ikusi zuanean osoa zimaurre tartean iruditu zitzaion. Artu zuan poza ez da esatekoa. Begiratu lezaiotekean orain. Bi bider poztu zan, bein bakartsu geiago

ez egoteagatik eta Mirelerekin alkartzegatik berriz. Bere gogoz laisterka joango zitzaion. Buru-biotzak, orain ere, atze-aurrera bultzatzen zuten eta, dapa-dapa, irria ta zoriona zerizkiola, bideratu zitzaion.

Martinek arratsalde onak eman bitartean Mirelek onela itzegin zuan.

—Ez goaz Usategira.

Egia esateko arrituta gelditu gintzaion zubiko asmoaz. Bein asi bear eta biak bakarrik arratsalde guztirako mendian gora asiko al ziran ba? Garaia bertaratu bezela, gero ta bildurgarriagoa zitzaion egiteko ura. Lagundu, bai, lagundu; ote zuan orren urruti joateko bearrik? Agidanean geiegizko abintzea egin zion. Martinekin egoteko gozoak uste baño aurreragoko joatea eskatu nonbait. Orra bada, damutu.

Martinen ametsek bat-batean lurra jo zuten. Orduan bai eskutsik belditu zala ta buru-uts ere bai.

Biak oso-oso sendatuta zeudela esatea aztuta geunden. Martinek ez zuan lotallurik kopetan. Ordea, orain berriro kemenak galdu zituan. Mirelek ere igarri ta biak zimeldu ez ote ziran. Usate-

giko arazo ura ainbestetan buruan zebilkiola, ainbeste amets zoro zekazkion arazo arek, orain bat-batean igesi ta aren tokian utsa, noski. Urrango egunean «agur» esango zion Usauriri.

Baño gose diranek zer janaren billa buru argia izaten duten bezela, irudimena oso bizitu zitzaion Martini. Ta Usategira ez zijoala esan bazuan, iñora ez joateko asmorik aipatu al zuan? Gela illun batean leioa idiki zioten mutillari. Besterik ezean, urrutikoa aldean. Beste edozein tokitan ere ederki ibilli zitezkean. Ta bein biak aterata, baldin bide beretik, nork zekian noraño-ko txangoa egingo zuten neska pozik eukitzeko arteza izatekotan?

Arrigarria, Usategira ez joatea besterik buruan ez neskak, norabait joatea ondo zerizkion.

Mirele zerbaitxo txospertuta gero, Martinek eldu zion.

—Usategira joatea nai ez badezu, ez degu bearrezkoa ara joatea. Alegia, Mirele Usategia urrutitxo baderizkiozu, asi asi egingo gera ta zuk nai dezunean, an edo emen, etxerako bidea artuko degu. Nik aalik eta geien zurekin egotea

nai nuan, toki ura ezin politagoa dalako. Baño «zer»a bestea bada, nereganako uste onak utsegin badizu, orretara ez dizut geiago eskatuko, emendik aurrera ez ginjoazke.

Mutillak bere ontasuna onela erakutsi. Mirele beartuta zegoan uste txarrik ez zuala azaltzera. Danetara ere ongi iruditu zitzaion mitillaren asmo zintzoa, naiz beñere okerrik bururatu ez eta onela erantzun zion:

—Txarrik ez det iñoiz zuregan uste izan. Ori bazenekike.

Ta onetan ari zirala, Martinek aurea artuta, bazebillen poliki Mirelerekin. Gutxi palta ta zubia ikusten zaneko tokira iritxita, gelditu egin ziran alde artara begira. Zubia ikusteak lengo alkarrekin egona zekarkien gogora bieri:

—Ondo-ondo jarri ziñan, Mirele?

—Eta zu ere bai?

Ta ustegabeen biak asi ziran bidez bide. Atsegiña dagoan lekuan, aldaparik ez...

# XXI

## USATEGIAN

Erri barruan etxeek mendiak estaltzen dituzte; erritik urruti, berriz, mendiek etxeak ostentzen. Baño goi ura oso gora zegoala-ta, naiz txirripitiña, Usauri erria ederki ikusten zan goitik. Mendi aundiz inguratuta ageri zan eta zolaren zakonenean erria. Noizbait mendi gain batean jarritako erria irristatu ta zulokotean erori zala esan zitekean. Etxe zuriek ardiak ematen zuten eta elizak, artzaia. Egun batzutan odei lodiak beeraño jetxi ta erria ezkututzen zan. Bazirudian ondazuloa betetzen ari zala, edo-ta, erria ito larrian.

Baño egun artan egualdia ezin ohea. Etxeak zuri-zuri eguzkitan. Goraño bide luzea bein bai zan, bein ez zan; bein agertu, bein ezkutatu. Gora orduko, jira-birak zirala-ta, lozorroan dagoan suge zurizka ematen zuan bideak. Mendilepo zelai artatik ederki igarri zitekean Juantxok eta irurak ibillitako jeistea.

Garai ederreko eguraztea!



Belardi goxo batean exerita Martin eta Mirele, biak alkartasunik onenean. Mirele elur maluta esango genukean, sasoiak ukatuko ez baligu; ain zuria zitzaion soñekoa.

Martin ala ari zan:

—...ta ortatik datorkio gure erriari Usauri izena: «Uso-uri». Ikusten dezunez kanpotik datozkigu txoloma txuriak.

Ta Mirele-ren jantzi argiari begiratuta geldiro jarraitu zuan: «Zu ere kanpotik etorri zatzaigu».

Mireleri polita zitzaion Martinen jarduna. Oso bizituta zegoan. Arpegi alaia jarri ondoren onela galdetu zion mutil atsegiñari:

—Ni usoa banintz eta zu eiztari zer egingo ninduzuke, aize zabalean joaten utzi ala sarepean sartu?

—Biak.

—Eta nola bada?

—Elizondora joaten utziko nizuke, baño nere sarean... —ez zuan bukatu.

Ordea, Mirelek ederki asmatu aren esanaia. Ikusi:

—Eta nola jakingo zenuke zure sarean banengo ala ez?

—Ondoen zeorrek esango zenuke.

Mirelek burua makurtu ta aldameneko belarrak esku txikiarekin tiraka moztu. Ixilune baten ondoren jarraitu zuan;

—Esaidazu, bada, nola atxitzen dituzten usoak emen.

—Etxalarren arrapatzen dituzten era berean —asi zan Martin—. Udazkenez etorri oi dira usoak, batez ere egoaizearekin, eta badoaz pillarka itsasotik egoalderat. Batzutan uso samalda izugarria izaten da. Alakotan guztiak batean ilda eroriko balira, lurra zurituko lukete; aidean dijoazela, itzal aundia egiten dute.

«Antziñako uso eizkera au lilluragarria da. Uso zerrendaeri begira bai atsegin egoten dala. Ikusten dezu auzko itsas-egi alaiak nola agiri diran? Andixe erortzen dituzu. Sareak, berriz, lepo-sarrera onetan egoten dira, arbola orien eta onuntzkoen arteko aizebidean. Abe batzutan lotuta, xirrika batzuen bidez erori sareak. Andik onerakoa sarebide zabala dezun, mendialde aundiak baztarrean. Orra ba eize tokia».

«Ikusi orain eiztariak. Badira abatariak, trapariak eta sarezaiak».

«Abatariak dituzu mutil kozkorak ala gazte-  
txoak. Abatariek eun zuria makil baten mutu-  
rrean izaten dute eta tutu bat ere bai. Abatariak  
urrutieneko txokotan egoten dira, tarteka. Ezker-  
eskubi badira iru-lau abatari alde bakoitzean,  
azkenekoak emengo aldean».

«Trapariak, berriz, onuntzago. Ikusten dituzu  
orreko ortan bat, an bestea... aritz galdurroan  
etxoltxo lerdanak? Or egoten dira trapariak. Lau  
trapari dituzu. Ok izaten dute arrabeteko pala  
kizuztatua, karearekin zuritua, ta saski bat».

«Sareak sei dira ta sarezaiak beste ainbeste.  
Gorgonioren sei zakurrek bezela bakoitzak bere  
izena badu elutra, mearra, ustekabia, jortuna,  
kalamua ta munua. Sarezaiak orma baten keriz-  
pean egoten dira ezkutaturik, bakoitza bere  
sarea zaintzen».

«Abatariak, trapariak eta sarezaiak argi asi  
orduko beren tokietan egoten dira ta illunak  
ortxen arrapatzen ditu».

«Ezkutune ortan ikusten dezun etxolean,  
ikusleak gordeta egoten dira, orren eizkera poli-  
polita ikustera etorri berriak».

«Alako batean “usoak, usoak!”, “atozte laister!” ta sarrerazten dituzte».

«Ona nola izan oi dan uso-eize txoragarria».

«Abatari batek badakus uso samalda itsasgañetik eta tutuz adieraziko du nontsotik datorren eta nora dijoan. Aguro ikusiko dute trapa-riek eta bereala esango diete laguneri non dan, nora dijoan eta multso txikia ala aundia dan...»

Martin eta Mireleren ondotik bazijoan baserri-tar kaxkar bat eta zer ari ziran igarrita bat-batean asi zitzaien:

—Bai, jauna, bai: andixe etortzen dire. Usoak *lerro-lerro* azaltzen direnean, abataria *tu-tu-tu-tu-tu...* asten da. Trapa-riak ikusi dituanean «Larrekoa yoizak» erraiten dio abatariari ta onek su ta gar *urre!, urre!, urre! urre!...* bere abata *dingi-danga, dingi-danga* dantzatzuz. Abatariak ekarri ta bideratzen ditu usoak eta sare tokirat balin badoaz ixilik utziko dituzte trapa-ondo arte.

«Urrena trapa-riek pala emanaz *xfxt, xfxt*, botako die bertzea ta bertzea *iii-auauauauau!* oyua ta garresia dagiela sarerat sartu arte ta *blanba!* antxen botako dituzte sareak eta lurrean iraulka ibilliko dire sarepetik egatu nairik. Alpe-

rrik, ordean; sareziaren eskuetan dire beilaxe ta saretik ateri ala *arrasta*, *arrasta* bizirik doazi oken zorrotarat eta otik etxola ala sare berexirat».

«Ta sare gañetik ala sayestik iges-bidea artzen dutenak, an dituzte *tinpi.tanpa* izkilodun eiztariak. Izkilloa bizkarrean ameka amaren seme badabil ondikotz. Orixe ibilliz zaudeten! Arratsalde on, pasatu ongi».

—Agur gizontxo —erantzun zion Martinek.

Bi oinka egin zituaneko Martin eta Mirele arpegiz arpegi jarrita par gozoa ezpañetan.

Kristau bat irri antzean iduri onekoa izan oi da. Irria arpegiaren ederkuna da. Arpegi iguingarrienak atsegiñak biurtzen dira irriz daudela. Biotz oneko kristauak geienean irrizaleak izaten dira, edo-ta, irrizaleak geienetan biotz onekoak izaten dira. Parra darion bitartean ez da bildur-garririk. Ta Mirele neska lirain eta polita bazan, igarri Martinek zer ikusi zuan. Aren arpegi txuri leguna, begi garbiak, sudur me ta ezpain gorriak! «Gaztetasunaren lurrin gozoa», botikarioak esan lezakeana. Doi-doi zimurtu zitzaion kopeta par egiterakoan. Mireleren kopetak zion

neska ona zala. Gañetik ille orixka ongi orraztua. Nor ausartuko litzake buru ura ikutzera!

Ez da bada arritzekoa. Martin aal zuan guztian begira egotea. Irria ezpañetan aitu zitzaien. Martin ala ere begira. Mirelek burua makurtu. Ixilik zeuden.

Orain Martin ari zan belarrak moztutzen. Burua baztarrera begira beatzeri eragin. Zerbait esan nai zion.

—Gaurko eguna ez zait beñere aztuko —asi zan—. Egundaño ez det nere burua ikusi onen ongiz. Zorion osoa atxitu nezake. Gaitua nagoa-la diot. Baño zorion orrek, zillarbiziaren gisan dabilkitela, aldizka poza, aldizka tristetasuna, ematen dit. Ta ituna ematen didanean ere alako naigabe gogozkoa zait. Ez dakit ene oraingo itun au zer dala-ta nere biotzean dabillen. Agidanean badakit eta ez nuke nai jakin, badaukat eta ez nuke nai izan. Bildur ikaragarria ematen dit utsegiteak. Mirele, orren urruti zagoke neregandik?

Bat-bateko erazo arek zerbaitxo larritu zuan Mirele. Jakiña ez jakin onela itzegin zion:

—Erdiak ez dizkitzut ulertzen. Alkarrekin egonda urruti gaudela baderizkiozu... Triste

baño pozik naiago zaitut. Nik naiago det zure atsegin izan ez zure kalte.

Ta ari ura beatzarekin alderatuko balu bezela,

—Ta uso eizeaz ari giñala ez zuk ez gizontxo arrek (parra zegian len bezela) ez didazute esan zer dala-ta palak botatzen dituztenean usoek beerakoa egiten duten —galdetu zion Mirelek.

Naiago zuan Martinek orain-oraingo izketara jarraitzea; baño Mirelek agintzen eta aren esaneri begiratu bear. Gero ere arituko ziran eta nork zekian, nork...!

—Palak botatzen dituztenean usoari egazti arraparia iruditzen zaio ta igesbidea beetik artzen du. Aldiak badira, ordea, pala artzen ez dutenak, agitz gogorak datozenak eta orduan alper gorrian aritzen dira lanean usazale gaxoak, bele zarrak aña axola diote palari. Baño ondi etorrita ere ez da eunetik, ezta geiagotik, ez da bat erortzen; ala ere astean millakoa sareratua badaukate. Igarri nolako samalda ikaragarriak joaten diran.

—Eizkera ori oso polita da —zion Mirelek—. Txoloma txuriak sarean bizirik askoz ikusgarria-

goak dira tiroz ildakoak baño. Oso nago eizkera orren antzema. Ala ere naiago nuke neronek ikustea. Baldin nere aitari eskatuko banio, sasoiz oneratuko nintzake; baño aitarekin berarekin etorri bearko nuke... —txirristatu zan esatea.

—Alegia gu biok obeto giñakeala? —eldu zion mutillak.

—Ez... ez nuan ori esan nai. Badakizu... nere aitak ez dakiala zuk bezin ondo emengo berri. Arekin ez nukeala ikusiko zurekin bezenbat gauza. Gu ibilkoiagoak gerala, asper gaitzagoak...

—Zure aitaren laguntza ala nerea zein dezun naiago galdetu gabe ta urrengoa urrengorako utzita, esaidazu, Mirele, pozgarria zaizu gu biok alkarrekin egotea?

—Nola ez onen toki politan ta orren giro ederrarekin?

—Ez dizut ori esaten. Ni neroni naizelako, edota, beste edonor ni baño geiago jakiña ta egualdi obearekin naiago zenuke?

—Ez, naiago zaitut —azkenez aitortu zuan Mirelek.



Martinen poza ez da ukatzekoa. Gogoz artuko zion eskua ta bete-betean estutu. Biotz barrendik esker bero-beroak zemazkion alako neska zintzo ta txukunari. Gero ta bertago zitzaion lengo urrutitatsuna. Zoriona abo-beteta edango al zuan? Jadanik an bertan zegoan. Diruaren atsegiñak ez dira ezer ezti-dario orren aldean. Txurripaka asi zan. Beste edonor baño naiago omen zuan bera. Norañoko maitasuna ote zion? Urrengo egunean bazijoan Elizondora. Eta sarea? Leiatu bear zuan eta leiatuko zan. Egun berean banatuko zituan azalak eta mamiak. Eta zion:

—Ni zeñen pozik nagokizun...

—Ez dezu esan triste zaudela?

—Aldizka triste, aldizka pozik. Nere biotza batzutan zimur, bestetan amor ematen du. Na zinduzket, enea. Ez dakit nere adiskidetasuna nolakoa zaizun. Ez da adiskidetasun utsa. Zer beste geiago. Eta aundiago. Nere «tasun» orrek orren ideko «tasuna» bearrekoa du. Zuk ezik iñork ezin lezaioke eman. Orretxengatik, «tasunez tasun» ariko ez bagiña, ni triste; orrelakorik balitz, ni atsegin. Zuk nere atsegiña izatea naia-

go dezula esan dezunean orrelakorik esatea uste al zenuan? Ez, noski. Esango al zenuke?

—Zu ari zera; baño nik ez dakit nola esan. Zure «tasunik» ez dakit —zion Mirelek.

—Ona bada, ni zurekin edonorekin baño atsegiñago nago. Ni zu gabe osatu gabe nago. Nik egunez eta gauzez zauzkat gogoan... biotzean, orain eta len: enparantzako iturri ondoan, eskaratzeko arratsalde artan, zubian giñanean eta baita ere... Donibaneko egun gaxo artan. Ni bizi-ko banaiz bear zaitut. Nik, zu gabe, nukeana nukela, ez nuke ezere. Nik, bein batez esango dizut, nik maite zaitut.

Biak ixilik gelditu ziran. Martinek eskua artu zion Mireleri. Puxka batean eskutik artuta egon ziran.

—Ondo baderizkiozu abiatzea, illunduko duta —galdetu zion Mirelek.

Zutitu ziran, belaunetako nagiak kendu ta etorri ziran toki beretik azken-eguneko azken bidea artu zuten.

Beeraka zijoazen eta eguzkia ere bai. Doi-doi mendietako gaña urratu zuan. Usauri errixka

polita mendi gerizpeak arrapatu zuan. Eguzkiak artu, gerizpeak artu, ura beti an.

Egun artan Usauri txikiak iñoiz ez bezelako lillura zeukakion biko gazteari. Atsegiña gañezka, zoriona tontorka, pozik zijoazen maldan beera gero ta aurrerago. Martinen itzak ez ziran alperrikakoak izan. igarri zion. Aal zuan ondoen, gero ta geiago, jarduna maiteago. Mirelek Martin gogozkoa zitzaiola aitortu zuan.

Ta ibillian-ibillian, errira irixteko garaian, Martinek onela galdetu zion Elizondoko usoari:

—Maite al nazu, Mirele?

Ixilune baten ondoren neskaren erantzuna:

—Sarezai yayoa zagokit.

## XXII

# ESANAK ESAN, EZ GEIAGO

Irakurgai batek ez luke azkenik izango aria emanda-eman eta mendez mendeko, ordez ordekoekin jarraitu bear bagenuke. Eta baldin emen aipatutako orioetara bakarrik meartu edo estutu bearko bagintzaie, orien il arteko gertae-ra ta egiteak emen kontatu bearko genituzke. Ta kondar guztiak aipatzekotan gure iturriko emana zikindu, jakingarrien atsegiña atsekabe biurtu ta gure irakurgaia nekagarria ta asperkorra. Orren-gatik ez ditugu esan zer oartu ez duten askorik, eta bai, gure ustez, irakurleari atsegin lizaiokean askotxo; zer lasto, zer ale, irakurgaigiñek bae aundia bear. Bear aut eta gera akit, bear ez aut eta ken akit.

Eta onetan geratu gera. Orain artekoak nik zuri esatekoak nizkitzun, irakurlea. Geroztik zer-bait geixeago jakin aal izan det; baño ez noaki-zu, beti bezela, me ta lodi, xe ta larri, guztiak esatera. Agidanean zu oso zaletuta zaude emen-go zenbait gertakizunen bukaera jakiteko.

Badira istorioetan zer ikusi gutxi duten kristauak, beñolakoan alako gertakizun batean laguntza eskeñiz etorri ta artu genituanak; oriek txikiak eta urrutira bezela ikusten dira. Geienaz ere, maiz izatekotan, ur axalean txuriak egiten botatzen ditugun ugarriak dirudite, ur azpian ezkututzen dira ta ez ditugu geiago bear izaten. Zer ajola digu Manuelengandik erlojeruaren aldean? Zer Arranopoletagatik Antonioren truke? Juantxo bera, oargarria zitzaigularik, zakon erdian gelditu zaigu, ez gora ta ez beera; ez degu aren berririk jakin. Paulinok eta Katamotzak ez zuten geroztik alkar ikusi. Josunek ez al digu ardura geiago Este ta Bittoriren marimutilkeriak baño? Andre Axentxi, Krexentxio...

Beste aldez, erretoreen biziera baño gauza berdiñagorik, iñoiz ikusi dezute? Etxetik elizara, elizatik etxera, erriko urtearen egunik gogoragarrietan erritarren buru azaldu, jaiak jaituko badira. Alkateek gauza asko egin lezazkitek agintzaldian: onak eta txarrak, samiñak eta parreragitekoak. «Alcalde tonto, sententzia pronto», «Gogorrena alkate»... ta orien antzeko esaerak zerbaitetik datoz. Baldin gureak askoen

egitekoak egin izan balitu pozik kontatuko genituan; baño gurearen lanak, lanean aritu gabe nola bizi. Apaizek, berriz, ez dute makillarik ibiltzen, ez eta ez dira elezioetan sartzen. Aien indar guztia, itzaldia da; etorri nai ez duana ez dute ekartzen. Aien lana, batez ere, buruzko lana da, sarigarriagoa da; erriaren gaitzak nolakoak diran, nola sendatu litezken, beartsuak badira, edarizaletasuna bada, dantza lotua bada. Ta orretxengatik Don Inaziori buruz esan ditugunak ongi esanak daude. Alajaña, ez gaude guztiak jaun ura bezelako gizon zintzo, apal eta ongilleak!

Botikarioaren buruz asten bagera... gizajoa, ia txoratu zaigu! Arrotzaren izketak gaitz egin zion. Bere bizitzako egunik ederrenak orduantxe pasa zituan. Arrotzarekin ibilli zituan gaiak begizkoenak zituan, geien atsegin zitzaizkionak. Baldin len jakin-gai orietaz bere burua erriko bildegi bakarra uste bazuan, gero are geiago. Arrotzarekiko izketak bere ustea sendotu zioten, bere jakintsunaz txinistu ta Einsteinen ustari zallak ikasten asi zan. Orretarako, orde, lendanik zerbaitxo gaitua egon bear, malla mallako ikaske-

tak egin bear, ta gure botikarioak iritxi eziñeko ezkutuetara jota, etsi bearrean, gero ta geiago zaletu ta txegosi ezin zitzakean jakingaiak iretsi. Orain sendatzeko ala arras txoratzeko aukeran dago. Jainkoak lagun!

Baño, batez ere, irakurleak jakin nai lukeena Mirele ta Martinen maitasun arazoaren bukaera. Guk emen esandakoa orain gutxi dala gertatu zan. Or utzi genituan biak bata bestea gabe ezin bizi. Aien alkarkunde goxoak guri ere biotz-ikuttua egin zigun. Asarre egoten ziran bakoitzean, gu ere kopetillun; zoriona berekin bazuten, gu alaitzen gintzaizkien. Aidean erori-zorian zeuden zartako guztiak Antoniori gañeratzen zitzaizkiola? Guri ezerez. Erlojeruak parra beste lanik ez zuala egiten? Ezta deus ere. Baño gure bi gazteen maitasuna, bai. Ala izan oi gera guzti-guztiak liburuetan ala urruti ikusten ditugun maitaleekin, aien alkar ongi aditzea naiago. Ez, ordea, bestela; izaten dira geren artean begi aurreko maitaleak bekaizkeriz ikusten dituztenak.

Dana dala, gure bi gazteak iñori kalterik egin ezik (ajola zien besteengatik), politak eta zintzoak zitzaizkigun. Barrengo mamitik ezagutzen

genituan. Martinek Mirele maitatzea nai genuan eta Mirele orobat. Uskeriren bat kezkatu ote zitzakean bildur giñan. Usategiko arratsalde arek pozik utzi ginduan. Eta ori orain asko ez dala gertatu bazan zer geroztik?

Martin eta Margarite anaitzakoak dira. Bi illabete ere ez da izango Martin eta Mirele Elizondon ezkondu zirala. Usauri utzita etxeratu zanean buruko mototsak korapillotu egin zituan.

Itza-pitsa, an utzi genuan arrotza. Tukulueneko eskaratzean neska batzuen erdian. Oneri buruz bai ez degula geroztik ezer esan. Artean zerbait bazan esatekoa. Arrotza Tukuluenean zegoan ostatur. Ostatuan etxe oneko semea zala zekitela, beste gañerakoek alkarrekin bazkaltzen bazuten ere, arrotzak bakarrik, orrez gañera etxeko alaba zarrena jarri zioten neska-me. Josunek guztiekin atsegiña izatea berezkoa bazuan, arrotzarekin are geiago. Ostaturko jakirik onenak etxeko neskarik politenak zekazkion.

Arrotzari, noizpeinka, zerbait esatea bearrezkoa iruditu zitzaion; ez zitezela, beintzat, beti ixilik egon. Berak oi zuan bezin garbi, au edo ori dala, beti bazeukan itztxo bat esateko aukera.



Josune ere ez zan motela, ta esana esanagatik oso atsegiña zitzaion arrotzari. Neska polita bera ta irripar arekin txoragarria jartzen zan. Arrotza zaletu zitzaion. Jatorri ta iduri oneko gaztea zalarik, Josune neska ederraren diña bazala uste.

Izketa gero ta aurrerago zeraman mutillak. Aal zuan maizena egiten zion eta nolabaiteko gaiak utzi ta bere aldekoak bakarrik ikusten zituan. Gero ta geiago. Baño arrotzak oartu zuanez alako mugatik aurrera ez zijoan beñere Josune. Arrotza azkarra zala, baño ezin aterazi Josuneri iñoren aurrean esango ez zituanak. Josunek axaletik bai, barrendik ez.

Arrotzak kabi utsa arkitu. Arrokeriz ikututa erabakia artu zuan: ez zuan bada jokatu mugaz arunttik; muga bitartean, biziki.

Egun batzuk igaro ziran. Iñork ezin lizaiokean igarri arrotzari arpegiaren azpian zer zerabilkian. Orain Josuneren txanda zan. Orain bai bareganatu zitzaiola. Gau aietan loa gutxitu zitzaion. Baño alperrik. Beste bi egunean egon zan arrotza ostatuan. Beti eratsua, gizatsua ta begitarte oneko; baño joan egin zan. Neskame-sari naroa utzi eskuan eta... etorriko urrengoan.

Josune gaxoa!

Bigarren kanpotarrak «poto».

Azkenez, Antoniok josteko makinak eta fonografoak saltzen egindako zorrak ezin berdindurik, Prantzira aldegin zuan.

Erlojeruak bein SesioteGIN izugarrizko edatea edanda, ustegabeen zan aña luze erori zan, batbateko. Guztiak parrez asi ziran; ez, ordea, nagusia.

—Zuek zerate gañeko emen gertatu danaz —esan zien—. Gizon au oera daramakit.

Mozkor-miñak jota oa-zapiak busti-busti egin zituan izardiz.

Il egin zan.